

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXXII (2. aldia)
(1987, 2)
32
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Argitarapenen batzordea:

Euskaltzainburua, Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburu-ordea, Jean Haritschelhar

Euskaltzaindiko Idazkaria, J. M. Satrustegi

Euskaltzaindiko Diruzaina, Juan San Martin

Iker Sailburua, Koldo Mitxelena

Jagon Sailburua, Juan San Martin

Liburuzaina, Alfonso Irigoien

Patxi Altuna

Federico Krutwig

Argitarapenen Eragilea = batzorde idazkaria, Ricardo Badiola Uriarte

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.

Fotokonposaketa: Rali

Particular de Costa, 12-14

48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza

Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia

Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI 211-87

AURKIBIDEA

“ESKUALDUNA” ASTEKARIAREN MENDEURRENA

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua, “ESKUALDUNA” ASTEKARIA-REN MENDEBURUAN</i>	243
<i>Piarres Xarritton, ESKUALDUNA-REN MENDEURRENA BAIONAN</i>	245
<i>Martin Ugalde, KAZETARI EUSKALDUN BATEN KRONIKA</i>	253
<i>Luis A. Aranberri, EUSKAL KAZETARITZA IDATZIA, EHUN URTE-TAN LORATU EZ DEN LANBIDEA</i>	259
<i>Jose Mari Iriondo, IRRATI-TELEBISTAREN LEKUKOTASUNA</i>	263

TORIBIO ETXEBARRIAREN MENDEURRENA

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua, TORIBIO ETXEBARRIA JAUNA-REN MENDEURRENEAN</i>	273
<i>Juan San Martin, TORIBIO ETXEBARRIA EUSKALARI ETA EUSKAL IDAZLE</i>	277

ZARAUZKO HIRIAREN SORRERAREN 750. URTEURRENA

<i>A. Karmelo Iturria, ZARAUZKO FRANTZISKOTARREN MISIOLARI KOLEGIOA ETA EUSKARA</i>	289
<i>Anjel Lertxundi, HAUR LITERATURA ETA TESTUGINTZA: ZARAUZKO IKASTOLAREN INGURUAN SORTU DEN MUGI-MENDUA</i>	297
<i>Fr. Luis Villasante, EUSKAL LIBURU ZAHAR BATEN AURKIKETA DELA ETA</i>	301

BESTE ZENBAIT GAI

<i>Yu. Vl. Zytsar, ESCALERA DE COMPUESTOS DE TIPO MUJER-CRIATURA EN EL VASCO</i>	31
--	----

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

V. BARNE-JARDUNALDIAK DIRELA ETA.....	333
V. BARNE-JARDUNALDIAK.....	337
LEXIKO-BERRIKUNTZA ETA BILKETA-LANA NOLA BIDERA ...	343
BATZAR AGIRIAK.....	349

BATZAR TXOSTENAK

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua, LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO V. JARDUNALDIAK (HITZ ELKARKETARI BURUZ 2AK)</i>	377
<i>Josemari Velez de Mendizabal, FELIPE ARRESE BEITIAREN BERTSO ARGITARAGABE BATZU.....</i>	381
<i>Mikel Zalbide, HIZTEGIGINTZA-BATZORDEA 1987 ETA 1988RAKO EGITASMOAK</i>	389
<i>Juan San Martin, CADIZKO KONSTITUZIOA EUSKARAZ 1820</i>	393
<i>Jose Antonio Arana Martija, ANGEL ALLENDESALAZAR-EN "BIBLIOTECA DEL BASCOFILO" KATALOGOAREN MENDEURRENA</i>	399
<i>Alfonso Irigoien, HITZ ELKARKETAZ</i>	407
<i>Tomas Uribeetxebarria Maiztegi, XV. SINBOLISMO FONETIKOA ETA HOTS-UZTARDURA HITZ ELKARTUEN ITURRI.....</i>	413

ONOMASTIKA SAILA

HERRI-IZENEI BURUZKO ADIERAZPENAK:

EA	419
SAMANIEGO	421
BAÑOS/MAINUETA.....	423
OION	425
SOPELA.....	427
<i>Jose M.^a Jimeno Jurio, PRESENTACION DEL BORRADOR DE "GUIA PARA LA RECOGIDA TOPONIMICA DEL PAIS VASCO"...</i>	429
<i>Jean-Baptiste Orpustan, LEXIQUE ET SUFFIXES DANS LA TOPONYMIE BASQUE D'HABITAT (DOMAINES RURAUX ET MAISONS) DU MOYEN ÂGE EN LABOURD, BASSE-NAVARRRE ET SOULE.....</i>	443

<i>Alfonso Irigoien</i> , "IBAIZABAL" ZERITZAN ETA ETORKIZUNEAN ERE LERITZAKEEN IBARRAZ	457
--	-----

BERRIAK

<i>Pierre Molères</i> , <i>Baionako Apezpikua</i> , "ESKUALDUNA" ALDIZKARIA- REN MENDEURRENEKO MEZA SAINDUKO PREDIKUA...	463
<i>Jean Louis Davant</i> , MEZA SAINDUKO KRISTAU ESKAKIZUNAK..	467
<i>P. Xarritton</i> , "R. M. ^a AZKUE ETA P. BROUSSAINEN ARTEKO ELKA- RRIDAZKETA" (IKER 4)	469
<i>Fr. Luis Villasante</i> , <i>Euskaltzainburua</i> , "RESURRECCION MARIA DE AZKUE ETA PIERRE BROUSSAIN-EN ARTEKO ELKARRI- DAZKETA" LIBURUAREN AURKEZPENA.	471
<i>Jose Luis Lizundia</i> , <i>IKER 4</i> , "RESURRECCION MARIA DE AZKUE ETA PIERRE BROUSSAINEN ELKARRIDAZKETAREN" AUR- KEZPENA	477
<i>Ricardo Badiola Uriarte</i> , BILBOKO PLAZA BARRIKO EUSKALTZAIN- DIAREN EGOITZAZ, BILBOKO UDALETXEAN IZANDAKO BISITA	479
<i>Ricardo Badiola Uriarte</i> , EUSKALTZAINDIAK IBERDUERORI EGIN- DAKO BISITA	481
"XENPELAR SARIA" 87 ETA "FERNANDO AMEZKETARRA" SA- RIA (OINARRIAK)	483
<i>Fr. Luis Villasante</i> , <i>Euskaltzainburua</i> , "EUSKAL TESTU ZAHARRAK" (I) LIBURUAREN AURKEZPENEAN	487
"D" MAILA TITULUDUNAK	489

HILBERRIAK

<i>Juan Mari Lekuona</i> , MANUEL LEKUONA ETXABEGUREN (1894-1987)	493
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

EGOITZA/SEDE	499
"AZKUE BIBLIOTEKA"	499
GORDAILUA/ALMACEN	499
ORDEZKARITZAK/DELEGACIONES	499
EUSKALTZAINBURUGOA/CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS	500
BATZORDE GUZTIEN ORGANIGRAMA	501

EUSKALTZAIN OSOAK/ACADEMICOS DE NUMERO	503
EUSKALTZAIN OHOREZKOAK/ACADEMICOS DE HONOR.....	505
EUSKALTZAIN URGAZLEAK/ACADEMICOS CORRESPONDIENTES	507
AURKIBIDEA 1987	513
EUSKERA XXXII (1987, 1)	
<i>Zuzenkizunak / Fe de erratas</i>	517

**“ESKUALDUNA” ASTEKARIAREN
MENDEURRENA
(1887-1987)**

Baiona, 1987-III-29

“ESKUALDUNA” ASTEKARIAREN MENDEBURUAN

Baiona-n, 1987ko Martxoak 29

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-Andreak, egun on guztioi!

Euskaltzaindiaren ohitura da euskararekin zer-ikus duten iraganeko gertakariak gogoratzea eta hortik hizkuntzaren gerorako ikas daitezkeen letzione eta erakaspenak hartzea. Eta hori da, hain zuzen, egungo kasua. Ehun urte dira *Eskualduna* astekaria hemen Baionan irteten hasi zela. Astekari horrek bere urtume den *Herria*-rekin batean, ehun urteko adina jo du. Ez da egunoro gertatzen den gauza, eta merezi zuen ospatzea.

Eskualduna euskal kazetaritzaren aitzindaria dela hertsiki ezin esan daiteke, zeren *Le Réveil Basque* urtebete lehenago agertu baitzen, baina honek ez zuen iraun, besteak, aldiz, bizitze luzea izan du, eta kazetari ospetsuen lantegi bilakatu zen. Guztion gogoan dira Hiriart-Urruty, Abbadie, Arnaud, Etxepare eta beste ainitzen izenak.

Hortik hizkuntzari gertatu zaizkion irabaziak nik hemen konta ditzakedan baino handiagoak izan dira, zalantza gabe. Bai. Urrats handia izan zen hura. Behar zen plegu berrietara egokitu hizkuntza, eta idazle-mordoa jarri zen lanean. Beste gauza askotan bezala, honetan ere Iparraldea aitzindu zaio Hegoaldeari.

Ospaketa hauek ez dute izan behar iragana oroit arazteko soil-soilik. Jaun haiek beren garaia irantzi zuten zutena gogoratzearekin batean, guk geureari irantzi zuten zer behar dugun egin gogoeta egiteko parada dira. Kazetaritzak bere garrantzia atxikitzen du orain ere, baina badira teknika berriak eta komunikagailu berriak, agian euskararentzat ahalez baliatu beharko direnak.

Segidan mintzatuko diren jaunak gertakari honen alderdi edo saihestes desberdinak harrotuko dizkigute, bai iragana eta bai etorkizuna ere gogoan hartuz. Dena motx eta labur, ordea.

ESKUALDUNA-ren mendeurrena BAIONAN

1887-III-15 - 1987-III-29

Piarres Xarritton

1887ko martxoaren 15ean, orai duela ehun urte, argitaratu zen Baionan, *Eskualduna* izenarekin, lehen astekari euskalduna.

Gertakari horrek gaitu elgarretaratzen hemen, Baionako euskal erakustoki honetan, mendeurrenkari, Euskaltzaindia-ren itzalean.

Eskualduna-ren sortzailea eta jabea, Louis Etcheverry (1853-1907) politikari euskalduna izan zen. Politikaz egin ote zuen hori jaun horrek? Politikari guziek alabaina beren ideietara bildu nahi izan dituzte, egundainotik, beren herritarrek. Eta hain zuzen Louis Etcheverry-k bazekien, bere kontrako beharra zuen Martial Berdoly deputatu gei gorriak, 1886ez geroz (1), Paben argitaratzen hasia zuela *Le Réveil Basque*, astekari erdi-euskalduna.

Ala aments euskara maitez zuen *Eskualduna* sortu deputatu gei xuriak? Xuxen ez genekike. Zenbatetaraino berak euskara menderatzen zuen ere ez baitakigu. Baigorri Etxeberrineko familia ezagunetik ateraia izanik ere eta haurretik Donazarreko Sala jauregian hazia, bera Baionan sortua zen, Parisen eskolatua eta ez zirén euskaldunak ez haren ama ez haren emaztea. Dena dela, bere ikerlanetan erakutsi zuen Euskal Herriari atxikia zela, lan ederrak argitaratu baitzituen, bai “euskaldunen ondoriotasun ohidurez”, bai ordu haietan “euskaldunak Ameriketara saldoka zeramatzan mugimenduaz” (2). Bainan politikan ere ez da dudarik, bere odoleko Baigorriar asko bezala, Napoleon-en miresle handietarik zela eta beti Bonapartista izan dela.

Bildu zituen lagunak ere ideia berekoak zitezkeen, hots “xuriak” edo “xurituak” —“xuriak” izaitze erregetiarrak baitziren, bonapartistak aldiz Napoleonek ixuri odolarekin nahi-t-ez “gorri” izanik, geroxeago “xuri-

(1) *Le Réveil Basque*, Pau Garet, 1886-1894.

(2) “Les coutumes successorales du Pays Basque au XIXe siècle”, Ligugé, 1894. “Les Basques et leur émigration en Amérique”, Réforme Sociale, 1886.

tuak"—; erran nahi dugu beraz apez eta fraile andana bat: Innocentius eta JuvénaI-Martyr, Hazparneko ikastetxeko bi "frerak", Jaret Hazparneko misionesta, Ithurry gramatikalaria eta *Napoleon-en* *pastorala*-ren idazlea, Bidart-Oxxak pertsularia eta Uztaritzeko Etcheberri, *Almanaka*-ren sortzailea, eta bestalde, Duvoisin kapitain famatuaren ondotik, jaun parrasta bat: Minjonnet eta Mendiboure Baigorrikoak, d'Etchandy ziberotarra, Ritou Hazparneko notaria eta oroz gainera Albert Goyeneche medikua, Donibaneko auzapeza. Azken hunek zuen, hain zuzen, bere karrosa zainaren semea aurkitu, Arnaud Pochelou Aihertarra, euskal astekaria hemezortzi urtez kudeatu behar zuena (1887-1905).

Horrela bildu zen beraz kazeta tipiaren hastapeneko taldea. Kazeta tipia aipatu dugu, zeren irakurle kopuru tipia baitzuen lehenbizian: 850 ale baizik ez zeuzkan alabainan 1888an, 950 1889an, 1200 1890an, 1300 1891an; oraiko kazetari gazte zenbait lotsatzen baitira guti saltzen dutela, ez bidez izi!, horrela abiatu zen ere gure *Eskualduna*, arras tipitik (3).

Bainan laster etorri ziren izigarriko ximixta eta ortzi karraskak: lau urteren buruko, apezpikutegian eta diosezia guzian ustegabeko gertakariak gertatu zirelarik.

* * *

Eskualduna-ren buruzagia deputatu iragaiten zelarik, Louis Etcheverry bera, hona nun Marsellatik Baionara heldu den, 1890eko martxoan apezpiku berri bat, Mgr Jauffret izena duena. Honek fama txarra du —zenbaitek framazona dela ere diote— Gobernuaren eskumakil umil, hasteko, berehala agertzen da; etorri orduko Emmanuel Inchauspe bikario jeneralaren kargu uztea onartzen baitu eta berak hamar erretor euskaldun lekuz aldatzen baititu, botzetan beren burua soberaxe agertu dutelakoan. Hamarretarik zazpiek ordea, apezpikuaren kontra auzia Erromara eremaiten dute eta, han dagoen Baionako "monsignor Pujol" delako bati esker, irabazten.

Erromako auziaz zenbait piko atera zituen *Eskualduna* astekariak, 1891eko urtarrilaren 9an, eta hori gaitzitu apezpikuari, bai eta berak jakinerazi buruzagiari, eliza guzietan kondenatzen zuela haren kazeta, ez bazituen berehala gezurtatzen bere aintzineko solasak.

Amore eman zuen aldi honetan Louis Etcheverry-k, bainan handik aste guti barne, lankide berri bat aurkitzen zuen Larresoroko Semenarioan berean, Jean Hiriart-Urruty, hango irakasle gaztea, Hazparne Joanesederraeneko apezza (1859-1915). Hats berri ta luzea eman beharra zion, mende laurden batez, astekari euskaldunari, apez gazte horrek, berak

(3) P. LAFFITE, in J. Hiriart-Urruty, "Mintzaira, aurpegia, gizon!", *Jakin*-2, 1971, "Eskualduna", 23-42. orr.

eremanen zuen lan izigarriaz bestalde, lankide paregabeak bildu baitzi-tuen euskal alor berri horretara, hala nola eta lehenik Arnaud Abbadie Larresoroko buruzagia eta filosofia irakaslea, luzaz eta luzaz Laborantza gaiez ariko dena; Blaise Adéma, Adéma-Zalduby xaharraren iloba; Dominique Mocoçain Baigorriko bikaria; Julien Heguy Aihertarra; geroxeago Pierre Broussain herritarra (4); eta bere ikasle ohi zenbait ere, Jean Etchepare medikua, Jean Saint-Pierre, Jean Elissalde eta Jules Moulier. Nola ez aipa azkenik Jean Barbier garaztarra eta, "Joanes Garaztarra" sinatua gatik, Santa Garazia-ko seme zen Jean Baptiste Constantin errien-ta eta honen ziberotar lagundia?

* * *

Ondoko urtean ordea, 1892an, berriz sortzen dira eztabaidak kazeta-ren inguruan. Ez ote da Aita Saindua, Leon XIII.a Frantziako Errepubli-karen alde agertzen? Lehenago ere Lavigerie Baiones kardinala horrela-tsu mintzatua zen, Erromatik hitzerdi errana baitzioketen eta gaizki hartua izana zen (5). Bainan oraikoan, Aita Saindua bera mintzo izanez (6), Larresoroko apezek "amen" erran behar zuten. Apez horiek ikasi dute alabaina Larresoroko lehen irakaspena, hots "patria"rik ez dagoela, eta apezek "patria" bakarra "eliza" dela. "Patria"ren izenean elizak eskatuari behar zaio beraz beti jarraiki. Horra zergatik Larresoroko apezek "amen" erraiten dioten Aita Sainduari eta Errepublikari (7).

Louis Etcheverry aldiz Bonapartista baitzen, eta ez apeza, nekez umiliatu zen. Orduz geroz, halako hinki-hanka batean gertatu ziren *Eskualduna*-ren buruzagia eta bere lankideak. Ez halere horrengatik orai-nokoan elgarretarik bereizi.

1901ean frantses gobernuak lege berri bat eskaintzen dio elizari, *Loi des Associations* izenekoa. Lege horrek sortzen baititu eztabaidak apezpi-kuen beren artean. Baionako apezpikuak ere bere ikuspegia gai horretaz agertu zuen. Aita Saindua aldiz orainokoan ixilik. Bainan Etcheverry-k bere astekarian Baionako apezpikuaren kontra ohar bat edo beste bota

(4) P. CHARRITTON, "P. Broussain, sa contribution aux études basques", Paris CNRS, 1985, *passim*.

(5) "Toast d'Alger", 1890.

(6) "Au milieu des sollicitudes" entziklikoa, 1892.

(7) Larresoroko semenarioan 1834ean, Claverie hango buruzagiari egin zion ikustaldi batez honela dio, hango ikasle eta irakasleez orduko ikusliar batek: "Il faut à leurs yeux que l'armée des fidèles se renforce comme celle qui doit défendre le sol chéri... Pour le prêtre il n'est point de patrie. Le sienne véritable est celle où la croix qu'il élève voit tomber les peuples à ses pieds." J. L. LACOUR, "Une visite à Larressore en 1834", *Gure Herria*, 1926, 509. orr.

baitzuen eta apezpikutegitik botaren errefera etorri baitzen, *Eskualduna*-ren buruzagiak bere buruzagitza uztea honetan erabaki zuen.

Louis Etcheverryk 1901 ean, bera baino eskuinago den baten eskuetan, Edouard Drumont famatuaren adiskide den Renaud d'Elissagaray-en eskuetan, ezartzen du horrela astekari euskalduna. Hiru urte iraun zuen buruzagitza horrek. Aitor dezagun hiru urte horietan ez zela hanbat ontsa heltzen, Manex Hiriart-Urruty idazle nagusia, d'Elissagaray zuzendariarekin. Jaun hau bera ohartu zen bestalde ez zukeela Euskal Herrian aterabiderik bere politikarentzat, Bordale alderat urrundu zen eta "Médoc" aldeko deputatu sartu.

* * *

D'Elissagaray-en orde *Eskualduna*-ren adiskidek Nicolas d'Arcangues, Milafrangako politikari erregetiarra, hautatu zuten 1903ko azken astetan. Aldaira honen aitzakiaz baliatu zen orduan Louis Etcheverry, *Eskualduna*-ren izenaz berriz jabetzeko, eta 1904eko urtarrilarean izen berri batekin agertu zen honela *Eskualdun Ona* (8).

Harrigarriko gorakada egin zuen gure kazetak, jauntzi berritan, bizpalau urtez. Ikus bada: 1700 hartzale zituelarik 1904eko hastapenean, 5000etara igan zen 1905ean, eta 7000etara hiru urte barne.

Bainan oroitu behar dugu nolako gertakariak orduan gure Herrian gertatu ziren: 1903an, prefetak debekatu zien Euskal Herriko apez guziei, katixima euskaraz emaitea, beren hilabete saria galtzeko mehatxupean. Hiru hilabetetarik erretorek prefetari behar zioten bidali beren auzapezaren ageria katixima frantsesez emaiten zutela frogatzeko —eta ez euskaraz—. Asmatzeko da zer nahasketak sortu zituen bazterretan ordena itsusi horrek, bereziki Mgr Jauffret hilik, Baiona apezpikurik gabe zegoen momentu hartan.

Horren ondotik etorri ziren "Imitorioak", *les Inventaires*: Gobernuak elizaren ontasun guzien kondua egin nahi izan zuen, haietaz jabetzeko. Horrela prezeturak sartu ziren, polizaren eta harmadaren laguntzarekin, elizetan, semenarioetan, komentuetan, apezpikutegietan, eta hemen frantses gobernuak ebatsi zituen Baionako eta Larresoroko semenarioak bai eta Baionako apezpikutegia ere, besteak beste.

Ez da dudarik horrelako gatazketan izpirituak berotu zirela. Ez da beraz harritzeko Manex Hiriart-Urruty-ren orduko artikuluek gogor kutsu bat eta bortitz aire bat balin badute; hala nola Jules Ferry hil zelarik, euskaldun kazetariak titulu harrigarri hau bota baitzion: "Bat gutiago!".

(8) *Eskualdun Ona* izen horrek iraunen du Louis Etcheverry hil arte. Gero alargunaren baimenarekin, 1908ko urtarrilean Manex Hiriart-Urruty-k hartuko du berriz *Eskualduna* izen xaharra.

Ber denboran ordea, beste eztabaida bat sortu zen Hiriart-Urruty-ren eta bere lankide talde baten artean, hots Larresoroko apezan eta laiko talde baten artean. Azken hauek, Broussain eta Constantin bi medikuak, Clément d'Andurain haien adiskidea, harremanetan ziren Hegoaldeko abertzaleekin; Iparraldean nahiko ziren Sabino Arana Goiri-ren bidetik abiatu; berek zioten, "euskaldun alderdia" behar zela sortu eta beraz euskal astekaria baliatu. Bainan honetan Larresoroko apezak kontra jarri zaizkien. Hauentzat alabainan erran bezala, "patria" bakarra eliza da. "Fedea" da bakarrik zaindu behar dena; Hiriart-Urruty-ren ustetan "Euskaldun" dira bai, bainan ez zaie iduritzen "euskaldungoak" baduela, berez, zaintze beharrik. Horra zertan elgarretarik urruntzen diren bi taldeak.

Berantxeago oraino, 1911 irian, Hegoaldeko abertzale eta euskaltzale batzuen kontra agertuko ditu Hiriart-Urruty-k artikulu bat edo beste, zinez, "min emanen diotenak" Piarres Broussain Hazparneko auzapezari ta honen lagunei (9). Gehiago oraino, urrunduko dira elgarretarik bi hazpandarrak, apezak azkenean, ikusiko duenean "elizaz" beste "patria"rik behar duela gizonak, Frantzia hartuko baitu "patria bakar". "Batasun Sakratua"ren izenean —"*l'Union Sacrée*" famatu hura gogoan har— 1914eko gerlan sartuko da, lorios, *Eskualduna*, oihu eginez: "Biba Frantzia!".

Bide horretatik joanen da orai beti —eta hil arte— gure kazeta euskalduna. Bakarrik Frantziaren amodio itsu horrek ere manen du azkenean Euskal Herriaren ahanztera eta berdin Frantziaren etsaiekin bat jartzera. Ez berehalakoan, bainan urrats-ka, historiari jarraikiz.

* * *

Manex Hiriart-Urruty ezen laster hilen da, 1915ean. Piarres Broussain ere bai, 1920an. Hiriart-Urruty-ren ondotik Blaise Adémak hartzen du kazeta, Jules Moulier-Oxobi, Hiriburuko bikariak emaiten dion laguntzarekin eta bizpalau adixkidek, Jean Saint-Pierre, Jean Elissalde eta Jean Etchepare-k, gerlatokietarik, igortzen dituzten berriekin.

Gerla bururatzearekin, gerlari ohiak gerlatik itzuli zirenak urrundu ziren gehienak Adéma-ren ganik eta *Eskualduna*-tik. 1921an sortu zuten horrela beren artean *Gure Herria* izeneko hilabetekaria (10). Aldizkari berri honek nahi-t-ez eremua xuhurtu zion *Eskualduna* xaharrari eta

(9) P. CHARRITTON, "R. M. Azkue eta P. Broussain-en elkarridazketa", *Iker-4*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1987, 295. orr.

(10) *Gure Herria*, 1921-1939, Baionan.

1925ean, azkenekotz Adémak utzi zion Saint-Pierre gazteari astekari euskaldunaren zuzendaritza.

Buruzagi berriak hats berri bat ekartzeko xedea zuela dudarik ez da. Elissalde eta Moulier bere lagunak bezala, Saint-Pierre ari izana zen, Bilbo-ko *Euzkadi* egunkarian, Iparraldeko berrien emaiten, abertzaletasuna zer zen bazekiten gizon horiek eta haren alde agertzeko ere ez ziren lotsa —auzoan bederen— Mendiz honaindian hargatik hor zuten Jean Ybarnegaray-en itzal beldurgarria eta hau zein urrun zegoen abertzaletasunetik ez baita erraite beharrik, konprenitzeko da nola, urte horietan, *Eskualduna*-ren lankideek, euskaldunen ohorea zaindu nahiagatik —ikus Saint-Pierre-n: “La Bascouraille” artikulua— ahal bezala uztartzen dituzten Aberri Nagusia eta Aberri Tipia, “la Grande Patrie” eta “la Petite Patrie”. (“*Les meilleures pages de Mgr Saint Pierre*”, ed. Herria Bayonne, 1954).

Bost urteren buruko apezpikutu zen Jean Saint-Pierre eta *Eskualduna*-ren zuzendari sartu Domingo Soubelet hazpandarra, apezpikutegiko idazkaria. Buruzagi berriak iraunen du zazpi-zortzi urte, izigarriko lana eginez, zainetarik eritu arte; orduan, hots 1937an, Azkaratera erretor joan arte. Indar betean da astekari euskalduna; *Gazten Almanaka* eta *Gazten xokoa* ere agertzen dira. Bainan beti filosofia berdinarekin, hau da *Eliza*, *Familia* eta *Mintzaira*. Euskal Herririk ez balitz bezala. Eta hutsune hori behar baitu zerbaitek bete, hor duzu Frantzia sakratua, gerlari ohien Frantzia. Horra *Eskualduna*-ren politika, frantsesa baino frantsesagoa. Bide horretatik urrunago joanen da, ahal bada, Soubelet-en ondotik sartzen den buruzagi berria, Xalbat Arotçarena, Isturiztarra, Landibarreko erretor izana.

1937ko apirilean, Gernika erretzen duten egunetan, hartzen du, hain zuzen, bere kargua zuzendari berriak; ohargarri da nola euskara hoin ederki zekien kazetari euskaldunak bere astekarian aipatu zuen Gernikaren erreketak, orain duela berrogoi-ta-hamar urte:

“Euskaldun guziek maite dute Gernika eta Gernikako Arbola: guziek bihozminekin jakin dute makur gaitzak egin dituela hor gerlak. Mola-ren soldadoek hartu aintzin, Bilbo-ko berriek zioten aleman airoplanek izigarriki tirokatu dutela. Xuriek aldiz ezetz; gezurra diotela; hori gorrien beren lana dela, Irunen bezala, Eibar-en bezala, orotan bezala. Bainan han ziren jendeak salatzen daukute eta Agirre Euzkadiko buruzagiak jakinerazi dauku, hiru orenez iraganik aleman airoplanek, aldizkatuz, beren bonbak aurtiki dituztela, hiriaren gainera. Merkatu eguna hain xuxen, zenbat jende ez da garbitu hor! Ni nago alemanek beti obeditzen ote dutenetz Franco-ren manuei eta ez dutenetz, beti bezala, uzten tzarkeria nausi, bere gain! Gernika-ko Arbola ez omen dute haatik hunki. Mola-ren soldado euskaldunek zaintzen dute Arbola saildua. Geroztik

izan diren kazeta-egile frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, Irun-en egin zuten bezala (11)”.

Horra beraz nola emaiten zituen berriak orduko kazeta euskaldunak. Eta ez hori bakarrik, bainan zuzendariak berak, aste oroz, jaukitzen zituen gogor euskal abertzaleak eta hauek hemen argitaratua zuten *Euzko-Deia* (12) deitu kazeta. Ez zen ordea luze joan eztabaida hori, zeren bestaldean baratu orduko, hemen berean piztu baitzen gerla.

Frantses harmada errautsirik eta frantses soldadoak ihiztatzen zituztela, erbiak bezala, aleman tropak ikusi genituen 1940ko udan Baionara inoiz heldu. Gure herritar gehienak harrituta, zein “plantakoak” —*corrects* frantsesez— ziren, delako Hitler-en soldado horiek. Hain plantakoak iduritu zitzaizkon gure Arotçarena-ri, non erabaki baitzuen behar zituela bere astekarian sustengatu, Rusiako komunista gorrien kontra. Eta hortarik ari izan zen “gorri-gorria” —erran badezakegu— gure idazle euskaldun frantses eta xuria. Hainbestetaraino, non Hitler-ek mintzaldi bat egiten zuenarik, Arotçarenak euskaldunentzat itzulpena egiten baitzuen, zenbaki berezia argitaratuz.

Gero ordea, gerla galdurik, alemanak ihesi joan zirenean, *Eskualduna* hetsi behar izan zen eta zuzendaria bera itzalera joan, gogoeten egitera. Auzitegian iragan ondoan eta gaztigu garratzegirik gabe, Baionara itzuli zelarik, Xalbat Arotçarena, gramatika lanetan eta apezpikuteigiko artxiboetan ere ezagutu genuen. Hil aintzin, katedraleko kalonje eta Euskaltzaindiko urgazle izendatu zuten bestalde.

Azkenekotz, hemen lasterka aipatu ditugun kazetarien obrak norbaitek hurbildik ikertu nahi baditu, jakin dezala haxe bederen:

Manex Hiriart-Urruty-ren artikuluetarik, Piarres Lafittek bildu zuen, loretegi bezala, *Jakin* argitaldaria argitaratu zituen hiru liburuen gaia. Aitor dugu halere zenbait artikulua interesgarri falta direla, hala nola Azkue-ren kontrakoak, 1911koak (13).

Jean Etchepare-n idazkietarik nihaurek bi libururen haina badut argitaraturik eta beste biena bideratua daukat (14).

Hor daude ordea biltzeko, eta argitaratzeko, Abbadie eta Adéma eta Constantin eta Saint-Pierre eta Soubelet eta Arotçarena batzuen idazkiak

(11) *Eskualduna*, 30-IV-1937.

(12) *Euzko-Deia*, Paris, 1936-1940.

(13) J. HIRIART-URRUTY, “P. Lafittek bildu antologia”, *Jakin Historia-2* & 4, Oinati, 1971-1972.

(14) P. CHARRITTON, *J. Etchepare mirikuaren idazlanak, I & II*, Elkar, 1984-1985.

—azken honenak bahituak izan badira ere—. Lan interesgarriak bai literaturaren aldetik bai soziologiaren aldetik, bai teologiaren aldetik, jakiteko bederen zein izan diren gure Herriari eskaini zaion teologiaren hutsuneak eta, ordu bada, hutsune horien betetzeko. Goiz honetan entzunak entzun- eta hutsune zenbaiten betetzeko gogo badela oraino lekutan baitirudi (15).

Hea badenetz langilerik!

(15) Ikus egun berean, Baionako San Andres elizan, Pierre Molères, Baionako apezpi-kuak eman hitzaldia (*Herria*, 1987-IV-9).

KAZETARI EUSKALDUN BATEN KRONIKA

Baiona, 1987-III-29

Martin Ugalde

Kazetaritzarako joera noiz sumatu nuen badakit: Andoaingo Ekintza Katolikoak La Salle-tarren eskola ondoan zuen biblioteca txiki hartan. Han aurkitu bait nuen Salgari-ren korsari saila.

Hau ez nuen nik literatura bezala irakurri, kazetaritza gisa baizik: han agertzen zirenak ez ziren asmatuak, gertatuak baizik. Eta txunditurik utzi ninduen, egileak irakurlea beste mundu batetara eramateko zuen dohain miragarri hark.

Neronek biziko nituzkeen pozik Salgarik bizi izan zituenak!

Erdarazkoak ziren liburuak, noski; neure hamabi urterekin, normala iruditu zitzaidan horretarako erdara behar izatea. Nire aita andoaindarrak, euskaldun hutsa bazen ere eta erdaraz irakurtzea asko kosta, egunkari erdaldunak irakurtzen zituen; euskararen aldekoak, noski, baina erdaraz eginak! Nire ama ernaniarrak, berriz, euskaldun kategoria berekoa izanik ere, bazuen erdarazko folletinak irakurtzeko gustu berezia, orduan atez-ate eta kapituluka zabaltzen zituztenak, denak negarti-mindulinak: *Gorrioes sin nido* eta *Doña Genoveva de Brabante*, esate baterako.

Nire ama malkotan ikusi dut horiek irakurtzen.

Orain berrogeita hamar hirurogei urte bitartekoaz ari naiz, noski; Errepublika garaian; jendea egunkarietan euskaraz zerbait idazten hasi zenean.

Neuk aitona sentitu nuen bertsolari, Andoainen bertan: bere bertso paper batzu irakurri nituen; gero, osaba Joxemanuel-ek feriz-feri abesten eta saltzen zituenen artean, bazen aitonarenik. Bi hitzetan esateko: inprimatutako hitzetan, bertsolariak eta Jaungoikoak zuten euskal hitza: dotrina euskaraz ikasi genuen gauza bakarra izan baitzen, eta gero don Joakin Bermejo eta don Juan Arangurenen eskutik elizkizun eta euskal jai guztiak bizitzen baigenituen; eta, hala, Jaungoikoa eta bertsolaritza, biak ziren sakratuak niretzat, eta *euskarak sakratuak*.

Gainontzeko paper eta liburuen mundua, dena erdara zen.

Bestalde, jerarkia hau, gaur diglosia bezala ezagutzen dugun egoera hau, osorik normala iruditzen zitzaidan, ezinbestekoa.

Telefonorik ez genuen etxean, baina Ernanira senidetartekoren bati hitzegin behar zitzaionean, Itxuaneko Telefonikara joan eta han erdaraz irteten zitzaizkion nire amari hitzak; nire burutik orduan pasia da hau: erdara sartu eta euskara irteteko aparatoa zela, euskarak alantzetatik zuen pasa ezinen bat ere sumatzen nion nik. Irrati aparatutik gutxi zegoen herrian, dozenatxoren bat; eta hemen ere fenomeno bera: nire aitarekin Aste Santuko “Zazpi hitzak” entzutera Elorriaga lagunaren etxera joaten ginenean, erdara hutsean irteten ziren gurutzeko Kristoren hitzak, antsi eta guzti!

Bizi-bizi gorde ditut dartada hauek.

Eta gerra lehertu zen.

Astebetekoa zena, hiru urte iraun eta gainezka erori zitzaigun. Mundu-gerra amaitzeko zegoela aurkitu nintzen Afrikatik bueltan Andoainen amarekin, eta bi urteren ahalegin eta guretzako eskupeko garesti zena direla medio, noizpait aita eta anaiarekin bildu ginen biok Caracasen. Heldu bezain laster konturatu nintzen han neuk ezagutzen nuen gaztele-ra aurkitzearen abantaila. Eta beste alde bat izan nuen han handia: nahi nituenak esateko bidea libre zegoen (eta hemen profesionaltasunaren beharra) tajuz eta interesgarri zen moduan, Salgariren antzeko, esatera saiitzen banintzen.

Askatasuna, edozein hizkuntzetan, ederra dela sumatu nuen!

Eta non, eta han izan nuen euskaraz idazten hasteko egokiera!

Caracas-en bizi zen euskara apurra Eusko-Etxera hurbiltzen zen; pitina zen, baina hemen hitzegiten zen, eta berauek ziren euskararen irakurle potentzial bakarra. Andoaindik eramateko gai izan nintzen euskara apala, estimatu egin zuten. Gazteak bildu eta “Gestetner” kopiagailu zahar baten bidez hasi ginen hileroko bat egiten: *Eusko-Gaztedi*. Neuk egiten nituen editorial elebidunak, eta sortu nuen “Erritar” nire izenordea euskarazko artikuluak izenpetzeko. Zergatik ez nuen hasera hartan nire izenez sinatu? Ez dakit ziur. Nire lantxoan ortografia pobreaken asmoa egongo zen gertuen, seguraski. Nik ezagutzen nuen gramatika apurrarekin jarri ninduten, hala ere, euskal klase batzu ematen. Ezin nuen atzera egin, bertako euskara apurra zegoen jokoan. Honetarako, A-BI, Andoni Arozena laguna, izan nuen maisu eta laguntzaile. Oñati-biak, Jonek, *Argia*-ren lehen alea han egin eta New Yorkera joan zen bigarrena egitera. Andima Ibinagabeitia ez zen oraindik etorri. Eta, hala, aldizkari batean (*Elite* izeneko astekarian) erdaraz idatziaz jateko irabazi

eta Eusko-Etxean euskara landuaz hasi nintzen nire elebitasuna pixka bat orekatzen.

Hara zer indiano egiten hasi nintzen!

Urteak joan zitzaizkidan, hogeita hiru, lan honetan; bitartean, atzerri-ratutako gure munduan ezagutu nuen santurtzear batekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan genituen; noizbehinka *Zeruko Argiarako* lanak, *Eusko-Gaztedi* aldizkarirako eta asteroko Eusko-Irrati-rako idazten nituenez gain, idatzi nituen euskarazko liburuxka batzu ere: bat, galdu genuen gerrak eta gerrondoak eraginda (*Iltzalleak*); bestea, gure haur euskaldunak bul-tzatak ipuinak (*Umeentzako kontuak*) eta bi antzerkitxo (*Ama gaxo dago*, *Gurpegin aspaldi gertatua*), eta *Panpin* liburuxka bat.

Eta hor nator; nire gogoz eta nire familiaren gurutzebiderako, Eus-kalerrira bueltan; sartu nintzen ixilpeko lanetan, 1947az gero Caracas-en bazkide nintzen *Eusko Alderdi Jeltzalea*/PNV-ren alorrean.

Hemengo euskal lanak niretzat izan ziren; ez honetan ona edo jakintsua nintzelako, baizik eta lan hau egiteko kondizio haietan beste inor ez zegoelako.

Bidez, *Zeruko Argia*-n idazten jarri nintzen, eta hemen aurkitu nion euskarari inoiz pentsatu ez nuen bezalako branka-gila zorrotza: bi euskal alderdi bereizten zituen eta kontrajartzen zituen *H* sakratua. Lehengo buruhausteak nahiko ez zituela, euskara kinka larri honetan aurkitu zen. Eta gu bitarteko, noski. Ni, heldu berria eta mundu honetan eskarmentu gabekoa, hasi nintzen gauzak idatziz argitu nahian, batekoei eta beste-koei elkarriketa luze batzu eginaz, baina kaskarreko eta iraina franko jaso ondoren, pentsatzen hasi nintzen *h* berekin zuen erdara hutsean jarraituko ote nuen; hor zegoen aspaldiko gure batasuna egina! Hala ere, nire euskal kontzientziak instituzioaren bidea hartzera eragin ninduen, eta aurrera jarraitu nion, *Zeruko Argia*-ren bitartez, Euskaltzaindiari.

Eta ez dut damurik.

Baina nire kasuan, agerikoa nahiko ez zela, ixilpekoan ere sortu zitzaidan arazoa, eta hau, barrukoa, izan zen zailena.

Eta hemen hiru aldiz Juan Ajuriagerraren laguntza izan nuen:

1. *Alderdi* aldizkaria nire eskuetan jarri zuten; ixilpekoa zenez gero, behar nituen euskal idazleak ilunpean aurkitu; entzungor asko aurkitu nuen nire bidean. Batzu, beldurrez, eta beste batzu, *h*-rik gabeko lanek egin nahi ez zutelako, arrazoi handiz. Neroni aritzen nintzen, editorialez kanpoko beste euskal lanak ere idazten, izenorde ezberdinez. Baina ezin nintzen denetara iritxi; bestalde, ez nuen joko hau onartzen, eta Bilbon izan genuen batzar batean erabaki zen, azkenik: “Zeuk —esan zidan

Ajuriagerrak— artikulua jaso bezala onartu behar dituzu, *h*-gaz badatoz, *h*-gaz agertu”. Eta “Orixe”rekin *Euzkadi* egunkarian Errepublika garaian gertatua kontatu zigun: “Esan nion “Orixe”ri gauza bera; orduan ez zen *h*-rik, baina bai *s* eta *z* arteko istiluak, eta kejak jasotzen ari ginenez, esan nion: zeuk datozen bezala hartu behar dituzu lanak, gu ez gara inor alderdikideen artean batekoak edo bestekoak bereizteko”...

Eta halaxe amaitu ziren orduko istiluak.

Neuk hala uste; baina askok, urteak pasata ere, ez didate nire jokabide hura inoiz parkatu.

2. Bigarren auzia, *Deia*-koa izan zen: Oraingoan ere Juanito Ajuriagerra dela eta izan nintzen deitua, euskararen taldeko buru izateko. *H*-ren arazoa onartuaz, noski. Honez gainera, kosta zitzaidan taldea neuk nahi bezala osatzen, eta “infernuko etsai” asko sartu omen nuen; hala aurpegiratu zidaten. Haietako batzu hor daude oraindik eta ez dut uste barru-borroka handirik sortu dietenik.



3. Eta hirugarren aldiz, *Eusko Kontseilu Orokorra* sortu zen une berean, Boletin Ofizialak elebiduna izan behar zuela erabaki zen bezain laster izan nuen Karlos Santamaria jaunaren deia. Neuk ez nuen lan horretan sartu nahi, beste batean hasia nintzelako, baina erreguz eskatu

zidan, Juan Ajuriagerrak onartuko zuen bakarra neu izango nintzela, eta, bestela, sozialisten botuekin erabaki beharko zela, lotsagarri, auzia. Onartu nuen hortaz arduratzea, beraz, eta Xalbador Garmendia laguna izan zen neuk aukeratua lan hori egiteko.

Honek izan zituen, nerekin batera, arazo batzu beste jokabide baten aurrean; baina hau beste istorio bat da.

Ajuriagerra eta Garaikoetxeari zor dio euskara ofizialak bere itzala.

Orain, egunkari euskaldun bat behar dugu. Lizardik eta Aitzolek egunkari honen beharra aspaldi salatu zuten; orain gutxi Mikel Atxagak errepikatu du eskaera. Dударik gabe, izango du laster euskarak merezi duen egunkaria.

Gai da gaur euskara, Errepublika garaian ez bezala, amets hau egia bizia bihurtzeko.

EUSKAL KAZETARITZA IDATZIA, EHUN URTETAN LORATU EZ DEN LANBIDEA

Baiona, 1987-III-29

Luis A. Aranberri

Jaun-andreok, agur.

Ahalik eta laburren jardutea eskatu zait, eta asmo horretan arituko natzaizue, labur bezain zehatz.

Nire burua euskal kazetaritzat —eta ez bestetzat— dudan aldetik, niretzat benetan ohore pozgarria da gaur, hemen, Baionan, lehen euskal astekariaren mendeurren honetan hitzegin ahal izatea eta, bidenabar, euskal kazetaritza idatziak izan duen maisurik nagusienetakoa guztion gogotara ekartzea: *Eskualduna* kazetaz eta Jean Hiriart Urruti kazetariaz mintzo naiz, noski.

Tristuraz aitortu behar dut, hala ere, ehun urte alferrik joan ez diren arren, euskal kazetaritzak ez duela, oraindik, garai hartako lehen urrats baliotsu haietatik itxaro zitekeenik lortu eta, are gutxiago, segurutik, Hiriart-Urruti zenak etorkizunari begira ames zezakeenik. Izan ere, euskal kazetaritza idatzia baita, oraino, ehun urtetan loratu ez den lanbidea.

* * *

Ehun urteotan euskal kazetaritza idatziak bide luzea egin du, definizio-urraketan lehenik, egituratze-nahian gero, merkatu-bila hurrenik eta, ororen gainetik, lanbide-aldarrikapenetan azkenengo. Eta bildur naiz ez ote den, beti ere, urri eta berantegi ibili.

Edozein lanbide-motak bere burua normalduko badu, bere giza-funtzioa aurkitu ezezik, gizartearengandikako onarpena lortu beharko du. Eta onarpen hori, gaur eta hemen, bizi dugun eta, dirudienez, oraindik ere luzaroan bizi behar izango dugun ekonomi-sistema honetan, dena delako lanbidearen baliagarritasun edota bidegarritasunaren garrantzia, gizarte honetako sektore publikoak nahiz pribatuak sor ditzakeen lanpostuen kopuru eta mailaren arabera da. Egoera erabat normala izango bada, bestalde, lanbide horrek bizi izango dituen lan-harremanak gizartearen ohizko diren formula homologagarriak bereganatu beharko ditu,

onerako nahiz txarrerako. Hala ere, honelako ezer gutxi erdietsi du, oraino, euskal kazetaritza idatziak.

Ehun urte bai zahar den euskal kazetaritza idatziari ia larogeita hamar joan zitzaizkion literatura eta eritzi-alorreko idazlenetatik bere burua bereizten eta itzultzaileen morrontzatik aldentzen.

Jean Hiriart-Urruti 1915ean hil zenean Gregorio Mujika kronikari giputzak adierazi zuen: “Bera izan da egundaino euskarak izan duen kazetari bakarra”. Izan ere, XIX. mendeburuan Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan sortu ziren kultur-mugimenduen aldizkarietan nekez soma daiteke egiazko kazetaritza egin nahia eta, zer esanik ez, inongo profesionaltze-guraririk. Beste honenbeste esan dezakegu XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan kaleratu ziren hogeitaka aldizkarietz eta ildo beretik jarraitu zuten Espainiako gerraren zein munduko bigarrenaren ondotik han-hemenka azaldu ziren beste hogeita hamar mantxeta berriez.

* * *

Bi belaunaldi iraun zuen garai luze horretan, salbuespen bi aipa daitezke, oro har: Sabino Aranaren abertzaletasunak zuzperrarazi zuen kazetaritza-giroa eta 1936an Eusko Jaurilaritzaren eraginez sortu zen *Eguna* egunkaria. Baina, inori inolako meriturik ukatu gabe, jakina, lehenengo gehiago zen eztabaida politiko eta ideologikoa kazetaritza formala baino eta bigarrena, berriz, gerra garaiko fruitu eta lekuko, “gerrako ekonomia” alegia. Batean nahiz bestean, lanbide-zentzua ez da inondik ere kirikatzen.

Euskal aldizkaritzaren aldaketaren lehen errainuak 1970eko hamarkadarekin batera bizkortu ziren eta, lanbide-arloaren ikuspegitik begiratzuz gero, 1977an gertatu zen *Deia* eta *Egin* egunkariaren sorreraz bat. Izan ere, zenbait koiuntura eta lege-arazogatik 1976a “Euskal Kazetaritzaren Urtea” izendatu bazuen ere kazetaritzatik bizi ez zen hainbatek, euskal kazetariaren lanbide profesionala, segurtasun soziala, hilaren azkenengo soldata eta, bataz beste, langile-statusa, ez ziren 1977 urterarte etorri.

Gogotan dut, 1975 urtearen inguruan Udako Euskal Unibertsitatetik deitu nindutela, kazetaritza-mundura egokitzeke euskarak omen zituen hizkuntza, estilo eta molde aldetikako eskasiak zertan ote ziren azal nitzan. Nire ustez, euskal kazetaritzak zituen arazo bakarrak estruktura, merkatu, enpresa eta ekonomia arlokoak besterik ez zirela erantzun nien eta ez zuten nitaz gehiago jakiterik nahi izan. Ez dut inoiz jakin zergatik, gaia ez zelako behar bezainbat interesgarria ala ez zelako hainbatek espero bezain literarioa. Dena den, urte bi geroago etorri ziren nolabaiteko estruktura, enpresa eta ekonomia berriak eta, egia esan, ez ziren problema guztiak konpondu.

Hala ere, euskal kazetaritza idatziaren lanbide-arloan sekula historian egin den aposturik haundiena *Deia* egunkariak egin zuen, orain dela hamar urte, 1977ko ekainean hamaika kazetaritako erredakzioa bere baitan kontratatu zuenean. Hamaika haietatik bost Informazio Zientzietan lizentziatuak ziren. Oso proportzio handia garai haietarako.

Esperientzia hark gainbehera egin zuen urte biren buruan, eta porrot haren arrazoiak beste txostenen baterako gelditzen den gai interesgarria bada ere, ezin uka inoiz egin den egitasmorik aberatsena izan zenik. Aipagarri ere, urte berean *Egin* egunkariak burutu zuen projektua; baina kazetari-lanbideari zegokiokeen aldetik, *Eginen* xedea gehiago zen emana euskararen idatzizko agerpen eta testu-kopurutara, egiazko informazioa bildu eta lantzera baino, gehiago itzulpen-lanetara, egiazko kazetaritza jator eta peto-petora baino.

* * *

Gernikako Estatutua, Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza indarrean jartzearen ondorioz, 1982an sortu zen Euskal Irrati Telebistak sekulako iraultza erakarri zuen euskal komunikabideen mundura. Zentzu honetan, sektore publikoak zein beronek eragindako ekimen pribatuak mila lanpostu inguru sorrerazi ditu azken lau urteotan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoan ezezik, baita Nafarroan eta, neurri txikiagoz, Iparralde honetan ere.



Geroztik, euskal komunikabideen sektorea komunikazio industria bilakatu da eta duela bost urte arlo honetan guztiz defizitarioa zena, zerbitzu, ondasun eta produktu esportatzaile izatera heldu da Euskal Herrian.

Prozedura emankor honetan, euskal kazetaritza idatziak ez du, aldiz, aurrerapen nabarmenik egin. Gaurregun, Euskal Herrian, bideo-operatore, teknikari edota bikoiztaileak, kazetariak baino gehiago dira. Euskal Irrati Telebistan, egun bakar batean, kazetaritza elektronikoan ari direnen kopurua, azken ehun urteotan kazetaritza idatzian aritu diren guztiena baino haundiagoa da.

Dena den, euskal kazetaritza idatziak ere bere urraspidetxoak jorratu ditu azken hilabeteotan, astean behingo *Hemen* eta *Eguna*, eta bizpahiru egunkariren euskarazko barne-gehigarriak lekuko. Hala ere, ezin ahanzi, guzti hauetan bereziki kontratatutako kazetari guztiak ez direla, *Deiak* bakarrik orain dela hamar urte zituenak baino gehiago.

Bestalde, aurreen hasi da lanean, lehen aldikoz historian, euskarazko albiste-agentzia. Hau da, azkenik euskara teletipora ere heldu da, kazetarien eskutik ez bada ere, itzultzaileen lanari esker.

Beraz, oraindik ere, euskal kazetaritza idatzia ehun urtetan erabat loratu ez den lanbidea da. Baina, ez dago, horregatik, etsipen-izkila jo beharrik ehun urtetan loratu ez denak berrehunetan loratzerik izango bait du, seguraski. Euskal Unibertsitateak kostata plazaratutako lehen euskal kazetari-andana berriak horrelakorik ikusteko jaioak izango al dira!

IRRATI - TELEBISTAREN LEKUKOTASUNA

Baiona, 1987-III-29

Jose M.^a Iriondo

Adiskideok, egun on.

Urrestillako semea izaki, “sinberguentzako” zubian gora-behera askotan pasatu izan naiz ni. Eta, hala ere, zuen antzeko entzulego baten aurrean, lotsatu ere egiten naiz. Zergatik gero? Ba... ni eguneroko *kurran-tea*, *praktikatzalea* izan naizelako lehenengo irratian eta gero telebistan, 26 urte honetan ere. Nik ez dizuet *irradi-telebistaren lekukotasunaz* analisi sakon eta zehatzik egingo; aipatu urte hauetako esperientzia kontatuko dizuet, pasatu izan ditudan larrimin eta estualdien berri emango. Gero zuetako norbaitek, nik eman ditzakedan datuak erabiliz, azterketa serio-sago bat egin nahi balu, gaitzerdi. Mereziko luke, agian.

Irrati-telebistaren lekukotasuna azkenengo 26 urte hueetan oso garrantzitsua izan dela uste dut nik. Lan asko egin da; eta irratia ez dago gaurregun orain 26 urte zegoen maila berdinean. Modan jarri da Euskal Herrian bertan ere.

Lantegi honetan gu baino esku hobeak saiatu izan balira, fruituak ere hobeak izan zitezkeen. Baina, ekina egin da, eta egin urre gorria, esaera zaharrak dioen bezala.

Gerra aurretik zerbait eta gerraondoan gero, oso lotsati eta beldurrez-edo aritu zen irratia Euskal Herrian. Eta 60-61. urte inguru hartan eman zitzaion egiazko bultzada. Harrigarri delarik ere, kazetaritza idatziak askoz ere garrantzia gehiago izan zuen Euskal Herrian urte haietan. Ez dago oraintsu ikusi dugun erakusketari begiratu besterik. Prentsa idatziak, ehun urte; eta prentsa hitzeginak, 25-26, ozta-ozta. Eta, hala ere, edonork daki jakin, Euskal Herrian *entzun* gehiago egiten dela *irrakurri* baino. Erraza-goia bait da. Gertakari honen esplikazio bakarra, edo... bi esplikazio: Kazetaritza idatzia praktikatzeko, hemen bertan sortzen ziren periodikuak (egunkari, astekari, hilabetekari...) eta idatzi egiten zen. Alderantziz, *irratia* atzeritarren eskutik zetorren. Madriletik. Eta ez zuten onartzen *euskarazko* kolaboraziorik. Ez zuten emititu nahi euskaraz, ezertxo ere.

Bigarren arrazoia, uhinak lantzeko zeudela artean. Azkenengo 25 urte hueetan teknikak egin duen aurrerakoa, ikusgarria da. Eta nik pentsatzen dut orain 40 urteko aparailuak ez zirela izango hori eta horrenbestez maneiatzeko trasteak. *Atzerrikeria* eta *teknika* ziren, behar bada, Euskal Herrian irratia gehiago ez lantzearen arrazoiak.

Lehenengo irratsaioak, baserritarrentzako edo baserri-giroz egin ziren *euskararen gordeleku baserriak zirela-eta*, seguraski, euskara kaletartzea beharrezkoa zela jakinik ere. Irratian, hala ere, ez zen kazetaritza egin, irratigintza berezi bat baizik: gure erako magazinegintza, zehatz esateko.

60. urtean Segura, Arrate, Tolosa, Arrasateko Eskola Politeknikoan irakasle eta ikasleen artean muntatu zuten irratia bat, eta... Baztanaldean beste bat edo bi sortu zirenean (irratia parrokialak, Arrasatekoa izan ezik) halakoxe abiada baten susmua hartu genuen; eta 61. urtean Loiolako Herri Irratia sortu zen, beste askok hartu zuten bideak urratzeko irrikimin osoz. Haiek egin zuten bidea ezagutzen genuen; eta hobetu zitekeelakoan, lanbide berrietara abiatu ginen. Norberak egindakoa goraipatzea oso dotorea ezpada ere, historia bere horretan kontatu behar dela ustez dasaizuet hau dena. Irratiaren euskalduntze-prozesu honetan, lehenengo urratsak, 61an eman ziren, beraz.

Euskal musika, kirolak, asteburutako jai-albisteak, familia batetan egunoroz gerta daitekeenaren antzeskizun zen *andre-gizonak*, larunbat arratsetako *ipuin antzestuak* etab. martxan hasi ziren.

Entzulegoaren aldetiko giroa, ezin hobe zen, alafede. Baina agintariak beldur ziren, eta hatzamar gogorrez desapiatu gintuzten. Ondo gogoan dut oraindik ere behinbatez GERNIKAKO ARBOLA kanta ezaguna eman genuelako zer nolako iskanbila prestatu ziguten. Pekatu larria izan, nonbait, Iparragirre haundiaren garai bateko askatasun eta maitasun-irrintzia irratiz hori eta horrenbestez ematea. Eta handik laster, Azpeitaldeko karlista talde bat Gipuzkoako Gobernari Zibilarengana joan zen irratian sartu omen ginen "inpernuko txikito" denak handik bota gintza-tela eskatuz. Garai hori ezagutu ez duenari zaila egingo zaio horrelako ximplekeriak sinistea.

1963-64. urteinguruan sortu zen *euskal kanta mugimendu* berriaren giroa, zati on batean behintzat, irratia prestatu zuela esan dezakegu. Gure kantariak, entzulegoa bazegoela-eta, kantatzeko gogoia eta aukera izan zituzten garai hartan. Eta horrela hasi zen mugimendua. Ez zaio zorko irratia bakarrik, baina zati on bat baietz esango nuke nik. Eta euskal musika bezalaxe, bertsolaritza ere sartu zen irratian. 1963. urtean antolatu zen lehenengo aldiz, irratiz, *bertsolari gazteen txapelketa* zortzi gazterekin, elkarren lehian. Zuzenean ezin zen, eta "bucle" sistema erabiliz, segundo batzuk beranduago eman ohi genituen. Ez dakit lege

hori deuseztatua denik ere, baina guri bereak eta asto beltzarenak erakutsi zizkigun garai hartan.

Kirolak ematen hasi ginen berehalaxe. Ez ziren egiteko zailak, eta esan ezin ahalako arrakasta zuten jendartearen. Lehenengoz, 1962. urtean, kargajasotze apustu baten berri eman genuen zuzenean Azpeitiko zezen plazatik (Agerre eta Artola zenaren arteko desapioa zen). Eta oraindik ere nire paper zaharren artean izango dut Donostiako entzule batek Urbiatik egin zidan gutuna. Begiak bete malkoz entzun omen zuen emanaldia. Ez zuen uste berak *euskara gai zenik horrelako emanaldi* baterako.

Ondoren, aizkolariak, estropadak, pilota partiduak, eta... txirrindulariak ere eman genituen, zuzen-zuzenean. Futbola ez. Garai hartako gure gidarien iritziz, hizkuntza unibertsalago batetan eman behar zen futbola; euskaraz ez zen posible.

Lehenengo emanaldi haietan baino satisfazio gehiago jendearen alde-
tik! Ahoa bete hortz entzuten zituen jendeak zuzeneko emanaldiak, euskaraz egiten zirenean. Liluramendu bat gertatu zen, nolarebait.

Publizitatea ere egin genuen, eta euskaraz egin ere. Eta aldameneko hizkuntza ereduetara jo gabe, euskararen ildotatik egiten genuenean, ponpoxo eta dotore ateratzen zitzaigun. Ez da harrigarri gaurregun publizitatea euskeraz entzutea eta ikustea. Eta duintasunez egiten da gainera. Arazo hori, gaindituxea da, beraz. Aldameneko ereduari lotzen hasiz gero, orduan bai, orduan gertatzen dira gertatzekoak. A zer nolako euskaralpenak!

Oraingo anuntziatzaileek baino zaletasun gehiago zuten ordukoek publizitatea euskaraz egin zedin. Eta hau ere salatzekoa da, nire iritziz.

Baina ez genituen gusto guztiak horretarako ere. 1964. urtean, Fraga Iribarne haundiak *euskarazko publizitatea erabat debekatu* zuen. Euskal Herriko beste komunikabideetan ez zuten euskaraz egin nahi. Eta horrela izanez gero, “konpetentzia desleiala zen” gurea. Ez geneukan euskaraz anuntziatzeko baimenik. Nahiko pasadizu xelebrea, ez?

Eta *euskarazko informazioa* noiz? galdetuko duzue. Izan ere, edo-nork pentsa dezake ez geneukala euskaraz informatzeko gogorik, asmorik, grinarik. Beste alor gehienak jorratu arren, ez genuela euskarazko informazioaren kezkarik. Izan ere, eguneroko informazioa baztertzea ez da batere normala.

Historia, zera da, ordea: Informaziorako eskusiba osoa, Radio Nacional de Españak zuen. Horrexegatik, nahitaez, eguerdiko 14.30etan eta gaueko 22etan Radio Nacionalarekin bat egitera beharturik zeuden irrati guztiak, nahi zirenak eta ez zirenak handik entzun genitzan. Konexio-

orduak, begirune osoz zaindu eta errespetatu behar ziren. Behin baino gehiagotan zigorrak izan genituen, gure *zabarkeria* zela-eta. Informaziorik egitekotan ere “temas intemporales” bakarrik aipa genitzakeen. Gainerakoa, berek ematen ziguten, galbahetik ondo pasaturik, enpatxa ez gintezen.

Francoren heriotzearen ondoren, esperantza berriak loratu ziren. Eta irratian zegoen informazio-egarria lehertzen hasi zen, behar adinako abiaduraz ez bazen ere. 1977. urteko HOGITA LAU ORDUAK EUSKARAZ eta geroago 80. hamarkadan hasi eta berehala SEI ORDU EUSKARAZko saioak hasi zirenean, lehenengo intentoak egin ziren eguneroko informazioa emateko. Garai horretan ireki ziren irratiairen ateak, informaziorako.

Baina, arazo asko eta larriak zeuden orduan ere: ez zegoen euskaraz informatzeko ohitura eta trebezia haundirik gure artean. Horretarako prestatuturik eta gaiturik zeuden kazetariak falta ziren, edo... gutxi batzuk besterik ez zegoen. Eta irratiairen antzeko komunikabide batetan *emailaren* arazo larriari *hartzaillearena* lotzen zaio. Bata bezain larria bestea, noski. Gure kazetariak ohiturarik ez informazioa euskaraz emateko, eta... gure entzulegoak gutxiago eguneroko informazioa barra-barra jasotzeko. Harrapa zak hori!

Eta oraindik ere antzematen da ahulezia hori. Egin ez baduzue, egizue frogatxiki bat. Nire aitak, 88 urteko Urrestillako semea izan eta... “zuen euskera ez zegok entenditzerik!” esan izan dit behin eta berriz.

Nola *eman* eta nola *hartu* sindikal arazoak, politikoak, ekonomikoak, nazioarteko politikari dagozkionak, euskaraz? Begiratu batera, arazo sinplea da, bai. Baina herri normalizatu batetan. Hemen, oraindik ere politikoki eta hizkuntzaz ere normaltzeko gauden herri honetan, horrelaxe-koak gara. Zer arraio nahi duzue?

Urte askotako eraso gorriaren ondorioa da guzti hau, eta denpora beharko dugu erren hori konpontzeko.

Komunikabide batetan ez du balio mezua emateak, baldin-eta hartzailleak aise jasotzen ez badu. Komunikazioa, alderdi bien arteko loturan sortzen da.

1982. udazkenez EUSKADI IRRATIA sortu zen; eta eguneroko informazioa, gainerako programazio osoaren antzera, euskaraz ematen hasi zen. Eta 1983. urteko URTE BERRI egunez, edo 82ko URTE ZAHAR gauez EUSKAL TELEBISTA ere hasi zen, abiatu zen, informazioa euskaraz emanez, telefilmek, telenobelak, dokumentalak euskaraz emanez.

Kritikarik ez dugu falta, eta kritika oso ona da, baldin-eta kritikatu nahi dena hobetzeko gogoz egiten denean. Bestetan, hitzegin behar ez lukeen askok hitzegiten duenean, ez du balio.

Gure hizlarien ahulezia kritikatu izan da, hizkeraren erabilera aldre-besa eta traketsa, berezko euskararik eza, etab. Eta ahulezia horiek oso konponerrezak direla esan da inoiz. Baina, ez du balio. Gu, nahitaez, Herri honen ixpilu gara, gure hizlariak eta kazetariak diren bezalaxe.

Irratiak, tradizio apur bat bazegoen-eta, bere bidea egin du, ondo edo gaizki. Telebistari mila oztupo sortu zaio: gure Herrian ez zegoen tradizio telebisiborik: ez emateko eta ez hartzeko. Beraz, 1975. urtetik Telenorten egindako ahalegin sotil haien ondotik, hutsetik hasi behar izan dugu, bai eguneroko informazioa egiten, bai filmeak bikoiztu, tele-nobelak dramatizatu eta dokumentalak euskaratzeko euskara asmatzen ere.

Zertan dago arazorik larriena?

Lehenengo eta behin, lehen ere esan dudana: tradizioz eza, espreski horretarako jenderik prestatu eza, eredu berri bat hutsetik egiten hasi beharra...

Eredu bat behar eta... aldemenekora jo behar izan dugu. Eta horrek sortzen ditu gure makurrik txarrenak. Agentziek erdaraz ematen dute informazioa, informazioa erdaraz sortzen da gure Herrian. Eta eguneroko informazioa biltzen ari den kazetariak, presa eta larri, informazio hori *euskaratu* egin behar izaten du. Euskara bera arrotzago zaio askotan kazetariari, informazioaren edukina baino: hitzak, klipseak, argota, ez da hori eta horrenbestez euskaratzen. Eredua ahaztu behar da, eta *mamia euskaraz* bildu. Beste honenbeste esan dezaket telefilmeak, dokumentalak edo tenenobelak euskaratu eta bikoizteko ere.

Euskara ez da arazoa, *euskaraz hori txukun egiten ez dakienarena* baizik. Guk ez dugu izan gure profesionalak euskaraz normalki hezitzeko aukerarik, unibertsitatean. Gure profesionalak, eguneroko jardunaren jardunez hezi eta trebatu dira, edo... gara.

Esperientzia baten jabe egiteko, eguneroko zereginetan sartu behar izan du buru eta belarri. Eta urteen poderioz, azkenean ere, hezten eta trebatzen gara.

Informazioan ari denari sortzen zaizkion larriminak ez dira batere zailak, begiratu batera:

- Mañana comienza el juicio del siglo (koltza olioaren epaiketa).
- El Gobierno central se enfrenta al sindicato UGT.
- El Athletic fuera de peligro para el play-off de descenso.
- Espectacular parada de Arconada.

Nork esan du esaldi hauek euskaratzea zaila denik? Baina... eguneroko larrian ari denak, aldameneko hizkuntzaren zama du bizkarrean, eta

zapla! euskaratzen ditu hitzak, forma eta zentzua erdaraz gelditzen bazaio ere. Presaka dabilelako, askotan. Edo euskararen baliabideak behar bezala ezagutzen ez dituelako, frangotan.

Lehenago aipatu dudanez, filmeak, telenobelak, dokumentalak etab. bikoiztean ere, arazo berdintsuak daude. Itzulpenetik hasi eta azkenengo dramatizazioraino mila oztopo: pertsonaiari dagokion ahotsa aukeratu, irrian irriz eta malkoan malkoz bikoiztu, gaiak eskatzen duen tratamendua eman... Euskal Herrian ez da izan *bikoizketa eskolarik*. Lehenengo pausoak, 1982ko urtean eman ziren, lehenengo Donostian eta gero Bilbon. Ikastaro laburrak ziren eta irakasle, geu. Kontuak hortik atera.

Gainerako guztia, arian-arian egin du bakoitzak, eguneroko praktikan. Eta ez da batere harrigarria, egoera honetan, inoiz salatu izan diren hankasartzeak egitea. "Ama, gure ahuntza haurdun dago!" itzuli eta bikoiztu zuten noizbait. Eta beste behin, "asteburu honetan Erromatik hurbil elkar ikusiko dugu, apika" azpigitulatu behar eta "este fin de semana nos veremos en Apica, ciudad cercana a Roma" azpigitulatu zuen norbaitek, lasai arraio.

Bikoizketari nagokiolarik, hala ere, orain lau urtekoa eta oraingoak *ez dutela elkarren antzik* azpillerrotu behar dut. Gure jendeak, gero eta hobeki bikoizten du, ofizioa ikasten ari da. Eta hori, oso esperantzagarria da. Fruitu hoberik izan zitekeen, bai; baina hori ere hor dago. Garena gara, eta kitto!



Beste alorrak.

Antzerkia eta dramatikoak ere bidean daude. Oraintsu burutu dira Chejov-en hiru ipuinen grabazio lanak, eta orain postprodukzioa gelditzen zaigu. Baina, gure historian lehenengo aldiz egingo da tamaina honetako grabazio bat. Guztira, hiru ipuin, eta 4 ordu inguru, euskara-gazteleraz.

Egun batez, aurreko Irailez Benidorm-en egin ziren jardunaldi batzu zirela-eta, *Telebistaren arazo larrietako bat gidoigilerik eza zela* esan nuen nik. Eta ez nituen jaso edozein moduzko kritikak. Birau haundiegia zen, nonbait, Herri honetako idazle ikut ezinen kontra.

Inork ez zuen esan, ordea, zein testuingurutan esan nuen nik hura. Besteak beste, Telebistaren arazo multzo haundi bat aipatu nuen; eta *TV3, TVG eta TVE*koek bezalaxe, *guk ere gidoigileen arazoa bagenuela* esan nuen, eta diot orain ere.

Gu baino Telebisio haundiagoek *gidoigile arazoak* dituztela esaten badute, nik ez dut lotsarik *guk ere baditugula* esateko.

Aurreko Ekainez Mûnich-en egin zen CIRCUM bilerako gaietako bat, aztertu beharreko gai bat, hori eta bera izan zen. Europako Telebista guztien larria zela nabarmendu zen han ere. Eta guk ez?

Gidoia idaztea da bata eta gidoi hori pantailara eraman ahal izatea, bestea: teknika, dirua, gidoiaren irudikatzeko ahalmena... Baldintza askotxo daude ingurumari horretan, literatura soilaz gainera.

Egia esateko, azkenaldi honetan, gero eta eskainta gehiago jasotzen da Euskal Telebistan. Eta gure salbamena horixe izango da, zinez. Eginez, ekinez, aspertu gabe arituz, zerbait egingo dugu, lehen ere mila aldiz egin izan dugun bezalaxe.

Euskal Telebistaren produkzioa txikia dela esaten da. Eta, egia da. Guk ez dugu sekulako kartera, salmentak egitera goazenean; baina badi-tugu gure aletxoak, eta orainartekoan duintasunez egiten dira egin daitezkeen eskainta guztiak. Nazioarteko merkatuan sartzen ari gara, emeki-emeki.

Labur esateko, hauxe da *irradi-telebistaren lekukotasunari* buruz esan dezakedana. Eta komunikabideok sortzen ari garen euskara moldeak zaintzea eta *hobetzea, zuoi dagokizue*, Euskaltzaindiari esan nahi bait da.

TORIBIO ETXEBARRIAREN MENDEURRENA

Eibar, 1987-V-29

TORIBIO ETXEBARRIA JAUNAREN MENDEURRENEAN

Eibar, 1987, Maiatzak 29

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jesus M.^a Agirre Arriola, Eibarko alkate jauna

Euskaltzainkideak

Omenaldira etorritako Ordezkarri agurgarriak

Jaun-Andreak:

Euskaltzaindiaren izenean hitz bi esatea dagokit eibartar ospetsu honen omenaldian. Hitz bi Euskararen Akademiak zergatik omenaldi honetan parte hartzen duen adierazteko. Dakizuen bezala, Toribio Etxebarria jaunak, beste lan txikiago batzuk aipatzeke, hiru obra handi edo garrantzitsu ditu euskaraz edo euskarari buruz: 1) *Flexiones verbales de Eibar*, 2) *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, eta 3) *Ibiltarixanak*. Hirurak beste eibartar jator baten ardurari —Juanito San Martinenari— esker argitaratuak. Eta hirurek dute, edo mintzabide edo aztergai, Eibarko euskara.

Gu mutiko edo gazte ginenean, Eibarko euskarak fama txarra zuen. Ez zela behar bezain garbia, eibartarrek erdarakada gehiegi erabili ohi zutela eta abar, esaten zen. Hala ere, orduko eibartarrek euskaraz hitz egiten zuten. Eta orduan ere azalari baino gehiago mamiaiari begiratzeko ziotenek, Eibarko euskara jator eta oparotzat zeukaten.

Dena den, Eibarko euskara nolakoa zen jakiteko, hor dugu orain argibide ederra Toribio Etxebarria jaunaren idazlan hauetan; eta —nola ez aipa— Juan San Martin beraren liburu batzuetan ere bai. Aspaldiko idazleetan, berriz, Fr. Bartolomé de Santa Teresa karmeldarra ere behar-ko litzateke aipatu. Haren bizkaierak, dirudienez, lokarri estuak ditu Eibarko hizketa-moduaz.

Batek baino gehiagok esango du beharbada: Euskararen batasuna bultzatu eta indartu nahian dabilen Euskaltzaindia nola datorkigu orain

Toribio Etxebarria ospatzera, hau da, toki partikular eta jakin bateko euskara landu eta aztertu duen gizon baten gorespena egitera?

Batak ez du bestea kentzen, ordea. Eta nahi dut Toribio Etxebarriari egiten zaion ospakizun honetatik bide hartuz, puntu hau garbi utzi, zeren maiz egoten baitira oker-adituak gauza honi buruz.

Euskaltzaindiak nahi du euskararen batasuna; beste hitzez esanik, nahi du euskara-mota bat guztiona izango dena, moldatu, zeren eginkizun batzuetarako, horren noraezeko beharra ikusten baitu. Baina hori hala izanik ere, horrek ez du kentzen euskalkiak eta tokian tokiko hizketak ere erabil, azter eta lant daitezen. Euskaltzaindiak behin eta berriz errepikatu du hori eta, hain zuzen, horrexegatik behin eta berriz bere burua defenditu behar izan du bi aldeetako erasoetatik. Batzuek aurpegira botatzen zioten euskalkiak zapuztu dituela, euskara batu hori aurrera eramateagatik; eta beste batzuek, berriz, aurpegira botatzen diote euskalkiez arduratzea, bere helburu nagusienetakoa, nagusiena ez bada, guztion euskara hori moldatzea edo horretan saiatzea, delarik.

Jaunak: Euskaltzaindiak uste du bai bata eta bai bestea ere egin behar duela berak, ahal duen neurrian; euskara bakarraren zati eta agerbide diren euskalki eta hizketa bereziak amodioz behar dituela jaso eta gorde. Horregatik, nola ez zuen aintzat hartuko Toribio Etxebarriaren ekarria?

* * *

Ze itxura edo eratako gizona zen Toribio Etxebarria jauna? Nik ez nuen ezagutu, noski. Baina haren liburuetatik eta ezagutu zutenen testigantzatik dakigu hori: "sari bako gauzetan aritzen" diren horietakoa, beraren hitzekin esateko. Ez al dio berak olerki batean urretxindorrak daukan gauzarik harrigarriena ez dela ez bere eztarria eta ez bere soinua, baizik eta hutsari doan kantatzeko duen dohaina? Bai. Halakoxea zen bera ere. Bizi izateko gizonak dituen arrazoen bila zebilen. Nahi zuen gizona salbatu eta bizirik atera, zibilizazio eta gizartearen lakioen mehatxupean ikusten zuen gizona.

Baina hau da kontua: gizona salbatzeko, gizonak gizona bera izan ohi duela traba: bere aldamenean duen gizona, edo, barruko hondoraino joaz, norberak bere baitan duen gizatxar hori.

Nolanahi den, gizona bere jausialditik ateratzeko, badirudi beharrezko dela beragandik kanpoan den zerbait edo norbait bilatzera eta maitatzera jar dadin.

Humanismoaren problema bihurtu da, segur aski, gaurko gizadi honen kezka nagusia. Eta horretan begi ernea izan zuen Toribio Etxebarria jaunak.

Baina tamala da gizonari sarri gertatu ohi zaiona: funtsean berdin pentsaturik ere, Humanismoaren auzi honi, edo elkar hizketa faltaz edo bakoitzak auzia albo batetik bakarrik hartzen duelako, maiz gizonak elkarren aurka jartzen dira, liskarrak eta gerrak sortzen dira. Toribio Etxebarriak ere jasan behar izan zuen esperientzia mingots hori.

Sari bako gauzetan aritzea, hau da, dohaintasuna, debaldetasuna, gaur hain gutietsia ikusten dugun balio honek, garden eta dirdaitsu distiratzten du Toribio Etxebarriaren giza nortasunean. Berak kontatzen digunez, han Venezuelen euskal lanetan hainbeste ordu botatzen zituela ikustean, euskaldun batek haxe esan omen zion: "Orrek biarrok denda baten eingo bazenduz, zenbat bolivar!"

Bai. Materialismoak eta Kontsumismoak gizona azpian harturik duten une honetan, Toribio Etxebarria bezalako gizonak gogoratzea guztiz onuragarri izan dakiguke.

Eta nola ez esan bere obren artean baduela bat Gizasemeari buruz eta beste bat otoitzari buruz?

* * *

Bukatzeko, esan behar dut Euskaltzaindi honek Toribio Etxebarria jauna, euskarazko edo euskarari buruzko bere lanengatik, euskaltzain urgazle edo laguntzaile izendatu zuela 1968.urtean. Eta, honenbestez, Toribio Etxebarriaren aurpegiera eta lanak nik baino hobekiago eta xehekiago azalduko dituzten jaunei hitza ematen diet.

TORIBIO ETXEBARRIA
EUSKALARI ETA EUSKAL IDAZLE

Eibar, 1987-V-29

Juan San Martin

Jaun-andreok:

Toribio Etxebarria jaio baiño urtebete lehenago estreinatu zan Eibartik trenbidia. Egun gogoangarri haretan hemen genduan Felipe Arrese Beitia otxandiar olerkaria, bere barrutiko bihotz-zirrara eutsi ezinik zetorren. Ordukuak doguz Eibarko burdin-bidiaren bertsuak, aurrerapenen etorkizunari begira, era honetan amaitzen diranak:

*Zure lurrun ta keia
Jaku pozgarria,
Lur leorrari legez
Trumoi ta euria,
Geienez oi dalako
Au izan ogia;
Zu bere zara gure
Mesedegarria;
Zuk, zuk biztuko dozu
Gure industria,
Bizi dediñ! bai! bizi
Eibarko erria. (1)*

Esanguratsuak orduango giroa ezagutzeko. Bestalde, aintziñako armagintzaz gainera, pil-pillian egoan grabadugintza, "Objetos de Eibar" zeritzanak mundu zabalean ospea irabazita. Toribio berak erderazko lan batian agertzen deuskunez (2). Munduko Erakusketa haundien denporak ziran. Toribio bera be hortik abiatu zan buru-belarri grabadugintzako ofiziora. Ondo aukeratu be, jatorrizko usarixuegaz jabetzeko. Horregaitik emon eskun hainbeste barri biharrek berez dakarren jakituria zaharretik

(1) Ikus nere artikulua *Eibar* aldizkarian, 1959.eko Maiatzekoa, 6. orr.

(2) *Viaje por el país de los recuerdos*, 98. orr.

ikasia, "Arratetikuak" izenburuz datozen sarrera eta bertsuetan azaltzen dabenez (3). Era berian, erderazko prosan hainbeste aldiz aipatu zeskuna.

Eibartarrok, jatorriz, apartekoak giñan. Beste leku batzuetan umiak Paristik zetozen edo zigueñak ekartzen zituan; baiña, gu ez; gu, Arratetik (4). Hori izan zan errazoia Toribiok bere lehelengo euskal lanak "Arratetiko bat" izenordepean agertzeko eta *Lexicón* (Eibarko hiztegia) hari "Arrate'tikuen izketia" titulu ordeztu.

Euskerarentzat hain ilunak ziran denporan, hemen bertan eibartarrik gehienak euren hizkera abandonatzen ebenean, zerk emon etsan kementa euskerazko bertsuak eskribitzeko? Bihar bada Londresko egotaldian, 1959an egin zituaneetatik atara geinke aztarrana:

*Soñuetan gura neuke aiñdu,
gorengo Zeruan ziar,
kantu eder baten ots gozu',
nere orduak beste bidar. (5)*

Era horretakoak bat baino gehiago dakar *Ibilarixanak* liburuan. Gainera, saririk bako biharretan aspalditik ondo ohitua zeguan gure Toribio:

*Sari bako gauzetan
aritzen danari,
ez interesa aittatu,
alperrik ba ari.*

Aipatzen dogun liburuan emondako batzuk lehenago literatura aldizkarietan agertutakoak dira, batzuetan zerbait aldatu eta hurrengo gehigarri luzaturik. Esate baterako, liburu horretan Arratetikuen saila has-tean datorrena, bertsu barriak Eibar zaharrari (6).

Hasiera partia hartzen badogu, apologisten kondaira ameskoia aurkituko doguz. Euskal Herriaren sorrerak fantasiaz beterik, aintziñako misterio lauso batian. Egiliari hala zeritxon egokiena. Eta, hor azaldu zeskun Urko ta Galdaramiño mendi gaillurren ingurua. Arrate euzki-

(3) *Ibilarixanak*, 46-51. orr.

(4) "Lexicón del euskera dialectal de Eibar", *Euskera*, 1965-66, 7. orr. J. SAN MARTIN, "Arraten sortzen da bizitza", *Iker*-2. Piarres Lafitte-ri omenaldia, 849. orr.

(5) *Ibilarixanak*, 111. orr.

Liburugintzan hasi baino lehen, 1956. urtean, bertsoz ahalegindu zen *Euzko-gogoa* eta *Eibar* aldizkarietan. Geroxeago, *Oleri* aldizkaria sortzeaz bat, 1959an, bertan kolaboratu zuen eta *Egan*-en ere bai 1964tik aurrera.

(6) "Bertso berriak Eibar zarrari", *Eibar*, 1956, Uztaila-Irila zenb., 15. orr. Eta lan bera luzeago ikus *Ibilarixanak* liburuaren 48. orr.

begian, Kiñarra-balleko harbelak, añubietako egurtzak, gure herri historiaren lehen dizdirak. Garibay mondragoarraren *Compendio historial*-eko Tubalcain pertsonajarekin nahastaturik eta apologetikaren murgilletik Ego erreka ibarrian urtetzeko; Egoren ibar horretan sortu zanez Eibar. Biblia-zale harentzat Jordanen pareko.

Bihar bada entzuliok harrituko zara eibartarrok Arraten sortzen gara-la eta gure epopeia Tubalcain-en etorreragaz hasten dala jakiteaz. Baina ezta gutxiagorako; ze, hemen, gure herri honetan, auzoko ez-ezik etxeko dogun Plaentziagaz batian badaukagu zer kontatu, gure historiagilleentzat oindiñok ikasgai diranak. Inguru honek, Ermua be barru dala, Markiña-goia eratzen eban, Erdi-Aruan be batek badaki noiztik, eta XV. mendetik esku-suarmen egileak garaz, Marquart austriarra Karlos Enperadoriak Espainiara ekarri baino lehenagotik (7).

Holako gauzak jakiñik, nork uka lezkigu eibartarrok bestelakotasuna? Horregatik uste eban Toribiok Eibarko hizkera bestek ezlakoa zala.

Aintziñatik ezagutzen ziran hemen zazpi ofizio eta ostianguetan bazan zer aukera biharrari eskuak eskintzeko. Oraingo Markiñaldetik etorri ei zan kaiñoigintzara entzute haundiko Bustindui armagiñen senitxarteko zan Franzisko Etxebarria zeritxon bat Irustarren sutegira. Hor finko ipintzen dira Toribioren sustraiak. Bizitza Unibertsidade egingo eban gizona. Berezkua ekarrela? Burua jakintza guraz hornitzen dabillen gizonarentzat ezta berezkorik.

Gure armagintzan, aintziñatik zetozen ataujia apangarriak, Eibarren inkrustaua zeritxona. Jovellanos-ek emon zituen bere barriak (8). Horrez-gainera zerbait gehiago zan juan zan mendearen amaierara orduko. Armagintzaren adar lez Ofir-ko urrez, Damaskon legez, edergintzari emonak ziran Eibarren, batez be Zuloagaarrak illaran puntarengo darian urtenak ziralako. Hobeto esateko, *Eibarko damaskinadua* liburuaren hitzaurrean

(7) *Ibilitarixanak*, 49. orr. Baina, honako ohar hau gaineratuko diot, irakurleak behar bezala uler dezan: Markina Merindatea, oraingo Markina-Jemein eta Markina-Etxebarria baino zabalagoa zen. Inguru horren hiriburu, Elgoibar zen. Horregatik, 1346. urtean, "Villa" izendatzean, *Villamayor de Marquina* zeritzaion. Merindate behea zen eta bertatik Mendarorainokoa *Marquina de yuso* zen. Merindate horren goikaldea ordea, agiri zaharretan agertzen denez, *Marquina de suso* zen: Eibar, Plaentzia-Soraluze eta berriz, okaziorik dugun guztian, salatuko dugu, eskualde honetan zer izan den eta noiztik suzko armagintza. Honetarako, ikus Ramiro Larrañagaren *Síntesis histórica de la Armeria Vasca*. Donostia, 1981.

(8) G. M. JOVELLANOS-ek aipatzen du bere *Diarios*-en, 1791.eko Abuztuaren 21ean egin zuen bisita kontatzean.

esan nebana barriz gogoratuko dot. Ez da larregi esatea José Martí poetak Estadu Batuak bisitatzen esan ebana kontuan hartzen badogu: “Ez dago John Whittier, kuakeroa, Eibarko langileek bezala, burdina bigunduan eskuz zilar eta urrezko hariak birlantze eta perlorriz, ñabardu eta errekatmatzen dakiena” (9). Giro haretan, Toribio lako espiritu kezkatia bere lehen ofiziotzat hori aukeratzea ezta harritzekua. Ez zan hasiera txarra bizitzan zihar lanak ondo egiten ikasteko.

Baina, Eibarren, ogibideaz gainera, ideak zelako? Hara ba, egia esan, Karlisten bigarren gerrate ondotik “goitarra” edo “betarra” izatiaren gora-behera zan. Hiri-bildua (Villa), kasko zaharra, San Andres parrokiaren ingurua zan, errekatik hegoaldera, hor eta hortik errekan gorakuak ziran “goitarrak”; hortik kanpora, Errebala eta handik beherakuak, “betarrak”. Goitarra edo betarra izatiak ez eukan zer ikusirik zeru-infernuegaz. Kris-tau fedetik begiratuetzeko, aldrebez izango litzake. Ze, goitarrak hirutik bi ez ziran elizara juaten eta betarrak hirutik biterdi bai, gutxienez. Ideetan barriz, ezker eta eskumen arteko diferentzia haundia zan. Eta ezkerren artian euskerarako zaletasun gutxiago agiri zan. Ikusten danez, sortzezko inguruak moldatzen eban gizona, gehienetan beintzat, eta Toribio Txirixokalian jaiua, goitarren biotz-biotzian. Berezko joera baekarren be, leku ederra ezkertiar izateko.

Euskeraz eskribitzeko sortu jakon gogua nolazbaitx justifikatu gura eban, ze bere burua zerbait aldendurik ikusten eban euskal idazlien artian.

Eibartarrok harruak garala diñuenez, egia izango da. Baina eibartarrok geure hizkeriari gutxietsirik bizi izan gara. Gu, Tolosan eta Donostian hizketarik onena, politena eta dotoriena egiten zan ustekoak ginan.

Toribio berak sarri aipatuko desku, bere burua zuritu bihar baleu letz, Eibarko hizkeraz, edozertaz errez egiten ebela berba: “Desde luego, la costumbre de no prescindir del euskera para tratar de todo lo divino y lo humano, tanto en la calle, en el trabajo y en el hogar, como en el Ayuntamiento y otras Corporaciones, amén de las Sociedades obreras que precedieron a los Sindicatos, en una localidad que, si bien llena de tradición, ha realizado como en un microcosmos abierto a todas las influencias del siglo...” (10).

(9) *Eibarko damaskinatua*, R. Larrañaga eta P. Zelaia, J. San Martinen hitzaurrez. Eibar, 1981. (Garai berean erdarazko edizioa ere agertu zen, *El damasquinado de Eibar* izenburuaz).

(10) “Lexicón...”, *Euskera*, 1965-66, 7. orr. (“Flexiones verbales de Eibar” eta “Lexicón del euskera dialectal de Eibar”, biak batean argitaratu berri ditu Euskaltzaindiak Eibarko Udalarentzat, eta dei honetan aipatzen dena 95. orrialdean dator).

Bere burua zuritze horri esker, eibartarrez eskribitzera atrebidu zan, ekintza horrek bedorrek emon zetsan gure herriko hizkera erregletara makurtzia; hola sortu ebazen “Flexiones verbales” aditz laguntzailaren erabillera eta berbak sailkatziaz “Lexicón” burutzea.

Hala jokatu biharrian, beste asko lez euskera bera hobetu nahian aztartzen eta sakontzen hasi balitz, bihar bada hizkuntzaren goresmenak erderaz agertuz amaituko eban. Baina, inork jakitekotan Toribiok ondo ekian fedea obrekin bete bihar zala, bere bizitza guztian hala erakutsi ebanez. Izan be, aspalditik genkian armagiñon herrian: balizko oliak burdinarik ez.

Normalena zan zerbait praktiko burutzea, bestientzat be probetxuzko izan zedin eta hortik ahalegindu zan hainbeste aldiz aipatzen eban “de lo divino y lo humano” ber-berak zekian euskera motan plazaratzera. Bere lumatik irakorri genke *Ibiltarixanak* liburuaren bertso sail batian:

*Euskeraz laburra dala
gaurko askon esakeria.
Laburra, bada laburra
Aman euskal itzaldia,
jan biharrian lastanka
bere sabeleko umia.*

.....
*Laburra, ala izatera,
gure zarren ipointzia,
bata barre eraitzekua
negarrerakua bestia;
ta danak, bai ta ez alaiak,
detsuenak artuko urtia,
amaitzera eldu baño len
dakarren buztan luzia. (11)*

Eta almalzen aberatsa eukan Toribiok bere barruan, kontakizunik falta ez jakona.

Bizitza sakon bezin urduria euki ebanetakua genduan eta zer kontaturik ez jakon falta, bai ideaz eta bai gertakariz. Guztia eskribitzeko, erderaz baeukan hizkuntzazko modelurik, baina ez bere herriko hizkeran. Berak hori gura eta hori bihar. Ekintzarako sostengua bihar, nahi-taezko euskarria: gramatika eta hiztegia. Hortik hasi biharriak aurkitu zan *Flexiones verbales* eta *Lexicón* burutzero. Aurten Eibarko Kontzejuak hain egoki barriz argitaratuak. Horrek izan zituan Toribiok Eibarko euskeraren oinarri eta euskarri. Bai, euskarri. Gaurko euskaltzaliak “sopor-

(11) *Ibiltarixanak*, 156. orr.

tea” edo esango leukie, informatikatik erderaz hartu dabien modura; baina Toribiok, damaskinadu grabatzaile izatetik ekian urre eta zidarren euskarri (=soporte) galtzairu dultzia zala.

Gramatika eta hiztegi biharrok nolabaitz eskertu nahirrik, 1965. urtian, Euskaltzaindiak urgazle izendatu eban. Eta hori da gaur erakunde honen presentzia, 1959an Juan Antonio Mogelegaz egin eban bezela.

Toribio Etxebarriaren idatzizko obrarik gehiena zahartzarokoa da, biharretik erretirua hartu ondorian egina, eta bere bibliografia benebenetan oparua da. *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar* birargitaratzian egin netsan azalpenian emoten neban nahikua argitasunegaz. Baita *La liga de naciones y el problema vasco* izendun liburu-txoarena be (12), eta gaurkuan Jesus Maria Leizaola jaunak beste batena emongo desku, Testamentu Zaharreko Danielen liburua, inoiz argitaratu bakua; guztiz, 102 kuartilla mekanografiatuak, holako tituluz: *Liburtadi Santuko Daniel deritzen dan atala*. Kopia da eta eskuz Leizaola jaunari eskeiña; honek, aurtan bertan Euskaltzaindiko “Azkue Biblioteka”-ra emona. Lehendik Tamar, Ruth, Bethsabe, Tobias eta Job *Ibiltarixanak* liburuan argitaratuak eukazen.

Zer ez dakar Toribiok bere obra ugarian? Biblia zalia zan, eta berak esaten zeskunez, behin eta berriz atalka atalka irakurtzen eban, humanidadearen esperientziak beste inun baino hobeto batzen ziralako beti ikasten ei eban zerbait barri. Guk bere obran somatzen dogu joera hori, bere humanismoaren esperientziak eta ikuspegiak ikusten diralako eta lanok ez dira behin irakorri ta bertanbehera lagatzekuak. Batian liburu on bat zer dan erakusteko bertsuak, bestian Jaungoikuari buruzkoak, hurrengo Kartzelakuan Aita-guria, baina Naturaren alde fisikuagaz ahaztutzeka galasiak eta atomuak eta abar. Bere berezko apaltasunian ez dau haundikeririk egin nahi eta jakintza kontuko kapitulu bat “Sasi filosofuanak” titulauko dau.

Itzulpenak, humanista bati tokatzen jakon mailan, Testamentu Zaharreko zenbait zatiz gainera, aintziñako ipuiñak zituan gogoko eta euren artean Nafarruako Margaritaren *Heptameron* itzuli eban. Eta ez dira gutxiagorako, latinez eta eibartarrez, XII. mendeko arlotearen konfeziñua, *Ordo Vagorum*, Karmina Burana-ren *Obmitamus studia* edo edale jatorrarenak (13).

Hiztegia bera, *Lexicón*, hiztegi bat baiño zerbait gehiago dala esan geinke. Berba bakotxaren erabilera bere kontestuan emoten dau eta

(12) *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, 1986. Aipatzen denaren xehetasunak ikus 8-9. eta 13. orrialdeetan.

(13) *Ibiltarixanak*, 329-332. orr.

kontestua bera da berba illarak haiña balio dabena, hor batzen dituan ez esaldiak, anekdotak, kanta zaharren zatiak, ohiturak, ideak eta abar; historiaz gainera etnografiatzko baliuak.

Gaur hemen euskerazko partiaz dihardut, baina erderazkuagaz be ez gara ahaztu bihar; ze, bai euskeraz eta bai erderaz, bene benetan ugaria bezin aberatsa izan da bere ekarria eta eskintza, ideetan lez eginetan. Aspergarria izan leike irakortzeko ohiturarik ez daukanarentzat, baina ahuleziak uxatzeko interesantia da, bere edukiña, kontenidua, jakingarria danez. Ez da nik diñodana, Piarres Lafitte zanak baino. Hala! Esan badot, esan dot, euskaltzain gogoangarriaren izena, eta Toribio gorestekozan ez zan aukerakuagorik. *Ibiltarixanak* argitaratzian egin etsan komentariuan lan bikaña eritzi jakon (14). Ideen aldetik be, gure idazlien artian apartekua zeritxon, sozialista liberala, Proudhon-en ideetatik Marx-engandik baiño hurrago ebillena, humanista borondatez eta izatez kristau merezi ebana. Hara zer ziñuan sozial estudiuen saio batian: “Mais plus original nous paraît Toribio Etchevarria d’Eibar, qui est mort l’an dernier au Vénézue-



(14) P. LAFITTE, *Egan*, 1967, XXVI, 117-118. orr.

la. Il a exposé en plusieurs ouvrages un socialisme libéral plus proche des idées de Proudhon que de celles de Marx, un socialisme plein d'une spiritualité irénique et charitable qui aurait mérité d'être chrétienne" (15). Lehen frantsesez eta gero euskeraz barriz aipatzeko: "Ezin ahanztzia zaiku Eibar-eko Toribio Etxebarria zena. Asko liburutan sozialismo liberal bat aurkeztu du, Marx-keriarik gabekoa, osoki bakeari emana, girixtino izaitea merezi zukeena" (16).

Honegaz, ezatala asko, Hendaian bizi dan Mariano Aizpitarte eibartarrak esan zestana gogoratuko neuke. Mariano, bizi guztian UGT-kua eta sozialistegaz konpontzen ez zana, gerrate aurreko gauzak kontauaz sozialisten zenbait ekintzagatik gaizki esanka, argitasun bat emon biharrian agertu jatan, esanaz: "Ni, beti ugetista izanarren, sozialistekin inoiz ez nok ondo konpondu". Harritu txamar esan netsan: "Ba, Toribio Etxebarria, bere exiliuan, Europara etortzen zanian zure etxian egiten eban egotaldi bat, bertara agertzen jakozen Eibarko adiskidiak eta nik neuk be hemen bizitatu neban". Marianoren erantzun bakarrak dana esaten eban: "A!; baina Toribio santu bat zuan".

Izan be, bere bizitza zuzentasunez eta zintzotasunez bete eban. Nornahi kezkatzekuak eta pentsaeraitzekuak dira oraintsu *Eibar* errebitsan Lukas Alberdik agertu dituan agiriak (17). Lukasek, hamalau urte eukazenetik jarraitu zituan Toribioren pausuak eta artikulu horretan, dan laburraren barruan, hor datoz Toribioren gizontasuna erakusten dabten testigantzak.

Ez eban laga lorratz lordiñik bera pasau zan lekuetan, baina bai gauza goguangarriak.

Barriz esango dot, munduak hain urri emoten dituan gizonetariko bat zala. Bertsuak eta hizlauzkuak, duan eskindu eskuzen lez jardun eban duan mundu hobe baten alde, gizonen arteko justiziaren alde, ogibide ondrauaren alde, bere buruarentzat ezer opa barik.

Pasarte batian ber-berak diño, "indiano" gogoz ebillen erbesteratu batek liburugintzan ikustiaz, esan ei zetsan: "Orrek biarrok denda baten eingo bazenduz, zenbat bolivar!" (18).

(15) P. LAFITTE, "Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Nouvelle série n.º 119 des 3^{me} et 4^{me} trimestres 1968. Bayonne, 1969.

(16) P. LAFITTE, "Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak", *Gure Herria*, XLIX, 1974.

(17) Rev. *Eibar*, n.º 289, Otsaila, 1987, 11. orr.

(18) *Ibiltarixanak*, 20. orr.

Horixe da gizonaren gogua ez ezagutzia, ez gogua eta ezta naturale-
zak berez egunero erregalatzen deskuna; Toribiok bertso batian hain
egoki esana:

*Beti duan eta berez
munduko gauza ederrenak
duan txorixak kantari,
duan dira lorak ederto
janzten, gorri eta zuri,
Salomon baño be obeto:
duan iturrixak ura
t'Arrate'k ifar-aizia;
ta basuak ezkurra,
ta zugatzak kerizia.
Duan euzkixak argixa,
Irargixak gau-zidarra,
Munduak zer-ikusixa
et'Itxasuak indarra. (19)*

Badogu nun ikasi. Zordun giñan eta gara. Ondo merezia eukan
aurten Eibarrek bere seme gutunen arteko izendatzia, gogoz kontra er-
besteratu zana. Ondo mereziak daukaz omenajiok; baina izan leikian
omenajerik onena, bere lanak irakurtzea.

(19) "Ondakiñak", *Egan*, 1976-79, 39. orr.

**ZARAUZKO HIRIAREN SORRERAREN
750. URTEURRENA**

Zarautz, 1987-VI-19

ZARAUZKO FRANTZISKOTARREN MISIOLARI KOLEGIOA ETA EUSKARA

Zarautz, 1987-VI-19

A. Karmelo Iturria

Zarauzko Frantziskotarren komentua, jakina denez, Juan de Manzidor zenak eraiki erazi zuen 1610.urtean; Flandesetako erreinuetan Felipe III.aren Idazkaria zen bera. 1610.urtean eraikitzen hasi, eta handik zazpi urtetara, 1817.an bukatu zen. Eta orduantxe jarri ziren frantziskotarrak komentu berrian bizitzen.

Handik mende eta erdi aldera, 1746.urtean hain zuzen, garrantzi haundiko zerbait gertatu zen Zarauzko komentuan: Misiolari Kolegio-Seminarioa bihurtu zela, alegia. Eta horrek ia erabat aldatu zuela komentuko bizitza, esan genezake.

Zer ziren Misiolari Kolegio haiek? Badu Domingo Parrondo Aita frantziskotarrak liburu bat idatzia: “Historia de los Colegios-Seminarios de Misiones de la Regular Observancia de N.P.S. Francisco, existentes en esta Península de España”, izenekoa bera. Eta bertan dioenez, komentu hauek ez ziren urrutiko lurraldetara Misiolariak bidaltzeko sortuak, baizik eta bertako herrietan Misioak emateko; guk geuk ezagutu genituen Misio haiek herriz herri emateko, alegia.

Espainia osoan lehenengoa Sahagun herrikoa izan zen, Leonen. Gero beste hamahiru sortu ziren, bai Katalunian, Gaztelan, Galizian eta abar. Zarauzkoa azkenengoa izan zen, hamalaugarrena. Eta hain zuzen ere, lehenengoa izan zen komentutik, Sahagunetik alegia, etorri ziren hemengoa sortzera. Hiru fraile heldu ziren, hirurak euskaldunak: Aita Juan Jose Suarez Palomo, Aita Migel Ezkurdia, biak donostiarrak, eta Aita Manuel de Moraza; hirurak Frantziskotarren Kantabria Probintziakoak. Aurretik baimena eskatua eta lortua zuten Aita Juan de la Torre-rengandik, hau ere Kantabria Probintziakoa eta Espainia osoko fraile frantziskotarren Komisario Nagusia. 1746.urteko Maiatzaren 21an ospatu zen Probintziako Kapitulua Gasteizko San Frantzisko komentuan eta hantxe erabaki zen Zarautzen Misiolari Kolegio berri bat sortzea. Aita Pedro Antonio Añibarro euskal idazle ospetsuak bere “Libro Becerro” eskuizkribu famatuan dioenez, eztabaida gogorrak izan omen ziren Kapi-

tulu hartan zein komentu aukeratu erabakitzeke. Eta azkenean, inork berea utzi nahi ez eta, Mateo de Aranburu Aitak erabaki omen zuen Zarauzkoa uztea, komenturik “behartsuena eta gosetiena” hain zuzen, “el Convento más miserable y famélico” de la Provincia. Halaxe dio. Eta data interesgarri bat gaineratzen du: argizari faltaz, Zarauzko komentuko fraileek Santa Maria Parrokiara joan behar izan ohi omen zuten Meza ematera.

Aita Jose de la Torre Probintzialak —lehen aipatutako Juan de la Torre-ren anaiak— gutun bat idatzi zien Probintziako gainontzeko komentuetako fraileei Zarauzko hau Misiolari Kolegio bihurtu zela esanez, eta hona etorri nahi zutenek beren izena emateko adieraziz. Hemezortzi mezako fraile bildu omen ziren: hamar gipuzkoar, hiru bizkaitar, bi arabar eta hiru “montañés” edo kantabriar. Kantabria Probintzia orduan lau nazioek osatzen bait zuten: Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak eta “Montañak”, hau da, Santander edo Kantabriak.

1746.urteko Irailaren 8an. Ama Birjinaren Jaiokunde egunez, Santa Klarako komentuan bildu omen ziren fraileak eta handik prozesioan etorri Joan Bataiatzaile Santuaren elizara, gorputzean Misiolari ezaugarriak zeramatzatela, bularrean gurutzea eta eskuinean makila bat, gainean gurutze txiki bat zutelarik: elizara helduta, Juan Jose Suarez Palomo Aita Nagusiak sermoia egin omen zuen, Misiolari Kolegio berriak Zarauzko herriari eta ingurukoei egingo zien ona aipatuz.

Baina, zer ikusirik du Zarauzko Misiolari komentu honek euskararekin eta euskal literaturarekin? Hori azaltzera goaz.

Eraiki eta handik urte batetara, erabaki hau hartu zuten Bilboko San Frantzisko komentuan egindako Probintziako Kontseilari bileran, 1747.urteko Urriaren 30.egunean: “Por cuanto está determinado que el Seminario de Zarauz se compusiese de Religiosos con igual de las cuatro naciones según la Ley Municipal, determinaron que se suplique a nuestro Rvmo. Padre Comisario General para que dicha ley se derogue y se explique la cláusula “en cuanto fuera posible” dejando libertad al Seminario para que puedan recibir a cualquiera que tuviese cualidades, sin atenciones a naciones y número, con preferencia de las Bascongadas en caso de superabundancia o falta de pretendientes, concediéndoles asimismo facultad para admitir confesores Bascongados que coadyuven a los Padres en el Confesionario y otros ejercicios”. (Zarauzko komentuko Artxiboa. Liburu saila. 4.liburua, 206 r.folioa). Ikusten denez, bada, euskaldun sermolariak eta aitorleak eskatzen ziren gehienbat.

Eta bazuten non lan egin sermolari edo Misio emaille eta aitorle haiek. Aita Añibarrok berak eta bere ondorengoek, “Libro Becerro” deritzan eskuizkribu famatu horretan, Zarauzko Misiolariak eman zituzten Misioak banan-banan izendatzen dituzte, non edo zein herritan, noiz

edo zein egunetan eta nortzuk emanak izan ziren zehatz-mehatz azalduz: Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Araban eta Montañan ere bai; hemen erdaraz noski, baina beste herri guztietan edo gehienetan euskaraz. Esparru zabala benetan Zarauzko Misiolariak bere esku zutena. Herrien izendatze zerrenda 1814.urtean hasten da eta 1839.ean bukatzen, fraileak komentutik bidaliak izan ziren urtean hain zuzen. Urte hartan bidaliak, aurretik eta geroago ere behin eta berriz bidaliak izan bait ziren. Ez noakizue orain hemen Zarauzko Misiolari Kolegioaren historia osoa egitera, oso luze joko bait luke. Puntu batzuk azpimarratu besterik ez dut egingo.

Jakina da, orduko istilu famatu bat dantzen gorabeherak izan zirela. Sermolari batzuk dantzen aurka azaldu ziren argi eta garbi: hala nola, Aita Palacios bat eta Aita Añibarro bat —biak Zarauzko Misiolari komentukoak—, Aita Mendiburu jesulaguna, Santa Teresaren Aita Bartolome karmeldarra, eta abar. Aita Manuel Larramendi andoaindarra eta jesulaguna, berriz, ez da haien aurka agertzen eta nolabait haien alde jartzen da eta Zarauzko Misiolariak ere aipatzen ditu “Corografía de Guipúzcoa” bere liburu ezagunean (“Corografía de Guipúzcoa”, Manuel de Larramendi, J. Ignazio Telletxea Idigorasen edizioa; Donostia, 1969, 241 or.). Juan Ramon de Iturriza bizkaitar historilariak ere aipatzen ditu Zarauzko Misiolariak “Historia General de Vizcaya” bere liburuan. (“Historia General de Vizcaya”. Juan Ramon de Iturriza y Zabala, en Berriz, año de 1785; Barcelona, 1884, p. 59).

Zarauzko Misiolariak erabiltzen zuten euskarari buruz ere, nahiko argibide badugu, eta ez nolanahikoak. Ezagunak dira Aita Larramendiren hitzak eta ez noakizue errepikatzeraz. Nikolas Ormaetxea, “Orixe”, zenak ere goraipatzen ditu Zarauzko frantziskotarrak, “Euskal Esnalea” aldizkarian, 1927.urtean, argitara eman zuen “Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra” idazlanean. Honela dio: “Zarautzen badugu Komentu bat Euskalerriaren eta euskeraren alde lan poliki egin diguna. Añibarro ta Ubillos ta Zabala daduzkat gogoan”. Hemen ohartxo bat egin beharra dago: Aita Ubillos ez zen Zarauzko Misiolarietakoa izan. Eta azkenik, Juan Antonio Mogel idazle ezagunak behin eta berriz goraipatzen ditu Zarauzko Misiolariak eta bereziki Aita Añibarro eta Aita Palacios “Confesino ona” bere liburuxkan, bai hitzaurrean, bai bukaeran.

Zarauzko Misiolari Kolegioko euskal idazleak

Zarauzko frantziskotar Misiolariak ez ziren herriz herri Misioak ematen bakarrik ibiltzen. Komentuan bertan zeudela, beren gelako bakardade santuan, sermoiak euskaraz idazten ere baziharduten. Eta beste liburuak ere bai. Horrela bildu zen urtetan zehar frantziskotar euskal idazle talde

polita. Eta ez nolanahiko idazleak, ikusiko dugunez. Zaharrenetarik hasita, banan-banan aipatuko ditut.

1. **Aita Pedro Antonio Añibarro** (1748-1830). Hona Aita Villasante Euskaltzainburuak *Historia de la Literatura Vasca* bere liburuan dioena: “El P. Añibarro es el primero y más alto representante de los vascófilos y escritores vascos que produjo el convento franciscano de Zarauz al tiempo que dicho convento revestía la modalidad peculiar de Colegio de Misioneros Apostólicos”. (*Historia de la Literatura Vasca*, Fr. Luis Villasante; 2.^a edición; Editorial Aranzazu, 1979). Bizkaiko Arratiako Areatzan jaioa, hamasei urte zituela egin zen fraile Bilboko San Frantzisko komentua haundi eta famatuan, nonbait. Apaiz ikasketak Bilbon bertan eta Arantzazun egin bide zituen. 1790.urtean, 42 urte zituela, etorri zen Zarauzko komentura, berberak eskaturik. Hementxe bizi izan zen 1830.urtean hil zen arte. Zahartzaro beneragarrian, 82 urte zituela, hil ere. Euskal idazle on eta ugaria izan genuen Aita Añibarro. Bizkaierazko klasikotzat jotzen da Juan Antonio Mogel eta beste batzurekin batera. Asko eta ongi idatzi zuen Aita Añibarrok. Hona bere idazlanen zerrenda, osoa ez bada ere: 1) *Escu liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguñac*, Tolosa, 1802. Hauxe da bere liburuxkarik ezagunena eta famatuena. Azkenengo aldi honetan, liburu hau —eta Añibarroren besteak ere bai— gehien aztertu duena Blanca Urgell andereño gazte eta azkarra dugu. Behin baino gehiagotan argitaratua izan da liburuxka hau. 2) *Cristau dotriña... Nafarroaco euscaran*. Asteteren dotrina ezagunaren itzulpena. Iruñea, data-rik gabe. 3) *Lora-Sorta Espirituala ta Propositu Santuac vicitza barri bat*. Aita Palacios ospetsuak idatzitako bi liburuxken itzulpena eta birmoldaketa da. 4) *Curutze Santearen, Aita Gure eta Ave Marien ganeco Eracusal-di*. Durango, 1879. 5) *Gueroco Guero*, Axularren liburu ezaguna, bizkaierara itzulia. Hiztegi bat eta Gramatika bat ere baditu. Eta eskuizkribu pila bat ere bai, Zarauzko komentuko Artxiboan gordetzen dena. Hiru eskuizkribu dira garrantzizkoenak: 1) *Misionari Euscalduna, Cristiñau-Dotri-na, ta Sermoiac Bizcai-errietan iracasten*. Bi tomo lodi dira, Misioetan emandako predikuez osatuak. 2) *Jesu Christoren lau Evangelioac baterá alcarturic, D. Bernardo Lamy-c dacartzan erara, ta A. Felipe Sciok erderatu cituan leguez*. 3) *Nequea arinduric. Munduco crutze, neque, penac gozatu, laburtu, ta arinduteco gogarte santuac*. 15 “Iracurtza” (berak erabiltzen duen hitza duzue) ditu, 59 orrialdetan bilduak. Eskuizkribuak, denak bere letra txukun, garbi eta dotorez idatziak.

2. **Aita Juan Mateo Zabala** (1777-1840)

Aipatu besterik ez dut egingo, Aita Villasantek geroxeago fraile honi buruz hitzegingo bait digu. Duela ia hamar urte, bere jaiotzaren bigarren

mende-hurrena zela eta, omenaldi berezi bat egin zitzaion Bilbon, 1977.urteko Irailaren 24ean. Bertan Aita Villasantek eta Aita Agustin Biain oñatarrak (orduan Zarauzko komentuan Aita Nagusi zenak, alegia) hitzegin zuten Aita Zabalaren goraltzan. Zarauzko komentuko Artxiboan gordezen dira haren eskuizkribu batzu.

3. Aita Jose Kruz Etxeberria (1773-1853)

Oiartzungo semea, 1801.urtean heldu zen Zarauzko komentura. Bertako Misiolarien eta emandako Misioen zerrendan, herriz herri gehienetakoa ibili ohi zen frailea izan zen. Lau euskal liburu ditu: 1) *Devociozco vicitzaraco sarrera San Francisco Salesec atera, eta Aita Frai Jose Cruz Echeverriac... euscaraz ipini duena*. Tolosa, 1821. 2) *Ongui bizitzeco ta ongui ilteco laguntza*. Tolosa, 1824. 3) *Cristau Doctrina Euscaraz*. Tolosa, 1828. Eta 4) *Jesusen imitacioco edo berari jarraitcen eracusten duen librubu*. Tolosa, 1829. Azkenengo hau Kempis ezagunaren liburuaren lehenengo itzulpena gipuzkerara.

4. Aita Kristobal Linaza (1806-1866)

Bizkaiko Lemoan jaio zen. 1832.urterako apaiza zen. Eta hurrengo urtean, 1833.ean azaltzen da Zarauzko Misiolari Mintegian. Euskal liburuxka ugarien egile da, hala nola, *Aldareko Sakramentuari Bisitak, San Frantziskori, Aita San Joseri, San Antonio Paduakoari, San Rokeri eta bederatziurrenak*; denak Tolosan argitara emanak, batzuk behin eta berriz gainera.

5. Aita Juan Jose Salazar (1807-1882)

Bizkaiko Zollon jaioa, Zarauzko komentuan bizi izan zen eta Aita Linazarekin batera ibili zen herriz herri Misioak ematen. Erbesteratua izan ondoren, Lizartzan azaltzen da apaiz laguntzaile bezala. Komentuak berriro ireki zirenean, Tolosara joan, gero Arantzazura eta bertan hil zen. Liburuxka bat du: *Ama Birjinaren Congregacioco nescachentzat esculiburu*. Tolosa, 1894. "Atoz pekataria" Misio kantu ezagunaren egile ere bera dugu.

6. Aita Juan Domingo Unzueta (...-1870)

Abadinoko semea. Badu zenbait euskal lan, hala nola: *"Doandigoco berbaldia"* (Santuen panegirikoak, alegia), Andres Iturzaeta apaizaren

Urtearen domeca guztiñetaraco berbaldia liburuan argitara emanak. Bi tomo ditu liburu honek eta bi argitarapen izan zituen, bata Tolosan, 1894.ean, eta bigarrena Durangon, 1900.urtean. Aita Unzueta ren sermoiak tomo bakoitzean azaltzen direnen arteko erdiak edo izango dira. Horrezaz gainera, kristau dotrina ere badu: *Cristinaubaren doctriariaren explicacina*, Valladoliden argitaratua.

Zarauzko komentua, euskal idazleen eskuizkribuen altxor eta gordailu

Ezin bukatu idazlan hau, Euskal Literaturan garrantzi berezia izan duen —eta oraindik ere baduen— puntu hau ikuitu gabe. Zarauzko komentua ez da euskal idazleen kabia eta sorleku bakarrik izan. Euskal idazle batzuren lanen edo eskuizkribuen gordeleku ere bada. Eta euskal kondairalari eta bibliografilari bat baino gehiago harritu da hori dela eta. Lehen aipatu ditugu Zarauzko komentuko Artxiboan gordetzen diren Aita Añibarro eta Zabalaren eskuizkribuak. Goazen orain bestea aipatzera, ez bait dira nolana hiko obrak.

1. **Juan Antonio Mogelen “Peru Abarka”.** Bizkaieraz idatzi izan den libururik ederrenetakoa noski, bizkaierazko klasiko bat. Aita Villasantek eta Aita Jose Inazio Lasa historigileak diotenez, Juan Jose Mogel euskal idazleak eman omen zion bere osaba Juan Antonioren eskuizkribu hau lehen aipatu dugun abadinotar Aita Unzueta fraileari, hemengo fraileok argitara emango zuten ustetan. Eta Zarauzko komentutik irten zen hain zuzen *Peru Abarka* liburua, Durangon, 1881.urtean argitaratua izateko.

2. **Joannes D’Etcheberri Sarakoaren eskuizkribuak.** Julio de Urquijo euskalari eta bibliografilari ospetsua izen zen eskuizkribu hauek Zarauzko komentuko Artxiboan aurkitu zituen, berberak luze kontatzen digunez. Bi liburu edo dira tomo bakarrean bilduak. Lehenengo orrialdeak falta direnez, Julio de Urquijoren ustez, lehenengo liburuak *Laburdiri Escuararen Hatsapenac* edo izango zuen titulua. Bigarrenak honela dio: *Escual-Herriari eta Escualdun Guztiei Escuarazco Hatsapenac Latin ikhasteco...* J. D’Etcheberria Saraco Dotor Miricuac, 1712.urtea.

3. **Aita Francisco Antonio Palaciosen eskuizkribua (1727-1804).** Oñatiko semea, Zarauzko komentuan hil zen 77 urte zituela. Aita Manuel Ventura Etcheberriak, haren bizitza erdaraz idatzi zuenak (eskuizkribu hau ere gure komentuko Artxiboan gordetzen da), eta Juan Antonio Mogelek ere bai, esaten digute euskaraz eta erdaraz ematen zituela Misoak Aita Palaciosen; erdaraz gehiago nonbait euskaraz baino. Dena den, Zarauzko komentuan gordetzen den haren eskuizkribua euskaraz idatzita dago, eta liburu lodikote bat da, sermoiez betea, baina letra ulergaitzez egina. 755 orrialde ditu, bi aldetara idatziak.

4. **Aita Jose Antonio Uriarteren eskuizkribuak** (1812-1869). Aita Uriarte oso ezaguna da euskal literaturan. Nahiz eta bera Zarauzko Misiolari Kolegiokoa ez izan, Zarautzen hil zen 1869.urtean. Bi eskuizkribu ditugu Artxiboan: 1) *Mariaren Biotzaren Bederatziurrena*, eta 2) Pio IX.a Aita Santuaren *Ineffabilis Bula*, Bizkaiko euskalkira itzulia.

5. **Eusebio Maria Azkueren eskuizkribuak**. Aita Uriarteren lagun handia izan zen. Bi eskuizkribu gordetzen ditugu: 1) *Euzkaria-Lenengo cantua*, eta 2) *Diez y ocho poesías euskerikas*.

6. Lehen aipatutakoez gainera, oraindik ere sermoi pila bat gelditzen da Zarauzko komentuan, eskuz idatzita. Aintzinako Misiolarien euskal sermoiez osatua dago pila hori. Eta duela gutxi, berorien artean, bi pitxi eder azaldu dira ustekabeen: 1) Aita Manuel Larramendik, 1737.urtean, Azkoitiko Parrokian, Ama Birjiñaren izenaren egunean egingdako sermoia, eta 2) XVII. Mendeko Bulda bat bizkaieraz idatzia. Bi eskuizkribu hauek Joseba Andoni Lakarra irakasle prestu eta argiak aztertu ditu, lehenengoa *Anuario del Seminario "Julio de Urquijo"* urtekarian, eta bestea Koldo Mitxelenari eskainitako omenaldi liburuan. Eta besterik ez. Barka, arren, aspertu egin bazaituztet eta mila esker guztioi.

HAUR LITERATURA ETA TESTUGINTZA: ZARAUZKO IKASTOLAREN INGURUAN SORTU DEN MUGIMENDUA

Zarautzen, 1987, Ekainak 19

Anjel Lertxundi

Jose Luis Lizundia jaunak ihardunaldi honetarako lantxo bat eskatu zidanean eta Karmelo Iturriak joan zen mendean Zarauzko komentuak euskal literaturgintzan jokatu zuen papera aztertu behar zuela jakinaren gaine, paralelismo batetara eraman ninduen irudimenak: XIX. mendean Zarauzko Frantziskotarren komentu inguruan sortzen den euskaltzale mugimendu kulturalaren parekoa sortu dela azken urteotan Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolaren inguruan ere.

Euskaltzalekasunaren haritik gorpuzten bait da garaiotan Zarautzen euskal idazle andana garrantzitsua. Andana hartan kristau aszetika eta katekesiaren zerbitzutan arituko den bezala idazlegoa, jorratu nahi dugun gaitxoan haur literaturaren eta euskal testugintzaren eremutan jorratuko du lana idazle andana berriak.

Garrantzia duen bitxikeria antzeko bat: Belaunaldi hartan Zarauzko komentuak zarautarrak ez ziren idazleak eragin eta egin zituen bezalatsu gertatu da Zarauzko ikastolarekin ere, neurri haundi batean behintzat, arrazoi profesionalengatik hona bildu zen irakasle asko jatorriz zarautarra ez zenez.

1970. urte inguru haietan Ikastola O.H.O.ko maila gorenetera iristen hasia zenean, irakaslegoaren kezkarik larrienetakoa testu eta irakurgai faltarena zen. Isaac Lopez Mendizabalen *Xabiertxo* irakur liburuak edo Iñaki Goikoetxearen *Giza soña* testuak bakarrik ezin zezaketen hamar urte inguruko ikasle haien jakin-egarririk ase. Apunte, testu, ipuin eta olerkiak ikasleen eskutaratzeko multikopia astintzetik aparte, gero ikastola guztietan arrakasta haundia izango zuten "Irakur" izeneko lau irakurgai liburuak argitaratzeari ekin genion Josu Arrizabalaga, Maria Pilar Martiartu eta nik neuk. Urte haietan argitaratu zuen Imanol Urbietak ere *Haur kantarien birlorak* izeneko kanta bilduma. Ikastola guztietan gaur egun ongixe ezagutzen duten Joxan Ormazabalen "Astoa ikusi nuen betaurrekoekin" bertso andanarekin batera, Zarauzko ikastolako zenbait irakaslek

sorturiko olerki eta bertso musikatu zuen Imanol Urbietak, eta langintza haren lekuko dugu aipaturiko liburu edo antologia.

1973. urtean argitaratu zen Zarauzko ikastolako hurrek eskola garaian idatzitako *Haurra ipuin denean* ipuinen bilduma bitxia ere. Hor irakur daiteke bertan, beste lan xumeen artean, gaur sonako bertsolari dugun Andoni Egañaren “Doministiku asko egiten zuen agurea” izeneko ipuina ere.

Hastapen hauek bideratu zuten lehenxeago aipaturiko idazle andana. Urte haietan langintzan hasi zen idazlego honek ez du orain arte haur literaturaren edo testugintzaren eremua baztertu eta, gaur egun ere, sormen lanetan nahiz itzulpengintza ikus ditzakegu gure haurren irakur zaletasunari eta egarriari asegarriak eskaintzen.

Idazle andana

Norbait kanpoan geratuko zaigun arriskua onartuz ere, idazleen zerrenda xume bat bederen eskaini nahi genuke.

Joxan Ormazabal, zegamarra izanik, bost bat urtez aritu zen Zarauzko ikastolan hasierako urte haietan irakaskuntza lanetan. Orduan hasitako bideari jarraituz, sormenezko haur literaturgintzara makurtu da bereziki. Lan aipagarrien artean, “Esaera zaharrak eta txiste berriak” bilduma, “Fernando Amezketarra”ren birmoldaketa pasadizu berriak eta erantsiz; “Margolin”, “Patxibusa”, “Kotti”, berriz, idazle honen sorkuntza liburuak ditugu. Itzulpengintzan aipagarria da Gianni Rodari italiarraren “Jolas egiteko ipuinak” liburuaren euskaratze lan bikaina.

Uberako Juan Martin Elexpuru dugu, berriz, “Fernando Plentxiarra”ren birmoldatzailea, irakasle hau ere bost bat urtez hemengo ikastolan aritua.

Garai beretsuan etorri zen Zarautza Daniel Urbistondo matxinbentarra eta itzulpen lanetara emana da azken boladan, bere itzulpenik aipagarriena Peter Härtling alemaniarren “Amona” izeneko nobela delarik.

Axun Landa donostiarra da, berriz, andana honetako euskaldun berri bakarra. Zarauzko ikastolara etorri zenean euskara gutxi jakin arren, oso denbora gutxiren buruan (lau bat hilebetez) euskaldundu zen. Idazle honek sentiberatasun haundi batez hornituriko “Amets uhinak” ipuin bilduma eta “Txan fantasma” nobelatxo eskaini izan dizkigu. Azken liburu hau Zarauzko Udaletxe honek haur literatura bultzatu asmoz urtero antolatzen duen “Lizardi Saria”ren irabazle suertatu zen 1982. urtean.

Neure “Tristeak kontsolatzeko makina” edo “Gizon kabalen piurak” ipuin bildumak edo “Maria Goikoarenak” saila aipatu beharrean aurki-

tzen banaiz ere, idazle andana honetan Jesus Mari Olaizola “Txiliku” dugu zarauztar peto bakarra, hamabi bat urtez Zarauzko ikastolan irakasle bezala aritua. Itzultzaile bezala, alemaniar pikareskaren lekuko bitxi dugun *Till Eulenspiegel* liburuaeren itzultzaile aparta dugu eta sorkuntza lanetan, berriz, *Zozoa eta biok*, *Kaltxaberde*, *Tturku eta Gotzon* edo *Papartxuri eta Biboteluxe* liburuen egile estimagarri.

Testugintzara lotuz, lehen aipaturiko “Irakur” liburuetatik landa Zarauzko ikastolako irakasle zenbaitek Euskal Irakasleen Elkartearen babespean zer ikusi zuzena izan du “Zipristin” irakurgaien, “Hizkuntza” deituriko euskararen programakuntzaren edo “Kuxkux” izeneko giza eta zientzia alorreko testuen moldaketan.

Zenbait ezaugarri

Aipaturiko idazle hauetariko gehienak gaur egun ikastolan ari ez badira ere, hemen burututako hastapen haien segidako langintzan ari dira eta, nahiz eta idazle bakoitzak bere estilo eta idazkera propioa duen, araka daiteke haiengan zenbait amankomunezko ezaugarri.

Guk geuk hiru aipatuko genituzke bereziki: haurraren munduaren ezagutza, fantasiaren erabilkera eta herri euskararenganako joera.

Lirikotasunaren bidetik batzuk, umorearenetik beste zenbait, bata nahiz bestea haurraren mundura inguratzeko eta mundu horretan klabe berezi horiez murgiltzeko modu apartak zaizkie. Axun Landaren kasuan emakumezko ikuspegi berezia lirikotasunez hornitzen delarik, kuadrila eta talde giroa umore ttantta batez eskainiz Joxan Ormazabal edo Txilikuren kasutan.

Fantasiaren erabilkera ere harma bikaina da idazle guzti hauen kasuan. Betaurrekoak jazten zituen Joxan Ormazabalen asto harengandik honantz, fantasia asko gorpuztu da idazle hauen ganbaretan eta gero liburutaratu. Gianni Rodariren fantasiatzko gramatikaren bidetik kasu gehienetan, haren proposamen estetikoak bere eginez, nahiz Txilikuren kasuan errealismoak ere balukeen eraginik.

Hirugarren ezaugarria, berriz, herri euskararenganako fideltasuna genuke. Euskara estandarra zaila suertatzen zaio haur euskaldun peto bati eta idazle guzti hauek hortaz jabetuz, baina inoiz ere uko egin gabe batasunari, begiramen aparta eskaini diote herri hizkerari. Adibide gisa, Txilikuk burututako *Till Eulenspiegel*-en itzulpena aipatuko nuke. Jakina denez, testua anonimoa da eta alemaniar pikareskaren aitzindari. Herri hizkera eta gertakizunetik gertu dagoen testua izanik originala, zentzu bera eskaini nahi izan dio Txilikuk ere itzulpenari, modismo, esamolde eta jergen erabilkera joria eskainiz.

Amaitzeko

Honaino labur bildu ditugun datuak. Erakundeen alderdi kaxkarrenen maixeatzeari emanak bagara ere, heldu eta gorpuztu den Zarauzko Ikastola bezalako gure erakunde honen alderdi aipagarri bat plazaratu nahi genuen.

Erakunde batek fruituak ematen dituen heinean frogatzen du bere erantzunkizun nahiz premia soziala. Horregatik, orain artekoaz gain aipatu behar genuke Zarauzko ikastolatik irten ziren lehen hiru ikasle promozioetatik (130 bat ikasle inguru) 40tatik gora hautatu dutela lan gisa irakasletza eta hemengo ikastolan ikasle izandako horiek Euskal Herriko ikastoletan zehar daudela zabaldurik gaur, 1970. urte inguruko exkaxia haien lekuko, oraingo premien erantzule. Lizarratik Trapagara, Baionatik Gasteiza ikastetxe ugaritan lan egiten ari diren zarauztar gazte guzti horiek dira Ikastola erakundeak gizarte honi eskainitako fruitu helduenaren lekuko.

Mila esker.

EUSKAL LIBURU ZAHAR BATEN AURKIKETA DELA ETA (1)

(Zarauzko udaletxean, 1987, Ekainak 19)

Fr. Luis Villasante

Zarauzko alkate jauna

Euskaltzainkideak

Jaun-Andreak:

Orain 10 urte Euskaltzaindiak omenaldi bat egin zion Bilbon Aita Juan Mateo Zavalari, beronen jaiotzako 200. urtea gogoratuz. Han orduan irakurri ziren lanik gehienak argitaratuak daude Euskaltzaindiaren aldizkarian, **Euskera**-n, alegia. Ez ditugu, bada, autore honi buruz, bai hor eta bai Euskal Literaturaren Historian, esanak dauden gauzak errepikatuko. Zarauzko Mixiolarien Kolegioko mixiolaririk jakintsuenetako bat izan zen, zalantza gabe, Aita Zavala bilbotarra.

Eta komentu honetako azken Guardian. Bera hil zen urtean bertan itxi zen komentua, eta fraideak, esklaustrazioko legearen ondorioz, sakabanatu egin ziren. Sakabanatze horrekin gauza asko galdu zirela esan beharrik ez dago. Batzuk betiko galdu. Beste batzuk, urte askoren buruan, gutxien uste zen lekuetan, azaldu dira. Aita Añibaroren euskal Gramatika, argitaragabe zegoena, Loiolako Jesuitetan gorde zen, eta horri esker argitaratu ahal izan da. Añibarro beraren euskal hiztegia, hori bai, hemen Zarautzen bertan zegoen eta gaur argitaraturik dago. Axular-en *Gero*, Añibarrok bizkaierara itzulia, Hondarribiko Kaputxinoetan gorde da eta, osorik behintzat, ez da sekulan argitaratu. Añibaroren mixioetako sermoiak ere gorde dira, baina zatitxo bat bakarrik argitaratu zen.

Nik ere gaur hitzalditxo honetan oraintsu gertatu den aurkiketa baten berri eman nahi dut: Juan Mateo Zavala Aitaren sermoi-liburu ezezagun bat aurkitu dela, alegia.

(1) *Bibliogr.* "Juan Mateo Zabalaren omenaldia", **Euskera** (1977), 363-425.—VILLASANTE (L.), "El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz (1746-1840)", *Scriptorium Victorien-se* XXI (1974), 281-330.—VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, núms. 266-271.

Lehendik ezagutzen zen Irungo Pasionisten eskuetan zegoen Aita Zavalaren sermoe-liburu bat. Esan zidatenez, Lemoako apaiz batek erregalatu zion Pasionista gazte bati bere mezaberri egunean (2). Hortik antz emango diozue nola ibili diren dantzan eta esku batetik bestera euskarazko sermoe-liburuak. Horrek esan nahi du, halaber, estimatuak zirela, erabiliak eta baliatuak. Mezaberri eguneko opari bezala Pasionista gazte hari erregalatu zionak, nahiz eta liburuaren egilea nor zen jakin ez, bazekien halere baliozko zerbait ematen ziola.

Orain, berriz, Aita Zavalaren beste sermoe-liburu bat agertu da.

Nun eta Bermeoko Frantziskotarren komentuan. Aurkitu duenak ez du inolaz ere nahi bere izena sala dezadan, eta borondate hori, nahiz eta neure gogoz kontra, errespetatzera beharturik nago.

Arestian esan dudana bezala, euskarazko sermoe-liburu hauek, eskuz idatziak egonarren, onak baldin baziren behintzat, estimatuak izan ohi ziren eta eskutik eskura pasatzen ziren. Fraide zahar batek bere mendean erabili ondoren, gazteago zen bati utziko zion, baliagarri izan zekion. Fraide bat hiltzen zenean, besteak —gehienetan Aita Guardiana bera izango zen— hark utzitako gauzez jabetzen ziren eta hala gizaldi batetik bestera eskuz-esku pasatzen ziren sermoi-liburuok. Kontuan eduki behar da orduan ohiturak eta ideiak ez zirela hainbeste aldatzen, eta urteak igaroarren sermoiok beren balioa atxikitzen zutela.

Baita moralistek ere planteatzen zuten auzi hau: ea zilegiak ote ziren sermoe-liburuak jabetze edo erdi lapurretara hauek, baina nola diru konturik ez baitzebilen tartean, eta, beste aldetik, guzti hori Jainko-hitza zabalkundeagatik zen, aski lasaiak izaten ziren honetan.

Liburu honek urtea lehen orrian garbi ezarria dakar: 1816. Hil, berriz, Juan Mateo Zavala 1840an hil zen. Ia ehun eta berrogetamar urte honetan nork daki zeinen eta zenbaten eskutan ibili den liburua!

Gure Probintziko bibliotekari nagusi den Aita Kandido Zubizarreta badabil honelako idazkiak biltzen eta sailkatzen. Bermeotik, hain zuzen, 5 moltzo handi ekarri ditu Arantzazura euskarazko sermoiekin osatuak. Sermoe solteak dira, inoiz egilea edo urtea dakartenak.

Baina Bermeon aurkitu direnen artean uste dut hau bakarrik dela liburu bezala arretaz josia zegoena.

(2) Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. edizioa 245. orrialdean, 89 oharrean. Aita Basilio Pasionistak, 1971. urtean, Lemoako liburu hori egun batzuetarako utzi zidan. Nor zen egilea jakin nahi zuen. Kaligrafiatik garbi frogatzen zela nor zen egilea, hots, Aita Zavala, esan nion.

Bizkaieraz daude liburu honetako sermoiak, Juan Mateo Zavalaren guztiak bezala. Horregatik, beharbada, hobeki ulertzen da Bermeon aurkitu izana. Gipuzkoan erabiltzeko liburua ez zen hain egokia, Bizkaian, berriz, bai. Orduan normala eta ongi ikusia zen sermoia, nahiz eta beste batena izan, buruz ikasi eta zegoen bezala botatzea. Guzti honengatik diot aproposagoa zela liburu hau Bizkairako, Gipuzkoarako baino.

Eta aipa dezadan, bidenabar, liburu honek daukan bitxikeria bat: autorearen izena, lehen orrian zetorrena, ezabatua baitu, borratua. Beronen erabiltzaileren batek egingo zuen hori. Baina liburuaren aurkitzaileak ahalegin guztiak egin ditu lupa bidez etab. azpian jarria zegoena irakurtzeko, eta bai lortu ere. Horra zer dagoen azpian idatzia: *Fr. Juan Mateo de Zavala*. Gainera, liburuan agertzen den kaligrafia ederra Zarautzen dauden idazle horren beste autografo batzuekin gonbaratuz, ez da zalantza izpirik gelditzen. Juan Mateo de Zavala da, bada, liburu honen egilea.

Aurkitzaileak esan didanez, armairu baten gainean botata aurkitu zuen liburua, hautsez eta armiarma-sarez estalia. Horrek esan nahi du bazirela urte batzuk inork ez zuela jadanik liburua erabiltzen. Jakina, nahiz eta nekez, poliki-poliki ohiturak eta mentalidadea ere aldatuz joan ohi da, hizkuntza bera ere bai zerbait, eta liburu honen baliagarritasuna galdu edo, egingo zen neurri batean. Eta hala egon da baztertua seguraski zenbait urtez bere zerbitzua urte mordo luzetan egin ondoren.

Hona hemen liburuaren ezaugarriak, neurriak etab. Titulua: *Eusque-rasco Doctrina ta Sermoiac*. Orrialdeak: 226 (baina orrien zenbaketak ez dirudi guztiz zuzena). Neurriak: 200 × 150 mm. Edukinari buruz bi parte bereizi behar dira: Lehen parteak *Doctrina* du titulua, eta 120. orrialderaino heltzen da. Bigarrenean *Sermoiac* dira propioki. Beraz, lehen parte-koek ikasbide edo erakusaldi tankera dute. Jainkoaren legeko aginduei buruz, Aitortzako sakramentuari buruz, etab. Bigarren partean arratsaldeko sermoiak (segur aski mixioetan ordu horretan egingo ziren). Berauen gaiak: azkenkiei buruz, pekatu mortalaz, graziaz, arimaren estimazioaz, Jesusen Pasioaz, Purgatorioko arimek buruz, bizimoldea aukeratzeaz, ezkonduen eta ezkontzeko asmotan daudenen obligazioez, etab.

Nik ez dakit idatzi honen originaltasuna, mamiari dagokionez, zenbaterainokoa izango den. Baharbada ez handia. Juan Mateo Zavalak, beste askok bezala, gaiak orduan kurritzen zuten erdal liburuetarik hartuko zituen. Baina hori bai, berak arretaz eta txukun eratu zuen dena euskaraz euskaldun entzulegoaren izaera eta beharrak kontutan hartuz.

* * *

Begien aurrean dugu, bada, sermoe-liburu berri bat, aski zaharra, eta beronen egilea ez da nornahi: Fr. Juan Mateo de Zavala, euskal literaturaren aski ezagun dena.

Gizaki aldetik nolakoa zen Juan Mateo de Zavala? Estudio-gizona, euskarari buruz azterketa handiak egina, zentzuduna, kasik hotza, dotore-ria eta haize kontutan ibiliko ez zaizuna, artez eta zuzen beti mamira doana, gardena.

Bera bizi zen denboran ez zuen deusik argitaratu eta besteek argitara zezaten erraztasunak eman, hori bai. Aita Añibarroren *Escu liburu*a-ren hirugarren argitalpena, esate baterako, bera Guardian zelarik egin zen. Gizon umila. Hala ere, beroni kontsultak egiten zizkion Fl. Lécluse, Frantziako gizon jakintsuak.

Juan Mateo hil ondoren, agertu ziren beronen *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, "Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi" eta zenbait alegi edo fabula. Azkeneko hauek, gaisorik zegoen aldarte batean, denbora pasa edo, egin zituela aitortzen du berberak. Hain zentzuduna eta hotza izanarren, badirudi Astarloa apologistarekin zaletuxea zebilela. Ez da ahortzi behar honek bazuela anaia bat fraide eta euskarazko sermoi liburu argitaratuen egile dena, gainera Probintzial ere izana, etab. Larramendi eta Astarloaren obrei esker, maitemindu zen, bada, Zavala euskarakin. Umetatik zekien euskaraz, hori bai, baina apaiz-lanetan hasi zenean oso atzendua omen zebilen eta hizkuntza berreskuratu behar izan zuen. 1815. urtean etorri zen Zarautzera eta, hain zuzen, hurrengo urtean, 1816an, egiten du sermoe-liburu hau.

Orain aurkiberria den Juan Mateo Zavalaren sermoe-liburua eta lehendik ezagutzen zena —Lemoako apaizak Pasionista gazte bati bere mezaberri egunean erregalatu zion harako hura desberdinak ote diren ala ez, jakin behar da. Juanjo Zearretak badu haren fotokopia bat eta utzi egin dit egun batzuetarako. Lemoakoa deituko dugu bata eta Bermeokoa bestea, nahas ez gaitezen. Lemoakoan Dotrineac dira guztiak, eta —ohar-garri dena— Lemoako honetan "c" gabe idazten du Dotrina herri-fonetikari jarraituz —nahiz eta ez beti—; Bermeokoan, aldiz, "c"kin idazten du: *Doctrina*. Badirudi berriagoa edo geroagokoa dela Lemoakoa. Hitzaldi askoren bukaeran urtea dakar: 1822, 1825, 1833. Misio sailduko predikuak dira, eta besteak bezala, bizkaieraz daude. Hamabost egun irauten zuten misioek, eta dotrinazko sermoiak, hau da, katekesi eratakoak, dituzue denak Lemoako honetan. Baina bietan gai antzekoak erabiliarren, bi liburuok ez dute zer-ikusirik bata bestekin. Autore berarenak direla eta gauza askotan egongo dela ahaidetasun bat bien artean, hori bai. Nik esango nuke Lemoakoa hobea dela. Geroagokoa ere bada, eta Zavala denboraren joanaz bere esperientzia eta euskararen ezagutza aberastuaz joango zen. Baina aitortu behar dut gonbaraketa sakon bat egiteko ez dudala astirik izan.

Politika aldetik nahasmendu handiak ezagutu zituen Juan Mateo Zavalak bere bizi-denboran. Frantziako Iraultza handia, Konbentzioko

gera, Independentziako gerra, Cadizko Konstituzioaren inguruko istiluak, matxinadak, Karlisten gerratea, Desamortizazioko legea, etab. Gora-go esan dudan bezala, esklaustrazio aurreko azken Guardiania izan zen bera Zarauzko Frantziskotarren komentuan.

Bere etxekoei egindako eskutitzetan —erdaraz daude— gertaera ilun hauek kontatzen ditu: “Yo he sido conducido dos veces a Guetaria entre bayonetas, y tenido allí en clase de preso con centinela de vista, por estar este pueblo (Zarauz) insolvente en sus contribuciones; otras dos, por medio de oficio, y tratado con menos rigor por otros motivos”. “Dos veces ha sido saqueado nuestro convento en irrupciones que hicieron los cristinos desde dicho Guetaria”.

* * *

Egin dezagun, azkenik, guri dagokigun galdera: hizkuntzaren aldetik, hau da, euskararen aldetik, zer moduzko balioa izan dezakete Juan Mateo Zavalaren euskal idazkiok?

Hitz gutxitan azalduko dut neure eritzia.

Hemen gabilta euskaldunok euskara bizirik atera nahirik, salbatu nahirik. Horretarako, eta besteak beste, euskarak behar du literatura bat sortu; euskarak behar du, alegia, gaurko kultura adierazteko gai edo trebe izan. Eta horretan ari gara. Baina badirudi behar den bidea aurkitzean ez dugula asmatzen eta hor gabiltzala ertz batetik bestera, behar den oreka edo kokagunea bila ezinik.

Gure mendean bertan —gorago jo gabe—, zenbat gorabehera eta mutur batetik bestera aldatzeak ez ditugu ezagutu! Mende honen lehen zatian garbizaletasunaren joera nagusitu zen. Neurri batean joera ona da. Hizkuntza batek behar du bere nortasuna eta identitatea atxiki. Baina muga guztiak gainditu ziren. Hizkuntzak diren bezalakoak dira eta hizkuntza batek mendeetan barna etxekotuak dituen erdaratiko hitz eta esapideak ezin bota ditzake kanpora hizkuntzari berari kalte egin gabe, eta kalte handia. Horregatik Euskaltzaindiak 1959. urtean Agiri bat atera zuen zer den euskal hitza erabakiz edo argituz. Euskarari aspaldidanik sustraitaua den hitza euskal hitza da, nondiknahi datorrelarik, eta ez da kanpora bota behar. Agiri hau beharrezkoa zen euskaltzale eta euskal idazleen artean puntu honi buruz zeuden oker-adituak argitzeko.

Baina gero zer pasatu da? Urek nunbait beste muturrera jo dute. Joan den urteko Urrian Euskaltzaindiak Lekunberrin Lexiko Berrikuntzaz gogoeta batzuk egin zituen. Zabarkeria nagusitzen ari dela: hori da, ia aho batez, han entzun zen erosta. Erdararen menpetasunean dela

gaurko euskal literatura, zabarkeria hutsez gaurko idazle askok hitzak eta esapideak beti gaztelaniatik hartu ohi dituztela, baremo bat jarri behar dela, etab.

Bai. Erdarak duen eragina ez dago ukatzerik, eta guk nahi ez nahi, hori hor dago. Baina gutxienez egin ditzagun ahaleginak hizkuntzaren nortasuna ere zaintzeko. Oreka bat behar da gorde, bi ertzetatik berdin urrun egoten dakiena.

Eta honetan, hain zuzen, uste dut Juan Mateo Zavala gidari guztiz ona dela. Ez du mende honen hasierako puristen gehiegikeriarik, baina ezta gure egunetako zabarkeriarik ere. Beti erabili ohi du euskal hizkuntza bat arretaz hautatua, herriak erabili ohi duen hoberenean sendo oinarritua. Eta badirudi hau dela bidea.

Euskaltzaindiak ongi daki euskara gaur bihurgune handi baten aurrean aurkitzen dela. Egundaino izan ez dituen bezalako aukerak aurkezten zaizkio gaur euskarari. Baina horrexegatik, hain zuzen, sekula izan ez dituen bezalako lanak eta eginbeharrak ditu, eta eginbehar horiei aurpegi eman behar die.

Euskarak ofizialtasun-maila lortu du —sekula santan lehen izan ez duena—, Administrazioan, Eskolan eta Irakaskuntzan sarrera egin du —lehen inoiz egin ez zuena—, euskalduna bera, lehen gehienbat nekazari-giroan bizi zena, orain hiritartu egin zaigu. Guzti horrek esan nahi du euskara sekula gaur arte adierazi behar izan ez dituen gauzak adierazi beharrean gertatzen dela eta hitz berrien beharrean ere badela. Gaur gizartean zabaldu den kultura orokor hori adierazteko euskarak gaitu beharra duela, alegia.

Nola guzti hori egin, alde batetik euskararen nortasuna eta identitatea zainduz, eta, bestetik, gaurko kultura adierazteko behar diren hitzak bilatuz edo moldatuz? Hor da auzi honen gorabehera guztia.

Euskaltzaindiak uste du, printzipioz behintzat, euskarari ez zaiola aterik bat ere itxi behar. Gainera, lan hau guztiona da eta ez Euskaltzaindiarena bakarrik, nahiz eta bera izan gainbegiratzailerik.

Hain zuzen, egun hauetan eta hemen Zarautzen, biltzen da Lexikologi Erizpideak Finkatzeko Euskaltzaindiak duen taldea. Une honetan hitz elkarketa edo konposaketa aztertzen ari da talde hau, bide horrek hitzen premia erremediatzeko izan dezakeen baliagarritasuna aztertzen.

Gaur eguneko beste eginbehar handi bat hara zein den: lehengo mendeetatik heldu zaigun ondarea biltzea, jasotzea, argitaratzea. Iturriak dira horiek, hizkuntzaren iturriak. Alde honetatik balio paregabea izan dezakete guretzat. Orain biltzen eta argitaratzen badira, bihar-etzi etorri-

ko dira aztertzaileak, horietarik behar den zukua aterako dutenak, erleek loreetatik egin ohi duten bezala. Eta horietako iturri jator bat dugu Aita Juan Mateo Zavala bilbotarra, hemen Zarautzen bizi eta hil zena.

ERASKINA

BERMEOKO SERMOE-LIBURUTIK HARTUTAKO PUSKAK

1.

Baricu-guren arratsalderaco yazkeraco Sermoia

Yangoicoac eguin dituzan gauza guztiac dirauscue ce neurri-baacoa dan bere guganaco caridadea ta ondo-gurea, bada guretzat eguin evazan gauza guztiac. Eguin bacituan Aingueruac, g.^e gordetzalletzat eguin cituan. Ceruac g.^e bici-lecutzat. Luurra bear guenduana emoteco. Eguzkia, irarguia, ta icerrac guri argui eguitemo. Berba baten, beguiratu daguigun gauza guztietara, eta aurkituco ez dogu gueuretzat eguin ez evan gauzaric. Orregaitic esaten deuscu san Paulo Apostoluac: “Zuenac dira gauza guztiac, nai dala mundua, nai dala bicitzea, nai eriotzea, nai aurrean daucazuena, nai guero etorrico diranac. Orregaitic diño San Agustinec ce, Celan Yaungoicoac guizona eguin evan beretzat, alan guizonentzat eguin evazala gauza guztiac, eta orregaitic esan ditekeala Ygcoac beste arduraric euki ez davela, guizona zori-onecoa eguitea baño. Baya ah! andiac badira mesede mirarizco oneec, orregaitic bere cer icusiric eztauke bere Seme bacarra bidalduagaz eguin deuscuanagaz, cegaitic ece bere bicitzea curutze orretan emonagaz eracutsi euscun Yaun onec eracutsi al ditekean ondo-guraric, ta laztantasunic andiena, ece berac ciñoanetic ondo-gurearen anditasuna ez dala ecetan bere obato ezagututen, cein-da bicitzea adiskide gaitic emotean. Eta San Yoan Evangelisteac diño ce, onetan aguiari dala, Ygcoac deuscun maitetasuna ta caridadea, bada bere Seme bacarra biraldu evan mundura gu beragaiti bici gaitezan.

Andia izan bazan bada mundu au eguin evanean, Ygcoac eracutsi euscun asco-gurea ori eguitemo ez evan bere burua ecerchu bere necatu: bere esan bat asco izan tzan gauza guztiac ecer ecetic izatea artceco; baya ¿ceinbat costa ez yacon au mundu au barrizatea? ¿Ceinbat neke artu ez evan onetaraco? Ez eutsan asco erechi guizon eguin, ta gueure pecatuac bere ganean artuteari. Ez eutsan asco erechi guizon eguin abel-etse baten lasto artean, ez-eukiandienean, otzac ilic yaioteari. Ez eutsan asco erechi ogueta amairu urtean neke, lan, gose, egarri, ta icerdi artean bici izanari.

Ez eutsan asco erechi bere negargarrizco pasiño garratzean ainbeste azote, ta zauri artuteari. Ez eutsan asco erechi bere zanetaco odol guztia emon ta bere bicitzea galduteari: ezpada ce gura izan evan bere eriotza au izan cidin guizon batec igaro al leikean lotsagarriena, minbereena, ta gogorrena. (Lehen orrialdetik).

2

Lenengo mandamentuaren ganeco icasbidea

Jaungoicoaren lelengo mandamentuac aguinduten deuscu, neure Cristiñauac, Jaungoicoa maite izaiteco gauza guztien ganean edo gauza guztia baiño gueiago. Eta esan gura dau mundu onetaco gauza guztia, diruac, ondasunac, osasuna, honrea, eta bear bada bicitzea bera bere galdu bear doguzala Jaungoicoaren contra pecatu eguin baño leenago, eta au eguingo dogu bere aguindu edo mandamentu santuac ondo gordeagaz. Baya orrezaz osterancean bere dago obligaciñoa Jaungoicoa maitetu ta ametaco: eta alan Alexandro zazpigarrenac eragotzi eban esatea, eztaucala guizonac iños bere, fede, esperanza ta caridadeco actoac eguiteco bearric edo pecaturic eguiten eztala eguño beré bere artean esan ez-arren sinistuten dituzala fedeco eguiac, edo Jaungoicoagan dauquela esperanza ta uste andia, eta Jaungoicoa bera biotz guztiti maite ta laztan dabela. Baita yaquin gura badozue nos dagoan Jaungoicoaren amodiozco actoac eguiteco obligaciñoa eta nos barrieztatu bear dan aren Magestadearen ondogurea, dirautsuet eguin bear dogula lenengo ezaue-rea euquiten, edo errazoiaren usura elduta bertatic, eta ar'or non gurasoric gueienac eguiten daben pecatu, euren seme-alabai orduraco doctrinea eracusten eusteusalaco. Emoiten dabe achaquia esanic, aita oraindio gazteac dira; guero aci ditezanean icasico dabe. Ah guraso zorigogorrecoac! gazteac dira zuen seme-alabac doctrinea icasteco; eta eztira, bear eztirean gauza asco icasteco. Zuec daucazue obligaciñoa ceuben Seme alabai adinera edo usoerrazoera baño leen doctrinea eracusteco; bada ara eldu ezquerocoan dauque obligaciñoa, ta eguin bear dituez esan doguzan, fede esperanza ta caridadeco actoac... barriz celan eguingo dituez orduraco doctrinea icasi-ez-ic?

Bigarrenago eguin bear dira eriotzaco pelleburuan icusten bagara; irugarrenago Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoren batec estututen gaituzanean, eta beste modutan ecin goia artu yaconean. Diñot Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoren batec estututen gaituzanean, bada orduan eztatu obliguetan fede edo esperanzaco actoac; ezpada caridadearenac. Balitz tentaciñoa fedearen contracoa orduan eguin bear da fedeco actoa, eta bada esperanzearen contracoa eguin bear da

esperanzazcoa, eta alan cien contra den tentaciñoa aren contraco actoa
eguin bear dira pecatu mortalen bean. (13. orrialdetik).

3

Jaungoicoaren legueco bigarren aguinduaren: edo yuramentuaren ganeco icasbidea

1. Jaungoicoaren legueco bigarren mandamentuac aguinduten deus-
cuna da Jaungoicoaren icen santua ez utsean artzea, edo bardin dana,
yuramentu alperrecoic edo falsoric ez eguitea. Modu ascotan yuramentu
eguiten da; curutzeari, Justiciaco cigor, chuzo edo beste ezaugarri edo
señaleari mun eguinagaz: Evangelio, curutze, edo Justiciaco cigorrean
escua iminiagaz; esanagaz: *yuramentu eguiten deusat Jaungoicoari, Trini-
dadeari, Jesucristori*, eta alan: Da beré yuramentu testigutzat ecartea
araco criaturac, ceintzuetan arguiago, edo claruago aguiari dan Jaunaren
ontasun eta anditasuna: esango balitz leguez: *Ama Virgineagaitic, ceruco
Santuacgaitic, J. C.ren pasiñoagc., zazpi Sacramentu, edo Ceruagaitic*. Baya
au esaten bada araco gauzac gaitic ceintzuetan eztan ainbeste ezagututen,
edo eztan ain argui aguiari Jaungoicoaren gudanaco ontasuna, ezta yura-
mentu izango: esango balitz leguez: *escuan daucadan oguiagaitic; aushe
emen daucadana leguez*. Ezta yuramentu esatea: *emenche nagoana leguez,
Cristiñau nasana leguez* (edo c.º soy Cristiano) *guizon prestu nasanez,
neure conciencian*, bada itzcune oneetan ezta Jaungoicoa testigutzat ecar-
ten. Beste esacune modu bat, guztiz sarri euqui oi da aoan: *ondo daqui
Jaungoicoac eguia diñodana*, edo *guzurric eztiñodana*. *Jaungoicoaren aurean
nago, eta daqui cer diñodan*, oneec dudazcoac dira. Esan gura badozu,
ecin Jaungoicoaren yaquituria ganic ecer escutadu leitequeala, ezta yura-
mentu izango. Baya esan gura badozu, Jaungoicoa dacarzula, diñozun
eguiaren testigu, yuramentu izango da.

2. Iru gauza (aurquitu) bear dira Yuramentuan, ona eta bear dan
leezcoa izaiteco. Eguia, arteztasun edo Justicia, eta premiña, bear edo
necesidadea. Lenengo eguia; au da, ciur ciur egon bear zara, diñozun,
diñozun moduan dala. Artuten deusue yuramentu Domeca goshean
Pedro eleshan egon bazan, ala ez; bada yuramentu eguiteco an egon
zala, ciur ciur egon bear zara an egoala itanduten deusuen denporan:
bada dudan bazagoz begoan ala ez, pecatu mortala egingo dozu. Orre-
gaitic yuramentu arcen danean, bacoachac esan bear dau gauea berac
daquian moduan; ciur daquiana ciur; dudan daquiana dudan; icusia, icusia
leguez, eta enzuna, enzuna leguez; ecerbere guichitu, ascotu, gueiagotu
edo aldatu bagaric, bere gogoan (memoria),edo ustean daucana leguez;
bada aushe da yuramentu eguiagaz eguitea. (25. orrialdetik).

4

Biraoaren ganeco icasbidea

1. Da biraoa Demoniñoari norbaitentzat dei-eguitea, eguitea, edo escatutea gachen bat norberen buruari, edo iñori etorri daquiola: esaten danean leguez: *milla Demoniñoc eroan ayela, eriotza gogorrac artu ayala; biciric biurtu ez adila; lupu gogorrac yo ayala; tripa-ala minac aroala; arren bada gorronci gogorrac nire beguietatic quenduco al au*, eta onelango beste aibat modu, ce eztago guztiacontadu aldaianic. Esaten dan gacha andia bada, eta gogo edo deseoric badago yazo edo etorri daquion, pecatu mortala izango da. Atenciñoz zagoce, Cristiñauac, bada da guztiz bearra emoitera noian doctriñea, bada ain dago zabalduric pecatu genero au ce, derichat Cristiñau guztiz asco doazala beragaitic Infernuetara. Sarri-ascotan etorten oi zare confesetara, eta esaten oi dozue: Aita, nic birao asco bota dodaz, baya eztira biotzetic izan. Baya ecin sinistu leguiquezue. Gura dozue yaquin biotzetic direanez ala ez? Ara emen bada ezaugarri alazocoa. Birao eguiten deutzazun persona ori, laztana badozu, esateraco, adisquide guztizcoren bat, senar edo emaztea nori asco gura deutzazun, eta nogaz baquean bici zorean; nosean bein eta guichitan bada, eta su andi bagaric, señaile da eztireala biotzetic izan. Baya birao eguiten deutzazunenagaz aserraturic bazagoz, aguiari da biotzetic dana. Quenduten deutzue falta andi bat eguiten deutzun gauzaren bat, eta aserraturic orregaitic diñozu: *Arren, bada beso biac yausi (igartu) daquiozala*; ondo aguiari da biotz charra dauczula bere alderaco, eta guiozula yazo daquion. Emoiten badeutzue auciren bat, eta errazoeric euqui ez arren zure erechian, irabazten (ba)deutzue, eta sentimentuz beteric esaten dozu: *Jaungoicoac, niri eguin deustana leguez, pagadu daquio-la: arren bada ateric ate icusi daguidala; lucidu eztaiala; auts biurtu daquiola; guesho gogorrean gastadu daguiala*. Oneec eta onelango biraoac gueienetan dira pecatu mortalac.

2. Baderichazu eztauczula orduan yazo din gogoric, esan eguidazu: ¿nos bota oi dozuz birao orreec? Eguin deutzuen gacha gomuta dozunean; a-en ganean berba eguin deizunean; baita onetaraco ceruraguino ponderetan dozue eguin deutzuen gacharen anditasuna, guztiai adierazoten deutzue sentimentuaren anditasuna, ain modutan ce eztozu aurquituco dantzueenetatic bat, ceinec esan eztaguian ecin icusi dozula. (33. orrialdetik).

5

Lemoako sermoe-liburutik hartutako zatitxo bat

Ceinbat onelango promes gaisto San Antonio Urkiolaraco, Aranza-ruraco, Santa Eufemia Aillesticoraco, San Joan Gastelu-gacheraco, Santo

Cristo Lezocoraco, ta basterretaraco, gazteac eguiten dituezan eta ascoren arimeen galtzaigarriraco! Gurasoac, contuz: ez ichi seme-alabai promesen achakiagaz alango lecuetic ibilten. Eztira promes onac: eta eztauke indarric: eta eukita berè ceuen escuan daucazue indarguetea, ta eragozte-a, bapere pecatu bagaric; ta pecatu bagaric ez-ece, baita Yaungoicoaren aurrean ondo dan, ta bear dan gauza bat eguiten dozuela.

(Doctrina del 2º mandamiento sobre el juramento y el voto).

BESTE ZENBAIT GAI

ESCALERA DE COMPUESTOS DE TIPO MUJER-CRIATURA EN EL VASCO

Yu. Vl. Zytsar'

(Al académico G. V. Stepánov, maestro y amigo).

1. El vasco (guip. etc.) *alaba* “hija” tiene formas dialectales *alabara*, *alabea*, pero son seguramente secundarias (1) y en cuanto a las suletinas *alhába*, *alhabá*, *alába*, *alabá* (2) no dice L. Michelena qué valor histórico pueden tener. En otro lugar habla sobre la palatalización expresiva de los nombres vascos de parentesco y halla antecedentes de esta palatalización, a juzgar por la grafía, en “los nombres aquitanos e incluso medievales como *Allauato*, *Annaia*, donde pudo ser una pronunciación geminada o en algún modo fuerte, con el correlato que representa la falta de aspiración en consonantes aspirables en principio (*aita*, *anaie*, *arriba*, etc.) (3) “...Nunca se ha señalado —prosigue— la frecuencia con que el nombre de la “hija” aparece escrito *allaba* en autores labortanos del siglo XVII. En Haramburu (1635) encuentro, por ejemplo, *allabaric* (p. 43), *allaba* (69, 79, 202, 461), Agur Maria, *allaba saindua*, *allabetaco abantallatuena* (103 s.); en Arambillaga (1684) *allaba*, 5, 9, 17, 20, 26, 31, 33, 41, 46, 65 bis, etc. La lista está muy lejos de ser completa. Falta, es cierto, una grafía *ill* que sería absolutamente unívoca, pero aun así se hace difícil dudar de que con /ll/ se haya querido representar una pronunciación palatal de la lateral”.

Y como la palatalización en cuestión de /ll/ de *alaba*, en particular era expresiva, es decir, diminutivo-afectiva, concluye el gran lingüista vasco indicando la frecuente presencia analógica de expresivos sufijos (diminutivos y “afectivos”) en las palabras correspondientes tanto romá-

(1) L. MICHELENA “Fonética histórica vasca” (FHV), S-S., 1961, pp. 131-132, 114.

(2) Ibid., p. 132.

(3) L. MICHELENA “Sobre algunos nombres vascos de parentesco”, FLV, 2 (1969), pp. 119-120. Las indicadas formas suletinas *alhába*, *alhabá* precisamente tienen /ll/ aspirado, pero no representan, claro, ni aquitano, ni vasco medieval.

nicas como aquitanas y vascas: cfr. it. *sorrella*, rum. *fica*, *fica* “hija”, dim. de *fie*, etc. Añadamos que incluso en la aducida forma aquitana *Allauato* tenemos un sufijo *-to* (diminutivo en vasco) que, sin duda, servía aquí a la expresividad junto con la palatalización diminutiva de /l/.

De modo evidente se deduce de todo ello, aunque el propio autor no lo haya dicho, el que *alaba* debe conservar su /l/ intervocálica gracias a esta frecuente palatalización (ya que una /-l-/ no palatalizada pasaba en el vasco a /-r-/), y esto nos indica la antigüedad de la /-l-/ en cuestión, a pesar de su posición intervocálica. En lo que toca al vasco *anaia* “hermano” (puesto en paralelo arriba con nuestro *alaba*), es evidente que este vocablo también ha conservado su /n/ intervocálica gracias a su frecuente palatalización en la historia (sin lo cual habría perdido la /-n-/), y tal conclusión ya no queda para L. Michelena al nivel implícito, pues para *anaia* postula expresamente un prototipo con N especial (*aNaia*), la cual en el fondo no puede ser otra cosa que una /-n-/ palatalizada (5).

Recordemos aquí también la teoría de G. Bähr (6) quien pensaba en un antiguo vasco común *alhaba* (cfr. arriba mod. *suletino*), donde el paso /-l/ » /-r-/ hubiese sido impedido por la aspiración de /l/. El propio G. Bähr veía el radical *ala* de *alaba* en el vasco *alargun* “viudo”, “viuda” (7), pero J. Corominas ha mostrado brillantemente que *alargun* proviene de *ez lagun* “sin compañero” (8). Recuerdese, por fin, la comparación por G. Bähr de *alaba* con el vasco al-u “verenda mulieris” con el prototipo *al* “mujer” de aquí deducido.

A lo que sé, con ello (es decir, con la forma *alaba* y significación “hija”, como las más antiguas accesibles) se agota lo que conocemos hoy sobre el vasco *alaba*. Es decir, que queda absolutamente oscuro, y lo es también su elemento *ba*, que constituye en general el famoso misterio de muchos (y más importantes y antiguos) términos vascos de parentesco.

Hace dos años, en un trabajo especial (9), me he fijado en que, a más de otros, este elemento *ba* se encuentra también en el vasco *illoba*

(4) Ibid.

(5) FHV, pp. 305-306, etc. Es verdad que se emplea aquí más el término /-n-/ “largo” o geminado (cfr. lat. *capanna* > vasc. mod. *kabana*), pero basta decir que es en fin un /n/ palatal el que está en los reflejos españoles del propio lat. *capanna*.

(6) G. BÄHR *Los nombres de parentesco en vascuence*, Bermeo, 1935, p. 11.

(7) Ibid., pp. 34-35.

(8) J. COROMINAS “Hurgando en los nombres de parentesco”, FLV, N5 (1970), pp. 169-183.

(9) YU. VL. ZYTSAR’ “Relaciones caucásico-orientales de ola “choza”, alaba “hija” (en ruso) - “Kavkazsko-bližnevostočny sbornik”, VI, Tbilisi, 1980, pp. 172 s.

“nieto, -a” (tampoco interpretado), donde puede significar lo mismo que en *alaba*, porque se trata en ambos casos del parentesco de descendencia y no hay aquí tal “distancia semántica” como, por ejemplo, entre “abuelo” y “nieto” o “padre” e “hijo”. En dos términos de descendencia un elemento común puede designar (es lógico suponerlo también) a la persona de segunda o de tercera generación o al niño (niña), en general, a una criatura.

Sobre esta base (verdad, muy débil) he tratado de elaborar dos etimologías: para *ala-ba* “hija”: “mujer-criatura”, lexicalmente “chica, niña” (de donde ya posteriormente el significado moderno “hija”) y para *illoba* “(del) hijo, o (de la) hija, hijo/a”, lo que corresponde directamente a la acepción lexical de “nieto, nieta”, resultando con ello en el primer caso un compuesto del tipo calificativo-atributivo y en el segundo el del posesivo.

Hay que decir ya ahora que el paso semántico lexical “chica” » “hija”, aunque complica la primera etimología, es más que frecuente, ya que decimos en ruso, en español, francés, inglés, etc., etc., “mi niña” en el sentido de “mi hija” y cuando lo dice un georgiano, emplea precisamente el compuesto (para “niña”) de “mujer-criatura” (*kališvili*).

Por deficientes que sean, estas hipótesis etimológicas mías son primeras, ya que repito que, a lo que sé, no ha habido sobre las palabras en cuestión hasta el presente ninguna otra propiamente científica.

En segundo lugar, me parece que no se puede proponer ninguna otra hipótesis para la compleja interpretación de las palabras *alaba* e *illoba* como internamente relacionadas (a través del elemento *ba*) y de su elemento *ba* en ambas simultáneamente.

Una confirmación tipológica del propuesto análisis la hallamos ante todo en las estructuras de los compuestos tipo “mujer-criatura” de varias lenguas caucásicas, urálicas, etc. (que no tienen el género gramatical) y tipo “(del) hijo hijo” que nos presenta el georgiano “švili-švili ‘nieto, -a’”; sirve aquí también la estructura composital “hombre-criatura”, lex. “muchacho, chico” de las mismas lenguas caucásicas, etc.

Pero lo que es sobre todo demostrativo es la abundancia exclusiva de los tipos “mujer-criatura” y “hombre-criatura” en el propio vasco y aquitano (que es, como se sabe, forma casi histórica del vasco). En efecto, en el vasco (y en aquitano, como nombre propio) tenemos *neska* “muchacha” de *ne* “mujer” + (como creo) **ska* “hijo, hija”, “criatura”, es decir “mujer-criatura”; *ema-kume* “mujer” («“muchacha”) de *eme* “mujer” + *kume* “criatura”, lit. “mujer-criatura”; *ne-skame* “criada” («“muchacha, chica”) de *ne* “mujer” y *skame* que es, como creo, una variante de *ska* “criatura” con sufijo *-me*, en total (lit.) “mujer-criatura”;

luego según el diccionario de P. Múgica (10) *sein-eme* “niña” de *sein* “criatura” y *eme* “mujer”, lit. “criatura-mujer” con el orden inverso de los componentes; *giza-kume* “niño, chico” de *giza* “hombre”+ *kume* “criatura” (en Múgica, bajo “niño”; es del dialecto bajo-navarro y roncalés), lit. “hombre-criatura”, compuesto atributivo-calificativo; vasc. (vizc.) *sen-ar* “niño” (Múgica bajo “niño”) lit. “criatura-hombre” con el orden inverso de los componentes que son *sein* “criatura” y *ar* “macho, hombre”; vasc. *sen-ar*, *sen-har* “marido” («“novio”, “muchacho”) igual al vizc. recién analizado; cfr. por fin el compuesto ya secundario *aurseme* “niño, chico” (en Múgica bajo “niño”), donde para determinar el género masculino de *aur* “criatura” sirve ya no *giza* o *ar* “hombre, macho”, sino *seme* “hijo” porque esta última palabra se ha establecido ya bien para designar sólo al niño del sexo masculino (11).

2. Es verdad que varios de estos ejemplos exigen a su vez una previa (o viceversa: suplementaria) aclaración que, por lo demás, no se presenta difícil: es ante todo el caso de *neska* “muchacha” y *neskame* “criada”, en que me permito detenerme.

El componente *ne* “mujer” de estas palabras está reconocido por todo el mundo gracias al vasco *ne-ba* “hermano de una mujer”, lit. “(de la) mujer -ba”, cfr. su correlato *arre-e-ba* “hermana de un hombre”, lit. “(del) hombre o macho ba”. En lo que toca al segundo componente de *ne-ska*, es decir *ska*, lo consideran de ordinario como el sufijo diminutivo *ska* de las palabras como *mendiska* “montículo”, *herriska* “pueblecito”, *bideska* “senda”, etc., cfr. también *belxka* “negruzco” (12). Con ello el variante *skame* queda, sin embargo, sin explicar (o recibe explicación del jaez que mejor sería no existiese: **neska-eme* “chica hembra”, “cuya formación pleonástica se comprende difícilmente, por lo demás, si se da a *neska* la acepción actual” (13)) y esto exige otra explicación para el propio variante *ska*, la cual permita interpretar a la vez *skame*, porque la comunidad etimológica entre *neska* y *neskame* es evidente así como entre sus partes *ska* y *skame*: *ska* no es un sufijo aquí, porque no puede serlo *skame*, una evidente palabra independiente en el pasado y más aún –palabra no simple (a su vez), sino derivada.

(10) P. MÚGICA BERRONDO *Diccionario castellano-vasco*, Bilbao, 1965, bajo *niña*.

(11) El compuesto *aur-sein* “niño” para mí no está muy claro, pues puede contener (a más de *aur* “criatura”) *sein* significando ya “hijo” del sexo masculino, pero puede también ser un geminado (reduplicación), etc.

(12) Tomo estos ejemplos del citado libro de G. Bähr, p. 16, que los ha tomado del famoso diccionario de R. M. de Azkue (*Diccionario vasco-español-francés*, t. I, Bilbao, 1950), donde existen realmente.

(13) G. BÄHR, op. cit., p. 16.

Viceversa: reconociendo *ska* en *neska* como "criatura", tanto más podemos hacerlo con respecto a *skame*: *ne-skame* primitivamente "muchacha, chica" debía significar en el aspecto etimológico (una vez más) "mujer-criatura", y esto nos abre la posibilidad de interpretar la propia forma de *skame*, su diferencia de *ska*. En efecto, si *skame* existió como palabra independiente ("criatura"), no como sufijo, entonces podía contener en sí, ella propia, un sufijo con tal o cual significación: de aquí que *ska-me* "criatura" se presenta como una forma sufijada, es decir, llevando el sufijo *-me*, y derivado de la *ska* "criatura" (sin sufijo): parece, desde luego, que *ska* y *skame* "criatura" existían como paralelos morfológicos de una sola y misma palabra.

El sufijo *-me* puede contenerse en otros vocablos de formación más que antigua, incluso *kume*, *ume* "criatura", *seme* "hijo" o vasc. *gau* "noche" « **gaume* (14). Y aunque en el propio campo vasco no se me ocurren ahora paralelos con y sin este sufijo, la situación hace recordar un tal paralelo desde el campo vasco-caucásico que es, además, famoso y en muchos aspectos remarcable: vasc. (vizz.) *e-rka-me* "rama" con /e-/ epentética - kartv. *rka* "cuerno" (para la diferencia semántica cfr. en el propio vasco *adar* "cuerno, rama" (10)). El carácter de *-me* en el último caso es indudablemente sufijal.

En lo que toca a la semejanza de *ska* "criatura" con el sufijo diminutivo *-ska*, esto es ya un problema algo aparte y no puede considerarse un estorbo para lo expuesto. Notemos sólo a propósito que si esta semejanza no es casual, se explicaría por el hecho de que la formación de los sufijos diminutivos (a la par de los del género genitivo) estaba a menudo basada en precisamente la palabra "criatura, hijo", uno de los importantísimos hechos descubiertos y apreciados en su tiempo por N. Marr (16). La desaparición de *ska* y *skame* como palabras independientes ha debido ser algo acabado ya en una profundidad insondable de tiempos, pero estas palabras debían existir todavía al tiempo de aparecer *neska* y *neskame*, lo que tuvo lugar, a todas luces, mucho antes del límite de nuestra era, cuando *neska* fue atestiguado en el aquit. *Nesca* (Este *Nesca*, por lo demás, en el mismo período se conoce también bastante lejos de Aquitania en el mundo romano, lo que confirma su antigüedad).

(14) YU. VL. ZYT'SAR' "El vasco jaun", FLV, N22 (1976), pp. 55-65.

(15) En el ubij.qä "cuerno" sin sufijo también se cree haber perdido el /r/ del anlaut. Sobre la historia de esta comparación, compartida por los críticos más severos, como H. Vogt, véase últimamente el resumen de I. URREIZTIETA-RIVERA "Basque and caucasian: a survey of the methods used in establishing ancient affiliations", Ann Arbor, 1980, p. 68.

(16) YU. VL. ZYT'SAR', cit. op. "Relaciones".

La aparición de *-ska* diminutivo, si sobre todo se había formado a base de **ska* “criatura”, debía si no determinar, influir a la desaparición de la última: propiamente dicho **ska* “criatura” debía ir desapareciendo como tal, a medida de emplearse como sufijo diminutivo.

Si no fuera por *neskame*, sería posible tomar *neska* por una formación diminutiva, pero como tal (diminutiva) debía tener el significado de “mujer pequeña” y podía recibir, a la vez, el de “muchacha, niña” sólo asignándose sistemáticamente a las niñas: “ah, mi pequeña mujer” de modo acariciador dirigiéndose a la chica, hija (vocativo y apelación). El georg. *kala* “chica” diminutivo de *kali* “mujer” ilustra cómo puede ser esto; cfr. otros diminutivos georgianos *kaluka*, *kacuna* “pequeña mujer, pequeño hombre” con aplicación a los niños y como nombres propios de procedencia “infantil” (18).

Creo que con ello y con la cantidad de los ejemplos aducidos no hay lugar para el problema de si existían y existen, o no, en el vasco-aquitano los compuestos “mujer-criatura”, “hombre-criatura”.

La etimología de *alaba* como “mujer-criatura”, con la que hemos empezado arriba, se confirma así no sólo por la existencia tipológica de la estructura de composición correspondiente, sino también por su extensión en el propio vasco y aquitano.

3. En lo tocante a la forma primitiva del vasco *illoba* “nieto” L. Michelena escribe que tanto en ésta, como en su otra significación de “sobrino” la palabra “parece podría explicarse lo mismo a partir de *il-* (anlaut) que de *li-* (< *lj*): sal. *lioba*, ronc. sul. *lloba* (sul. *arralloba* “nieto”), mer. vizc. (R.S. 154, Mc. etc.) *lloba* (19), mer. *llobaide* “primo”, lit. “con sobrino”. En los dialectos centrales (a-nav., b-nav., guip., lab.) hay *illoba*, *iloa*, aesc. *eiloba*; Leic. *liobaso* “nieto” (FHV, p. 197-198). Y con otra ocasión: “*lloba* “sobrino, a” es lo que aparece en ambos extremos de la zona de habla vasca (*llobaide* “primo”, lit. “con-sobrino” en el diccionario de Landucci), de donde posiblemente los más extendidos *ilioba*, *lioba*” (20). Como vemos, en este otro trabajo la inclinación del autor es más hacia la antigüedad del “anlaut” /*il-*/ por el factor areal

(17) Lo mismo pasa hoy con, por ejemplo, las palabras *kide/ide*; *kume*, *hume*, *ume* y muchas otras.

(18) Preparo un trabajo sobre este tema “infantil” en que espero explicar el porqué del fenómeno a la vez que mostrar su extensión (en el aquitano y vasco) mucho mayor (creo) de lo que se piensa.

(19) G. BÄHR (p. 25) nota que en el libro de *Refranes* de 1596 hay la forma *llouea* “la sobrina”.

(20) El artículo citado “Sobre algunos nombres”, p. 120.

en las primeras apariciones de la palabra en los textos, que son relativamente tardíos.

G. Bähr (op. cit., p. 21) opinaba que “*illoba* y su variante *lioba* (/loba) están en la misma relación fonética que *iñon*, *iñor* con *nion*, *nior*”. Los propios *iñon*, *iñor* son, como se sabe, derivados de *non*, *nor*, con ayuda de *ez*-; su /ñ/ está palatalizada por encontrarse detrás de *ez* > /i-/ y desde luego Bähr querría decir que se trata de la prioridad de *illoba* y más aún de *iloba*, pero la aducida analogía es, claro, un fundamento insuficiente.

Larunbat goizean, Batzorde suntsikorrei begirada eman zaie. *Egoitza berrikoa* eta *Lexiko Erizpideen Finkapenekoak* berdin jarraituko dute. *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoarentzako* gehienen baietza jaso da, salbu I. Albisurenaren, honek bere ezezkoa azaldu baitu. I. Sarasola falta da erantzuteko.

Oinarrizko Euskara Batzordeaz erizpide desberdinak agertu dira. Denek ikusten dute lehengoan ezin dutela jarraitu, baina batzuk berehala suntsitzearen alde agertzen dira, beste batzuk berriztatzearen alde eta hirugarren batzuk, Argitalpen Batzordearen azpibatzerde gisa birmoldatzearen alde. Azkenik birmoldaketa bat onartu da, baina beste era honetara: J. San Martin buru, R. Badiola, J. L. Goikoetxea eta N. Agirrek osotua.

Ondoren, eta A. Zavala agertzen delarik, *Herri Literatura* Batzordearen buruzagitza berplanteatzen da, bere eginkizunez gain. Berari entzun ondoren eta lanerako animatu, onartu du VI. Batzorde iraunkor honen buru izatea, Batzordea bera izendatzen denean idazkaria aukeratzekotan gelditzen direlarik.

Hileroko osoko bilkura Zuzendaritza Batzordeen arteko zeregin banaketa eta mugaketaz hasten da hurrengo puntua. L. Villasante Euskaltzainburuak sarrera bat egin ondoren, J. L. Lizundia Idazkari-ordeari ematen dio hitza, honi eman bait zion, zenbait erizpide markatu ondoren zirriborro bat aurkezteko agindua.

Reglamento Especial de Funcionamiento Interno deituriko testuzirriborro aurkezten du Idazkari-ordeak. "Artículo preliminar" horietako baten ondoren, hiru ataletan banatu du Erregelamentu Berezi hau: I. *Del funcionamiento y atribuciones de la Junta de Gobierno y del Consejo llamado EUSKALTZAINBURUGOA*, II. *Del funcionamiento y atribuciones de las Comisiones académicas*, III. *Del funcionamiento administrativo de Sede y Delegaciones*. Azken honen eranskin eta eredu gisa, IV. Barne Jardunaldietarako aurkeztu zuten testu berbera dakar.

Zirriborro hau abiapuntu bezala da, eta eztabaidarako beti lagungarri gertatzen den testu eredu. Hurrengo bilkurarako bakoitzak bere aldaketa, zuzenketa edo oharrak idatziz ekartzea premiazkoa ikusten da. Elkarriketa baten ondoren horrela uzten da gai hau.

LEXIKO-BERRIKUNTZA ETA BILKETA-LANA NOLA BIDERA

*Euskaltzaindiaren erabakia,
1987ko Urtarrilaren 31ko bilkuran onartua*

Hiztegigintza Batzordeak 1986ko Urriaren 24 eta 25ean, Larraun-Lekunberrin, euskal lexiko-berrikuntzaz egindako azterlanean oinarrituz, eta gai hori sakonago lantzeko batzordeñoak (1) Azaroaren 30ean aurkezturiko proposamena beharrezko arretaz aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du Euskaltzaindiak:

I. ABIABURUAK

Euskal hitz-altxorraren berritze-lanak direla eta ondoko abiaburuok hartzen ditu Euskaltzaindiak gidari:

a) Bere sortarauek garbi adierazten dutenez (araategiko 1. atala, g puntua), Euskaltzaindiaren zeregin nagusietariko bat gure hizkuntza gizar-te-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea da.

b) Euskararen gaurkotze eta modernizazio-lana oro har, eta bere hitz-altxorraren berritzea bereziki, bete-betean sartzen dira beraz Euskaltzaindiaren lan-esparruan.

c) Euskaldun-jendeak gidaritza eta bateragune baten premia bizia ageri du lexiko-berrikuntzaren alorrean. Bizibidez irakaskuntzan, administrazioan nahiz komunikabideetan diharduten euskaldunek sentitzen dute, itxuraz, premiarik larriena. Ez horiek bakarrik ordea: baserri-giro itxi-itxian edo antzeko bizigune lehenari lotuetan bizi diren euskaldun egunetik egunera urriagoak izan ezik, gainerakoek geroz eta biziago nabari dute, artez edo moldez, beharrian horren zantzua.

Euskaltzaindiak, hizkuntza kontuan herri honen erakunde aholku-emaile denez, aurrez aurre erantzun nahi dio euskaldun-jendearen gidaritza-eta bateratze-behar horri.

(1) P. Altuna, I. Sarasola eta M. Zalbidek osatu zuten batzordeño hori.

II. OINARRIZKO ERIZPIDEAK

Hiztegigintzaren alorrari dagokionez, eta oraindainoko pausoen jarraipen gisa, honako erizpide nagusiotan oinarrituko du Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren alorra.

II.1. Hitz-altxorren berrikuntza ez da gauetik goizera erabaki daitekeen auzia. Inolako arau zehatzik eman aurretik, bereziki, euskaldun-goak ahoz zein idatziz ageri duen jokamoldea bertatik bertara ezagutzea komeni da.

Gaurko egoeran ez da komeni, beraz, jakintzagai eta bizigune desberdinetako hizperrietan banan banako arau sendo eta onespenik ematea. Badago hori baino aurreragoko lanik; eta, aurrelan horiek bideratu artean, hobe da arau-emankizuna alde batera uztea.

II.2. Presa handikoa, eta premia bizikoa, bilketa-lana da gaur egun. Euskaltzaindiak begi onez ikusten du hainbat taldek eta norbanakok azken urteotan aurrera daraman bilketa-lana; aintzakotzat hartzen ditu alor horretan eginak edo eginbidean dituzten saioak, eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko gonbite-deia luzatzen die guztiei.

II.3. Euskaltzaindiaren Hiztegigintza Batzordeak badu, lexiko-berrikuntzaren behar horri erantzuteko, berariazko lan-programa bat eratua: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* (EEBS programa) hain zuzen. Bide horretatik aurrera eramatea komeni da, oinarritz, euskal hitz-altxorren berritze-saioa.

II.4. Egungo euskararen bilketa-lan hori bere oinarri-oinarrizko puntuetan definiturik badago ere aztergai eta erabakizun daude, oraindik, puntu konkretu gehienak. Ondoko atalean adierazten dira, halako xehetasun batez, erabakizun xehe horien hainbat gora-behera eta irtenbide posible.

III. IHARDUPIDEA

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa, EEBS programa, ondoko era honetan bideratuko du Euskaltzaindiak:

III.1. Zer bildu

Bilketa-lan sistematiko hau ondoko bi alor edo eremuotan burutuko da nagusiki:

EEBS 1: egungo prosa arrunteko hitz-altxorra.

EEBS 2: jakintzagai eta bizigune desberdinetan erabili edo erabiltzen den hitz-altxorra. Berarizko ardura eskainiko zaie, alor honetan, ondoko

atal hauei: irakasmundua, komunikabideak, telebista barne; administrazio-mundua.

a) Egungo prosa arruntari dagokionez, batetik aldizkariak biluztuko dira: *Euskalzaile*, *Ibaizabal*, *Euskal Esnalea*, *RIEV*, *Yakintza*, *Eskualduna*, *Gure Herria*, *Euzko Gogoa*, *Egan*, *Jakin (Yakin)*, *(Zeruko) Argia*, *Anaitasuna* eta azken urteotakoak. Eta, bestetik, idazle gailenen liburuak: bakar batzuk baizik ez aipatzearren Orixe eta Lizardiren hitz lauuko idazlanak, Eguzkitza eta beste zenbaitenak gerra aurrekoetan; gerraondoko ezagun guztiak, bestalde: 1970 arteko idazlan nagusiez gainera leku berezi bat aitortuko zaie, ekinaldi honetan, Jakin, Lur (hastapenak), Etor, Gero, Irakur Sail eta azken 15 urteotako gainerako bildumetan argitara emanikoei.

b) Jakintzagai eta bizigune desberdinetako espezialitate-gaien hustuketa-lanean ere, gehiengo nagusia azken 15 urteotako liburu eta aldizkariak osatzen duten arren, mende osoko idazlan garrantzitsuak hartuko dira kontuan. Gerra aurrekoetan, honela, adibidez: eskola-liburu guztiak; Olabideren *Giza soña*; *Nekazaritzako irakurraldiak*; Etxaideren telefoniari buruzkoa; Jean Etchepareren *Mediku solas*. Gerraondokoetan, batez ere azken 15 urteotako produkzioa bere luze-zabalean arakatu eta ustiatuko da: bai aldizkariak (*Elhuyar*, *Jakin*, *Zutabe*...), bai egunkari-artikuluak, bai bestelako idazkiak (administrazio-alorrean) eta bai, batez ere, geroz eta liburu ugariagoak. Komunikabideen kasuan aho-hizkuntzazko grabazioak hartzea komeniko da, besteak beste.

III.2. Noiztik noiz artekoa bildu

“Egungo euskara”-k, bistakoa denez, ez du berezko buru-buztanik.

Abiaturuari dagokionez, horrela, ez dago argi noiz amaitzen den lehenaldia eta noiz orainaldia hasten. Eta azkenburuaz denaz bezainbatean, bestalde, zein urtetan jarri epemuga? Punta biak zehaztu gabe egonik ere, bistan dago abiaturua dela auzigai zailena.

Lekunberriko jardunaldian entzundako eritziak kontuan izanik, honako epealdi hau hartuko du EEBS programak azterkizun: mende honen hasieratik bilketa-lana egiten den egunerarte. Salbuespenik egin daiteke, jakina, hasiera-amaiera horien urte justuaz. Gorago aipatu den bezala *Euskalzaile* aldizkaria, XIX. mendearen amaierakoa izanik ere, komeni da azter-eremu honetan bete-betean sartzea.

III.3. Nola bildu

Bilketa-lana era sistematiko batean egingo da. Honako ondorio hauek atera behar dira, besteak beste, sistematiko-nahi horretatik:

a) Liburu bat biluzterakoan jaso beharreko hitz guztiak jasoko dira, eta ez ikusmolde, joera edo aurre-iritzi jakin baten arabera egoki deritzagunak bakarrik.

b) Jaso beharreko hitzak zeintzu diren eta zeintzu ez jakiteko, aurrerago aipatuko den EEBS Batzordeak garaiz finkatuko dituen lexikografi erizpideak hartuko dira gidari.

c) Batzorde horren berorren erizpidez argituko da, orobat, neurri bateko edo besteko hitz-kateei ere noraino eman behar zaien berekabezko sarbidea.

III.4. Nork bildu

Euskaltzaindiak ez du bilketa-lan sistematiko hori, burutik burura, bere gain hartzeko asmorik: ez du, beraz, bilketa hori egiteko lantalde propiorik sortu eta beharrezko baliabide guztiez hornituko. Uste ere, ez bait du uste langintza hori talde itxi baten bidez, hartarakoxe sortu eta urterik urte egun osoz horretara emana egongo denaz, burutzekoa denik. Aitzitik, lehendik lanean ari diren elkarte eta lantalde beregainen bidez burutuko da, ahaleginean, eginbehar zabal hau. Euskaltzaindiaren arauak eta oinarrizko erizpideak bete-betean onartuz lan egin nahi duten elkarte edo lantaldeei EEBS programan partaide izateko eskaintza luzatuko zaie, beraz, lehenengo unetik.

Eginbehar jakin bat orain lanean ari diren elkarte edo lantaldeek beteko ez dutela ikusiko balitz, eta sarritan gertatuko da horrelakorik, eginbehar horri erantzungo dioten norbanako edo lantalde beregainak hartara bideratzen ahaleginduko da Euskaltzaindia: Unibertsitate-giroan aurkitu ahal izango dira, seguruenik, hartarako solaskide egokienak.

Labur bilduz, Euskaltzaindiaz kanpoko lantalde beregainen bidez mamituko da, nagusiki, egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa: bai jadanik hiztegitantzari direnekin, eta bai Unibertsitate-eremuan daudekeen edo bihar-etzi sor daitezkeen bestelakoekin.

III.5. Bilketa-lanaren gidaritza

Euskaltzaindiak bere gain hartzen du, gorago esan denez, eginbehar guzti honen gidaritza eta oinarrizko erizpide-finkapena. Gidaritza-lan hori zuzen bideratzeko, honako jokamolde honetaz baliatuko da.

a) *Lantalde gidari bat sortzea*

EEBSrako lantaldea sortu eta abiaraziko du, berandu baino lehen, Euskaltzaindiak.

b) *EEBS lantaldearen zereginak*

- Bilketa-lanaren esparrua zehaztu eta mugarritu.
- Orain arte egin den bilketa-lana, edo gaur egun burutzen ari dena, jaso, aztertu eta egituratu.
- Daudekeen eginkizunak eta bete beharreko hutsuneak aurkitu.
- Hutsuneok betetzeko aribide posibleak asmatu: bai lehenik lanean diharduten elkarte beregainak hartara bideratuz eta bai, halakorik ez legokeen kasuan, berriak sortaraziz.
- Lexiko-berrikuntzaren inguruko datu-banku bateratua sortarazi eta eguneratzea.
- Horretarako, bilketa-lanerako oinarritzko arauak finkatzea:
 - Zein hitz bildu behar den eta zein ez
 - hitz-kateen trataera
 - hitzen biluzte-moldeaz, kodetze-sistemaz eta abarrez oinarritzko eriz-pide bateragarriak definitzea
- Parte hartu nahi duten elkarte eta lan-taldeekiko etengabeko harreman-bidea segurtatzea.

c) *EEBS programaren onarpen, jarraipen eta kontrola*

EEBS programaren bidez egiten ari den lanaren kalitatea segurtatzeko baliabide bi ditu, besteak beste, Euskaltzaindiak: partaidetza-eskabideen onarpena, lanari ekin aurretik; eta ondoren jarraipen-kontrola.

d) *Onarpena*

EEBS programan parte hartu nahi duten elkarte edo lantalde beregainei honako baldintza hauek eskatuko zaizkie, besteak beste:

1. Begiz jotako langintza aurrera eramateko behar duten diru-babesa beren kontuz segurtatzea (Herri-Aginteetatik, Unibertsitatetik edo beste edozein diru-iturritatik). Euskaltzaindiak ez du, alegia, langintza horren kosturik ordainduko (2).

2. Euskaltzaindiak finkaturiko lan-araudia eta aldian-aldian ezar ditzan gainerako eginbideak bete-betean errespetatzea.

(2) Beste era batera esanik, EEBS lantaldearen lan-kostuak hartuko ditu Euskaltzaindiak, bakarrik, bere gain.

3. Bilketa-lan hauetan lehendik ere gutxienezko ezaguera eta trebakuntza-maila eskuratua izatea (mekanizazio-bide berrien ezaguera barne, hala balegokio).

e) *Jarraipena eta kontrola*

Euskaltzaindiak, EEBS programako talde eragilearen bidez, honako puntuok zainduko ditu aldiro-aldiro:

- e1. Nor-zer-non egiten ari den.
- e2. Langintza bakoitzaren abiada.
- e3. Bilketa-erizpideak zuzen betetzen direla segurtatzea.
- e4. Mekanizazio-bideen (zintak eta abar) trataera egokia segurtatzea.

III.6. Lana noiz burutu

1987an abiada betean ari behar du EEBS programak. Eta, elkar lanean jardunaz, bospasei urteko lana dago, lehen estimazio baten arabera, eginkizun.

III.7. Berehalako eginbeharra

Lexiko-berrikuntzaren inguruko bilketa-lanari hemen esandako eran ekiteko lan bat da, lehentasun osoz, premia bizikoa: EEBS taldea osatzea. Hots, bertako taldekideak izendatu eta langintzari abiada ematea. Hartarako neurriak epe laburrean hartzea erabaki da gaurko egunez.

**EUSKALTZAINDIAREN
BATZAR - AGIRIAK**

1987-I-31

Plentzian, Bizkaiko Foru Diputazioaren “Aterpetxea”-n, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilera 1987ko urtarrilaren 31an. Goizeko hamaika t’erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak; J. A. Arana Bibliotekariordea, J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zearreta ekonomi eragilea, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Bezperako Jardunaldi saioetan egon ziren P. Charritton eta J. Gorostiaga, euskaltzainak, hala nola L. M. Mugika urgazlea ere.

Ezin etorria adierazi dute, J. Hiriart-Urruty, J. L. Davant, E. Larre eta P. Larzabal jaunek.

Batzar honen aurretik goizean egindako Jardunaldietako bilkuran zeuden, Miren Azkarate, R. Badiola, P. Goenaga, P. Uribarren eta M. Zalbide, urgazleak.

Ohi den eran hasi da batzarrea.

Abenduko batzar-agiria onartu da.

Eskuarteko gaiak

Complutense Unibertsitateak J. M. Barandiaran “Doctor Honoris Causa” izendatu duela esan zaie batzartuei, eta Euskaltzaindiaren izenean telegrama bat bidali zitzaiola Madrilera zorionak emanez.

Kongresu eta kultur batzarretara joan ahal izateko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen diru-laguntzen berri igorri du J. M. Aranberri jaunak.

Asturiasko Hizkuntz Akademiak bere XIII.Kongresurako Euskaltzaindiaren zenbait zehaztasun eskatu ditu. Horrelako beste aurkezpen batzutarako egin txostenen laburpena bidaliko da.

Galego eta portugeraren Nazioarteko II.Kongresurako gomita hartu da.

ASEPEIO-k egindako hiztegiaren ale bat jaso da. Bibliotekariordeak erantzungo die.

J. L. Lizundiak 1986. urtean Euskaltzaindiko batzarreeta etorritakoen zerrenda banatu du.

Abizenak euskal grafiaz idazteari buruz Tolosako Udalak aldatutako agiri baten berri eman da. Grafiaren arazo hutsa ez baino, norberaren jatorriarekin zerikusia duela eta, kontuz ibili beharra dagoela beste maila batzutan sort ditzakeen istiluengatik, aipatu da.

Nafarroan Antsoaingo Kontseilutik hartutako galderari erantzunez, 'Veintena' / *Hogeikuna*, eta 'Junta de Veintena' / *Hogeikun batzordea* itzuliz erantzun zaiela, esan du Nafarroako ordezkariak. Era berean, 'Oncena' / *Hamaikuna*, eta 'Quince-na' / *Hamaboskuna* esatea zilegi litzateke.

Nafarroako Gobernuak izen euskalduna duten herrien euskal grafia eskatuko diola Euskaltzaindiari, jakinerazi du J. M. Satrustegik. Elkarrekin izan duten bilera batean finkatu dituzte erizpideak. Euskararen legeak dioena bete nahi omen du horrela Gobernuak.

Josep Vicens Foix kataluniar olerkariaren heriotzea dela eta 'Institut d'Estudis Catalans' elkargoari doluminak agertzea onartu da.

Intzako Damaso aita zenaren jarlekua betetzeko hautagaien izenak aurkezteko epea datorren batzarrean amaitzen dela, aditzera eman du euskaltzainburuak.

Jardunaldien berri

Etxe honetan bertan, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko V. Jardunaldiak egin dira atzo egun osoko eta gaur goizeko saioetan. Gaiaren garrantzia, orain arte emandako urratsak eta eman nahi zaion bultzada, aipatu ditu. L. Villasantek sarrera txostenean.

Mikel Zalbideren ezin etorria adierazi ondoren, Miren Azkaratek irakurri ditu hark eztabaidarako prestatutako txostenak. "Sinbolismo fonetiko eta hotsutarduraz sorturiko hitzarteak" izenekoarekin eman zaio hasiera.

Tomas Uribeetxebarriak beste alde batetik begiraturaz, onomatopeia eta izena bi gauza direla, zioen bere txostenean. Hizkuntza mintzatuan ematen da hura eta izenera iritsiko balitz hitz konposatutzat har daitekeela besterik gabe.

Lourdes Otaegik semantikan oinarritutako ohar eta agerpen batzu egin ditu bere lanean.

Irakurritako beste txostenen gaiak hauek izan dira: "Bikoiztapenak". "Dvandva-elkarteak". "*Astaputz* moduko hitz-elkarteak", eta "*Peru Abarka* elkarte motak". Denak M. Zalbidek gertatuak.

A. Irigoyenek Beloken egindako oharrekin batera beste agerpen batzuez taxututako txostena irakurri du. Haste hastetik aditzera eman duenez, zerrenda horietako hainbat eta hainbat gai, hiztegian baino hobeto gramatikan agertzekoak omen dira. Gaurko premia gorria dela eta erantzunaren zain daudenei begira bakarrik amore emango lukeela, eta zerrenda beharrezkoenetara mugatuz.

Eritzi asko agertu dira, esan bezala eztabaidarako prestatuak ziren txosten hauen irakurketaren ondoren. Jardunaldien agirian emango da denen berri.

Txostena

Larraun-Lekunberriko Jardunaldietan, urriaren 24 eta 25ean, Hiztegitigintza batzordeak *Euskal Lexiko Berrikuntza* egindako lanean oinarriturik, P. Altuna, I. Sarasola eta M. Zalbide hirukoteak Euskaltzaindiak eskatutako erabakigiaia aurkeztu zuten azaroaren 30eko batzarrean. Orduko oharrak jaso ondoren azken proposamena aurkeztu da gaur, Euskaltzaindiak erabakia har dezan. Izenburua: "Lexiko-berrikuntza eta bilketa-lana bideratzea". Atal nagusi hauek ditu txostenak: 1) Abiaburuak. 2) Oinarrizko erizpideak, eta 3) Ihardupidea. Azken puntu honetan, zer, nola eta nork bildu, mugatzen da, hala nola lanaren epea. Euskaltzaindiari lanaren gidaritzza besterik ez zaio eskatzen, taldeek beren aldetik lortu beharko dutelarik finantziabidea.

Horrela onartu da, Euskaltzaindiak bere arduradunak izendatzekotan.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi,
Idazkaria

1987-II-27

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko batzar aretoan, 1987ko otsailaren 27an arratsaldeko hiru t'erdietan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilera. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxeleña, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. Goizeko bilkuran E. Knörr ere egon da. J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, M. Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, J. M. Velez de Mendizabal, M. Zalbide, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Intzako Damaso aita zenaren hutsunea betetzeko bigarren iragarpenaren barruan aurkezpenak egiteko epea gaur amaitzen dela aditzera eman du Euskaltzainburuak. Hiru hautagairen proposamenak ekarri dira: F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, J. Apezetxea aurkeztu dute. P. Altuna, E. Knörr eta P. Salaburuk, P. Goenagaren izena eman dute; eta J. L. Davant, A. Irigoyen eta F. Krutwig euskaltzainek P. Zabaletari eman diote beren babesa. Datorren hileko batzarrean egingo da hiruen arteko bozketa. Hautapen honi dagokionez, Nafarrokoa ez den beste norbait aurkezteko irtenbidea aipatu zuen aurreko agirian L. Mitxelenak. Eritzi hau agirian jasotzea eskatu omen zuela bere aldetik aditzera eman du gaur E. Knörr jaunak.

Lexiko berrikuntza eta bilketa lanari buruz, Euskaltzaindiaren gidaritza batzordeñorako izenak ekartzeko gelditu zen orain arte arduratu den taldea. M. Zalbidek gaur irakurritako txostenean hamabi izen aipatzen dira. J. Haritschelhar buru dela, eta M. Zalbide bera ere sartuz onartu da proposamena. Beroriei adierazi behar zaie orain eta baietza ematen dutenekin zehaztuko da delako batzordeñoa. Orduan emango da bakoitzaren izena.

Barne Jardunaldiak. Martxoaren 27, 28 eta 29an Lapurdiko Angelun egitekoak diren Barne Jardunaldiez mintzatu dira euskaltzainak. Orain arte egindako

hiru Barne Jardunaldiak aipatu ondoren, oraiko honen helburu nagusiak azpimarratu ditu euskaltzainburuak: 1) Batzorde berritzea. 2) IKER eta JAGON Sailburuen izendapena. 3) Urgazle izendapenik egin behar den aztertu, eta 4) Osoko batzarrearen eta Zuzendaritzaren eginkizunen esparrua mugatzea. Jardunaldi hauen emaitza, aztergaiak ongi finkatuta eramanez oparoa izan daitekeen neurrian, galduko litzatekeela zehaztasun gutxiko ildotik jarraituz, aipatu du L. Villasantek. Zentzu berean burututako ohar idatzi bat banatu du E. Knörr jaunak. Angelun aurkeztuko diren lanak eta oharrak idatzita aurkeztea eskatu du eta material hori partaide bakoitzak aurrez eskuratzea. Epe kontua da arazoa. Nola nahi ere, lehen epe batean martxoaren 12 baino lehen jaso beharko dira aztergaiak Bilbon, gero aburuak batu eta bigarren aldian bakoitzari helarazteko. Norberaren azken oharrak Lapurdira idatzita eraman daitezke. Batzorde idazkariei gutun bana igorriko zaie azken urteko ekintzen eta datorrenerako asmoen zirriborroa aipaturiko lehen epean egin dezaten.

Unamunoren Adiskideen Elkargoak iaz eratutako idazlanen sariketarako epai-mahaikide bat eskatu du. J. San Martin izendatu da.

Euskal toponimiako izen jatorrak erabili nahian, Euskal Irratiak mendateen zerrenda bat igorri du eta Euskaltzaindiaren eritzia eskatzen du. Toponimia batzordeko idazkaria den J. L. Lizundiak erantzungo dio.

Eusko Jaurlaritzak Bergaran daukan mikrofilmategitik Euskaltzaindiko zenbait material mikrofilmatzeko eskaria jaso da. Baimena ematea erabaki da, kopia bat geuretzat uztekoan. Norbaitek berfilmatu nahi baditu baimena eskatuko dio Euskaltzaindiari eta, behar ordu batean, euskaltzainek sarrera izan dezaten material horietara, eskatzen da.

Artxibu pribatu baliagarriak ere badela eta, euskaltzainek entzutea dutenen berri emateko prest legozkeela aditzera emango zaie.

J. H. Iriart-Urruty Lafitte euskaltzain ohiaren liburu eta paper bildumaz mintzatu da. Baionako Elizbarrutiari utzi bazizkion ere, edozeinek ongi baliatzeko eran antola daitezen, jabegoa galdu gabe Baionako Udalaren esku uzteko asmotan dabilta.

T. Monzonen liburutegia aipatu da azkenik. Zabalkunde gutxiko gauzak badirelarik bertan, ikusteko baimena edota mikrofilmatzeko oneritzia lortzeko urratsen bat ematea beharrezkoa ikusten da. J. San Martin eta J. M. Satrustegi haren alarguntsarekin mintzatzera joateko gelditu dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Oxforden "Saint Antony's College"-erako Bisitari Ikerle batentzat eratu duen bekaren berri eman da gero.

Nafarroako Gobernuak herri euskaldunen euskal idazkera zehazteko Euskaltzaindiari zuzendu dion eskaria irakurri du Nafarroako ordezkariak. Ekintza horretan dauzkagun hutsuneak betetzen joateko J. M. Jimeno Juriori, bere lanari dagokion dirulaguntzaren bidez, zerrendak egiten joateko eskatzea onartu dute batzartuek. Nola nahi ere, Nafarroako euskaltzainak eta J. L. Lizundia bilduko dira egunen batez berarekin Iruñeko ordezkaritzan.

Batzordeen azalpenak

Onomastika. J. L. Lizundia batzorde idazkariak E. Knörr batzorde-buruaren ordeztu joan den asteartean Bilbon egindako bilkuraren berri eman du. Onomastikako II. Jardunaldien egitaraua zehaztu eta urriaren 10, 11 eta 12an egingo direla, erabaki zuten. J. M. Jimeno Jurioren *Encuesta Toponomástica* eta J. B. Orpustaneren *Guide Toponymique du Pays Basque* argitaratzea erabaki zela ere esan du, beste zenbait eskuartekoren artean.

Gramatika. P. Altuna batzordeburuak esan duenez, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II* liburukia argitaratzeko prest dago. Maiatzaren azken aldean Eibar-Arraten egitekoak diren Gramatika Jardunaldietan aurkeztuko omen zaie euskaltzainei, irailean kaleratzeko asmoz.

Txostena

J. M. Velez de Mendizabalek irakurri duen txostenean Felipe Arrese Beitiak 1900ean idatzitako bertsu batzuren berri eman du. Arrasateko Joxe Letonaren paperetan aurkitutako hitz neurtuok, Juan Franzisko Maria Imaz adiskide maite zuen apaiz jaunari bere meza barriko egunean eskaini zizkion olerkariak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi,
Idazkaria

1987-III-28

Lapurdi-Angeluko “Village Vacances Familles” egoitzan egin du Euskaltzaindiak, bi urtetik behingo Barne Jardunaldiak batera, hileroko bere batzarrea. Martxoaren 28an eguerdi ondoko ordubi t’erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak, J. M. Satrustegi idazkari dela. Bertan egon da J. L. Lizundia idazkariordea ere.

P. Altuna, J. M. Barandiaran, X. Diharce, E. Erkiaga, J. Gorostiaga, A. Labayen, P. Larzabal, M. Lekuona eta L. Mitxelena jaunek, ezin etorria adierazi dute.

Aurreko batzar –agiria dela– eta zuzenketa batzu eskatu ditu E. Knörr jaunak:

1. Abenduko agiriari urtarrilean berak egindako oharrean, idazki hura gutuna zela ez dela esaten otsailekoan, “buruan oso garbi Aita Villasanteren izena” eraman arren. Berez horrela egin ohi direla beti Euskaltzaindiari zuzendutako eskariak, erantzun dio idazkariak, eta euskaltzain guziei batzarrean bertan gutungileak banatutako ale baten bidez heldu zitzaion idazkariari. Ofizialki, beraz.

2. Otsailekoarekin jarraituz, “eritzi hau agirian jasotzea eskatu omen zuela”, aditzera ematen da. Esaldi horretan *omen* hitza kentzea eskatu du orain E. Knörr jaunak. Idazkariak erantzun dio, agiriak berak egiten dituela eta entzun ez zuenaren aitortzarik ezin duela egin. Hara zergatik “omen” eransgailuaz osatu duen agiria.

3. Gramatika forma baten erabilpenaz da hirugarren oharra. *Jardunaldietaz* ez baino, *jardunaldiez* behar lukeela, alegia. Eztabaida sortu du salaketa honek. Hain zuzen ere, bi aldiz behintzat aztertu da arazoa Euskaltzaindian, eta behin alde batera eta bestean bestera azaldu ziren eritziak. Eta gramatikariaren aholkuez bestalde, ezin uka forma biak direla herri mintzairan oinarritzen.

Horrela onartu da aurreko agiria.

Euskaltzain hautapena

Intzako Damaso aita zenaren hutsunea betetzeko bigarren epealdiaren ondoreko bozketa egin da gero euskaltzainen artean. Hiru ziren aurkeztutako hautagaiak: J. Apezetxea, P. Goenaga eta P. Zabaleta. Batzartutako hamalau euskaltzainez bestalde, ezin etorria adierazi duten beste bederatzien botuak ere jaso dira, hogeita hiruen berezko kopurua osotuz. A. Labayen eta L. Mitxelenak euskaltzainburuari bidali diote bozkatzeko ahalmena. J. Gorostiagak aldiz, L. Villasante eta E. Knörri eman die berea eta azken data zeramana onartu da, E. Knörrek zuena alegia. J. M. Barandiaranek ere E. Knörri eskuratu dio botza. J. San Martinek, P. Altuna eta M. Lekuonaren ahalmenak jaso ditu, A. Irigoyenek E. Erkiagarena, P. Charrittonek P. Larzabalena eta E. Larrek X. Diharcerena. J. Gorostiagaren bi txartelak balio gabe uztea eskatu du idazkariak, baina azken dataren eritzia jabetu da, esan bezala.

A. Labayen jaunak bidalitako eskaintzak sortu ditu hurrengo istiluak. Gutun horrek, alegia, J. Apezetxearen aldeko asmoa agertu bai, baina erredakzio aldetik ez zuela boterea garbi ematen, esan da. Hori dela-eta, baztertu egin da bere izena.

Era horretan, hogeita bi euskaltzainen txartelek in egin dira bozketak. Lehen itzulian, P. Zabaletak 12 izan ditu, J. Apezetxeak 10, eta P. Goenagak O. Gehien-goa lortu duenez, P. Zabaleta izendatu da euskaltzain.

V. Barne Jardunaldiak

Bezpera egun osoan, martxoak 27, eta 28 honetan eguerdira arte, batzordeen azalpen eta berriztapenak gaitzat harturik, *V. Barne Jardunaldiak* egin ditu toki berean Euskaltzaindiak. Dagokien agirian azalduko dira batzordeen zerrendak; baina bada bat, "Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa" egingo duen taldea, alegia, otsaileko batzarrean aipatu bazen ere, baieztapenaren zain agirian sartu ez zena. Erantzunak jaso ondoren, honela gelditu da batzorde suntsikor hau: J. Haritschelhar, buru; C. Harlouxet, J. Iturbe, J. M. Larrarte, M. Lasa, E. Oregi, L. Otaegi, A. Sagarna, J. San Martin, I. Sarasola, A. Urrutia eta M. Zalbide.

Aurtengo Barne Jardunetan aztergai agertutako arazo garrantzitsuenetako bat, osoko bilkura, Euskaltzainburugoa eta Zuzendaritzaren esparru mugaketa eta zereginen banaketarako aurre-asmoa aurkeztea izan da. Euskaltzainburuaren aginduz J. L. Lizundia idazkariordeak erregela berezi batzuren aurre-asmoa irakurri du. Aspaldiko kezka bati erantzun nahi zaio horrekin.

J. San Martin diruzainak, bere aldetik, bulego lanen ber-antolatze eta orde-nagailuen bidez lanaren emankortasuna gaurkotzearen asmoa azaldu du. Bide horretatik, A. Irigoyen euskaltzainak idatzitako txosten bat ere eskuratu dute batzartuek. Gaia interesgarria dela ikusi da behintzat. Aurrera inolako urratsik eman aurretik gure beharren zehaztapena eta tresna horietan ikasiak direnen aholkua beharko da. Bide horretatik aurre-lanak egiten joatea eskatu zaio diruzainari.

Kargudunek ez dutela euren ekintzen txostenik aurkeztu Barne Jardunaldi hauetara, esan du aipaturiko idazkiaren bidez E. Knörr jaunak. Egun hauetan hemen agertutako bide berrien abiapuntuak eta kezka zaharrak ezeztatze pro-

posatu diren aldagetak, erregela berezien zirriborroa barne dela, zerbait dateekela esan zaio. P. Salaburuk dio orduan, kargudun bakoitzak berea ere ekarri beharko lukeela hurrengoan. J. Haritschelhar euskaltzain buruordeak erantzun die, Zuzendaritzaren lana elkarren artekoa izango dela edo 'kolejiatua', esan ohi den bezala, eta bere aurkezpena era berean egingo dela.

Euskaltzainburugoko karguak

Zuzendaritzako karguekin batera berriztatu ohi dira Sailburu eta ordezkariak ere. Hori dela-eta, Iker Sailburu K. Mitxelena izendatu da, eta Jagón Sailburu J. San Martín. P. Charritton izango da Baionako ordezkari, J. San Martín Donostia-koa, E. Knörr Gasteizkoa eta J. M. Satrustegi Iruñekoa.

Prentsarekiko hartu-emanen arduraduna Zuzendaritzak izendatuko du.

Urgazleen izendapenak

Euskaltzaindiko urgazleen izendapen berririk egitea komeni den eztabaidatu da ondoren. Ugaltzerik ez da nahi, baina batzordeetan lanean ari direnen artean-edo izendapen batzu egin beharra ikusten da. Maiatzeko batzarrera ekarriko dira bina euskaltzainek izenpeturiko proposamenak eta txosten bat idaztea eskatuko zaie izendatuei.

Eskuarteko gaiak

Iruñeko Auzitegi nagusitik itzultzaile baten eskaria jaso da. Orain arte horrelakoetan egindakoari jarraituz, ez dela gure egitekoa erantzungo zaio.

"Llingua Asturiana"-ko gutun bat jaso da Gregorio Salvador Caja akademilararen agerpen batzuren berri emanez. Espainiako Erret Akademiari idatziko zaio zuzenean kezka berri emanez.

Batzorde guziek 1988rako aurre-kontuak maiatzeko batzarrea baino lehen ekarri behar dituztela, esan da, ekonomi arduradunek txosten orokorra ekainean aurkezteko.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

1983-III-29

ESKUALDUNAREN mendeurrena - batzar irekia

Baionako Euskal Erakustokian, 1987.eko martxoaren 29an, ospatu da *Eskualduna* aldizkariaren mendeurrenkari, Euskaltzaindiaren batzar irekia. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. M.^a Satrustegi idazkaria, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, F. Ondarra eta J. San Martin, euskaltzainak; J. A. Arana, P. Arregi, R. Badiola, R. Canblong, J. B. Dirassar, J. Intxausti, J. M.^a Iriondo, M. Itçaina, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, B. Oyhartzabal, J. M.^a Torrealdei, M. Ugalde, X. Videgain eta J. J. Zearreta.

Lehendabizi, L. Villasante Euskaltzainburuak, agurrezko hitz batzu esan ditu. Euskaltzaindiak, Euskal Herrian zehar, honelako bilkurak egiten dituela azpimarratuz. Aurreko bi egunetan, Angelu, ondoko herrian, bere *V. Barne Jardunaldiak* egin dituela adieraziz.

Ondoren, P. Charritton euskaltzaina, “*Eskualdunaren historia*” izeneko gaiaz mintzatu da. Aldizkariaren eboluzioaz, izan zituen zuzendariez eta inguruko gertakizunez, aipamen ugari eta zehatz eman ditu.

Jarraian, M. Ugalde euskaltzain urgazleak, “Kazetari euskaldun baten esperientziak” izeneko txostena irakurri du. Euskal kazetaritza, bere kontestuan jarri-rik, lan interesgarria suertatu da.

Laugarrenik, L. A. Aranberri “Amatiño” jauna mintzatu da. Bere txostena “Euskal prentsa idatzia, ehun urtetan loratu ez den lanbidea” izenekoa, egungo kazetarien egoera *Eskualduna* aldizkaria sortu zenetik harrezkero izan diren gora-beherak kontutan izanik, erraz ulertzeko moduan utzi ditu.

Segidan, J. M.^a Iriondo euskaltzain urgazleak, “Irrati-telebistaren lekukotasuna” izeneko bere txostena irakurri du. Audiobisual komunikabideak, euskal prentsan orohar, izan duen eragina argitu du.

Azkenik, P. Charritton euskaltzainak, IKER 4 *Resurrección M.^a de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa* izeneko liburua kaleratu dela aditzera eman du. Argitalpen hau berak paratu du eta egun batzu barru, Bizkaiko Diputazioan aurkeztuko dela iragarri du, Foru Erakunde honek babestu bait du.

Eta besterik gabe amaitu da *Eskualduna* aldizkariaren goratarrea.

1987-IV-24

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1987ko apirilaren 24ean egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Goizeko 10 t'erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Charriton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea eta P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

P. Salaburuk bertan banatutako izkribu baten bidez, batzar-agiriari egindako oharra jasotzeko modua gaitzetsi du, prozedura bitxia eta ez-arrunta dela esanez. Martxoko agiriari dagokionez, hasierako 3. oharra beste era batera esan behar litzatekeela, bere ustez, eta lerro horien aldaketa idatzia aurkeztu du. Proposamena eztabaidatu ondoren ez da adostasunik lortu eta zegoen-zegoenean geratu da.

E. Knörrek ahoz egindako bi eskari bertan jasota onartu da agiria.

Barne ibilpideen Erregela bereziak

Deiari jarraituz, Angelun aurkezturiko "Barne Ibilpideen Erregela berezien" zirriborroa aurkeztu da lehenik. A. Irigoyen eta F. Krutwig euskaltzainek, zuzenketa batzu proposatu dituzte. Beren ustez, Bizkaiko ordezkari bat izendatu behar-ko litzateke Euskaltzainburugorako. J. Haritschelharrek arazoa mahai gainean uztea eskatu du hurrengorako, berak proposamen bat ekarriko duelarik.

Euskaltzaindia Iparraldean

Iparraldean Euskaltzaindia legeztatzeko asmoz Frantziako agintariei bidali nahi den eskaria irakurri du J. Haritschelhar euskaltzain buruordeak. Horren arabera, "Association Académie de la Langue Basque, Euskaltzaindia" delako honek ez du izango, noski, Hegoaldekoaren legezko indarririk, asoziazio mailan

sartuko baita eta ez instituziotan. Baina halare, legez onartutako zerbait izaten hasiko da, orain ez bezala, esan du aurkezleak.

Pundu nagusienei buruz, partaide guziek izango dutela botua, azpimarratu du, Zuzendaritzako hiru arduradunak euskaltzain osoak izango badira ere. Orain arte bezala, Baionako Euskal Erakustokian bilduko da eta, bada ezpada, Hegoaldean aspaldidanik ofiziala den Euskaltzaindiaren aldaska edo adarra dela, espreski aipatzen da eskarian. Izan ere, Euskaltzaindiaren Arautegia hitzez-hitz hartzen da, legezko gehigarri batzurekin.

Atseginez ikusi du Euskaltzaindiak asmo berri hau.

Gramatika Jardunaldiak

Gramatika batzordeko idazkari den P. Goenagak, maiatzaren 29an Eibarren egitekoak diren Jardunaldien aurre-egitarauaren berri eman du. Berez egun bateko ekintzak izango direla esan ondoren lau saio aipatu ditu. Txostenlariak izendatu gabe daude eta liburukiak bi izango dira: Lehengoaren jarraipena, alde batetik, eta aditzaren lan mardula bestetik.

Aurkezpena, Iruñean egindakoaren antzera egingo da. Hogeitabat minutu edo ordu erdiko azalpena izango da gehienaz ere. Jardunaldiok ez dira irekiak eta, beraz, gomitak banatuko dira. Euskaltzainez bestalde, batzorde idazkari eta gai horrezaz arduratzen direnak joan daitezke. Gramatika batzordearen esku utzi da gomitak zehazteko ardura.

T. Etxebarriaren mendeurrena

Datorren hileko batzarrea, Toribio Etxebarria zenaren mendeurrena ospatuz Eibarren egingo du Euskaltzaindiak. Ostirale arratsaldean egitea eskatu dute zenbait euskaltzainek, beraz, maiatzaren 29an. Txostenak eramateko gai litezkeen pertsona batzu aipatu dira, baina Udalak urtean zehar bere ekintzak antolatuko dituenek, Euskaltzaindiak bere omenaldia hizlari bat edo birekin mugatzea onartu da.

Egun horietan, bestalde, batzordeburu eta idazkariekin bilkura bat egingo da datorren urteko aurrekontuen kopurua zehazteko. Horrela diruzaintzak ekaineko bilera aurkez ditzake 1988ko ekintzen aurrekontuak.

Eskuarteko gaiak

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsital Eskolatik gutun bat jaso da, Bizkaieraren Gaitasun Agiriaren epaimahairako ordezkaria eskatzen. Juan Luis Goikoetxea Arrieta izendatu da.

Era berean, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak literatura unibertsaleko lan garrantzitsuen itzulpenentzat sortu berria duen "Orixe sarirako" epai mahaikide bat eskatu du. P. Salaburu izendatu da.

Montzonen liburutegia dela-eta Euskaltzaindiaren aginduz Donibane Lohizun-
nen egindako gestioen berri eman dute J. San Martin eta J. M. Satrustegik.
Harrera ezin hobea izan dute alarguntsaren aldetik eta abuztuan egingo da liburu
guzien zerrenda. Interesgarrien fotokopiatzeko baimena ere inolako eragozpe-
nik gabe eman zuen.

Ardanza Lehendakariaren ikusten izan da Zuzendaritza eta erabilitako gaien
aipamen laburra egin da.

EITB-ko arduradunen euskara jakin beharraz mintzatu da P. Charritton.
Aholku Kontseilua sortzeko eskaria egingo da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Dr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi,
Idazkaria

1987-IV-24

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1987.eko Apirilaren 24ean, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko arratsaldeko batzarrea, 4 t'erdietan bildu dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi, euskaltzainak; J. A. Arana Martija, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, J. Estornes Lasa, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. M.^a Etxebarria, J. L. Lizundia, J. A. Loidi eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak. J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunak, ezin etorria adierazi dute.

a) **Goizeko bilkuraren berri.** Idazkariak goizeko osoko bilkuran tratatutako gaien kontu ematen du. Laburbilduz:

— Barne Ibilpideari buruzko Erregela Berezien aurkezpena egin da.

— Euskaltzaindiaren statusa Iparraldean, elkarte bezala legeztatuz onartu da.

— **Izendapenak.** Bizkaiko Irakaslegoaren Eskolako epaimahairako, Juan Luis Goikoetxea; Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren Itzulpen sariketarako, Pello Salaburu.

b) **Dagozkien batzordeen azalpena**

— Gramatika Jardunaldiak Arraten eta Toribio Etxebarriaren mendeurrena, Eibarko Udaletxean, nola eta zer egitaraurekin, Maiatzaren 29 eta 30ean, egingo diren zehaztu da.

— Onomastika Batzordearen bilera, gaur bertan, arratsaldeko 5 t'erdietan izango dela adierazi da.

d) “Cadizko Konstituzioa euskaraz” izeneko txostena irakurri du Juan San Martin jaunak. Ezagutzen ez zen lan honen berri eta iturriak ematen ditu, euskararen lekukotasunerako duen garrantzia azpimarratuz.

Ondoren, zenbait erizpide eztabaidatu dira.

e) “Allendesalazarren *Biblioteca del Bascófilo*ren mendeurrena. Lehen euskal bibliografia” tituludun txostena irakurri du Jose Antonio Arana Martija jaunak. Zehaztasun ugariekin hornitu du azterlan hau.

Gai honi buruzko elkarrizketa baten ondoren, amaitu da batzarrea.

1987-V-30

Eibar-Arraten, 1987ko maiatzaren 30ean, goizeko hamaika t'erdietan egin du Euskaltzaindiak osoko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi P. Zabaleta eta A. Zavala, euskaltzainak; J. L. Lizundia, idazkariordea, J. M. Satrustegi idazkari delarik.

Honen aurretik beste bilkura bat egin da, datorren urteko lan-programa eta aurrekontuak orokorki aztertzeko, eta aipaturiko euskaltzainekin batera, honako beste lankideok egon dira: P. Goenaga, Gramatika batzordeko idazkaria; X. Videgain, Dialektologiakoa; J. L. Lizundia, Onomastikakoa; J. M. Etxezarreta, Herri Literaturakoa; J. A. Arana, Azkue Bibliotekakoa; R. Badiola, Argitalpenetako eta Hiztegi batzordeko idazkariordea, M. Zalbide idazkariaren izenean; eta J. J. Zearreta, Ekonomi batzordekoa.

Bezperan Gramatika Jardunaldiak egin ziren eta bertan parte hartu zutenen zerrenda egun horretako agirian agertuko da.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

Durango ebakerazko Jardunaldien ondoren, iazko maiatzaren 29an, onartutako adierazpenean E. Knörr jaunak aurkeztutako pasarte bat hitzez-hitz jaso zela adierazi du berak, argitaratzean iturria aipatzea eskatuz. Zuzendaritzak jaso zuen aurretik eskari hau eta bere eritzia azaldu du. Adierazpenaren puntuak, berez, aski zabalduak ziren eta Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak, bakarka ez baino, elkartuta hartzen direnez, ez duela iduri horrelako aipamenak egin behar direnik, esan da. Nola nahi ere, hemen esandakoarekin jaso da haren lekukotasuna.

B. Oyharçabal jaunari zorionak eman zaizkio lortu berria duen doktoradutzagatik.

Barne Ibilpideen Erregela Bereziak

Apirileko batzarrean esan zenez, Barne Ibilpideen Erregela Bereziak eztabaidatzeko proposamen berria aurkeztu du J. Haritschelharrek. Bere muina, *Euskaltzainburugoa* bera eta zirriborroan zegozkion aipamenak Erregela Berezietatik kentzea da, *Zuzendaritza* bakarrik aipatuz.

A. Irigoyen eta F. Krutwig euskaltzainek Barne Erregelatako 35. artikulua ere aldatzea eskatu dute, Zuzendaritza lau kargudunekin utziz idazkari-ordearen aipamenik gabe.

Proposamen biak funtsean batera datoz eta Euskaltzainburugoaren aipamena desagertzea aho batez onartu da. Idazkari-ordea agertu ala ez testuan, izan da desberdintasun bakarra. Bozkatu ondoren, 11 *bai* eta 2 *ez* atera dira. Horrela ontzat eman da idazkariordearen aipamena.

Erregela Berezieta 35. artikuluari dagokionez, Loiolako batzarrearen aurreko testu zaharra hitzez-hitz berreskuratu ala honen antzeko gaur proposatua jaso, eztabaidatu da gero. Testu zaharra onartu da, euskarazko erredakzioa oinarri dela. P. Zabaletaren oharra kontuan harturik, erdal testuan “también” hitza gehituko da. Honela, beraz:

“35. Kontseilu baten eskuan egonen da etxebarneko gobernu edo manaiua. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaz da osatua Kontseilu hau; eta obratze hutsezko gauzetan, Idazkari-Ordeaz ere bai.”

“35. El gobierno interior estará a cargo de un Consejo formado por la Junta de Gobierno de la Academia, y, para lo puramente ejecutivo, también por el Vicesecretario.”

Bilboko ordezkariatzaz

A. Irigoyen eta F. Krutwig jaunek bigarren eskari bat ere zuzendu diote Euskaltzaindiari izkribu berean. Beste lurraldeetan bezalaxe, euskaltzain baten ardurapean egongo den ordezkariatza behar dela Bilbon, ikusten dute. Zuzendaritza pertsonak Bizkaitik kanpo bizi direnez, lurralde hau gutxiesten duela Euskaltzaindiak bulegoko langileen esku utziz arazoa.

L. Villasantek, Euskaltzaindiaren Arautegian oinarrituz, Bilboko egoitzako arduraduna bera dela esan du, eta han ez dela beste ordezkaririk behar. Beste gauza askoren artean, Bilbon ordezkaria izendatzea euskaltzainburuari dagokiola ere aipatu da, eta bi puntu nagusi hauetan norbaitek zalantzarik baduen galdetu du idazkariak. Aurkako eritzirik ezean ontzat eman da orain arte bezala jarraitzea.

LEF.ko VI. Jardunaldiak

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VI. jardunaldien berri eman da gero. M. Zalbide, batzorde idazkariak, ezin etorria adierazi du eta R. Badiola idazkariordeak egin ditu azalpenak. Jardunaldi hauek Zarautzen egingo dira datorren ekainaren 19 eta 20ean, Bestaberri ondoko zubia baliatuz. Gaiak nahiz hauen aurkezleak izendaturik daude. Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea, ahal delarik behintzat, larunbaterako utzi gabe beti ostiralean egitea eskatu du P. Salaburuk batzartuen adostasunarekin. Aintzat hartzen da eskaria.

Batzordeen aurre-kontuak

Arraten bertan goizean egindako bilkuran 1988. urterako egitasmo eta aurre-kontuen berri eman dute, banan-bana, batzorde guziek. Dagokion agirian eman-gu da bakoitzaren laburpena.

Zuzendaritza eta eskuartekoak

Eusko Legebiltzarreko idazkariaren gutuna jaso da itzultzaile bat hautatuko duen epaimahairako ordezkari bat eskatzen. X. Mendiguren izendatu da.

Zuzendaritzak azken bileran egindako izendapen baten berri eman du. Euskal Letren Merezimenduzkoen epaimahairako ordezkaria eskatu zitzaion, eta K. Mitxelenaren izena eman zuen, Yon Etxaide ordezkari dela.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Euskara Arazoetarako Zuzendaritzatik, euskarazko literatur lanak sortarazteko diru-laguntzak banatuko dituen epaimahairako ordezkaria eskatzen beste gutun bat jaso da. J. L. Goikoe-txea joango da.

II. Euskal Mundu Biltzarrekin batera egin nahi den erakusketan arduradunekin harremanak izateko Euskaltzaindiaren izenean J. A. Arana Martija izendatzea eskatu dute. Horrela onartu da.

Salamanca Unibertsitateak Antonio Llorente Maldonado de Guevara, *emérito* izendatu nahi du, eta Euskaltzaindiari ere asmo horren aldeko oneritzia agertzea eskatzen dio. Babes gutun bat bidaliko da.

Hizkuntz Politikarako Idazkari den M. Karmen Garmendiak, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* jarraipen batzordea datorren ekainaren 4ean biltzeko deia egin du. J. San Martinek emango du Euskaltzaindiaren aldetik azken aldi honetan izandako harremanen berri.

Adierazpengai bat ekarri du E. Knörr jaunak bi zatitan banatua. Erdaraz nekez ari diren euskaldunak euskaraz jardutearen alde Auzitegi Konstituzionalak hartu berri duen erabakiaz poza agertzeko, alde batetik; eta ekainaren 10eko hauteskunde txartelak Nafarroa osoan euskaraz ez zabaltzearen zikoiztasuna salatze, bestetik. Zehaztapen batzurekin onartu da.

A. Irigoyen jaunak Plaza Barriko egoitzari buruz arkitektoek egindako azterlanaren berri eman du. Bi irtenbide nagusi ikusten dira: bere egitura berriztatzea; edo kanpoko horma nagusiak utzita barnea hustu eta berritik egitea. Euskaltzaindiaren aldetik ez dago inolako eragozpenik hustutzeko.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi,
Idazkaria

1987-VI-19

Zarauzko 'Sanzenea' Kultur-etxean, 1987ko ekainaren 19an, goizeko hamaika t'erdietan egin du Euskaltzaindiak osoko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi, euskaltzainak, eta J. L. Lizundia idazkariordea.

Ezin etorria adierazi dute, P. Charritton, X. Diharce, E. Knörr, P. Salaburu eta A. Zavala jaunek.

Maiatzeko batzar-agiria onartu da.

Zarauzko hiriaren 750. sorrera urteurrena delako ospakizunen egitarauan sartu ditu Euskaltzaindiak gaur goizean hasitako Lexikologi Eripideak Finkatzeko VI. Jardunaldiak. Dagokien agirian emango da berorien berri.

Ohorezko eta urgazle berriei

Bezpera arratsean bildu zen Zuzendaritza Zarauzko frantziskotarren komentuan euskaltzain ohorezko eta urgazle berrien izendapenez mintzatzeko. Izen batzu aipatu ondoren, Pedro Yrizar eta Jon Bilbao euskaltzain ohorezkotzat batzarreari proposatzea komenigarri ikusten zuten, eta horrela egin da. Batzarrean berraipatu dira, atzo bezala, zenbait izen ospetsu. Azken aldi honetan zendutako euskaltzain ohorezkoak bi direla ere esan da, Zuzendaritzaren proposamena azkenean ontzat emanez.

Urgazleen arazoa ukitu da gero. Batzordeetan lan egiten duten laguntzaileen zerrenda banatu da batzartuen artean. Eritzi eta helburu nagusien finkatzeko eztabaida sortu da berehala. Euskaraz mintzatzeari eman zaio garrantzi berezia. Jakina da, hala ere, onomastika arloan badela euskararik ez dakien ikerle ospetsurik eta hori kontutan hartzea bidezko dirudi, han entzundakoen arabera. Oraikoz, izenen azalpena bakarrik egin da, datorren hileko batzarrean bozkatuko direlarik bina euskaltzainek izenpetutako proposamenak.

Orotariko Euskal Hiztegia

Eusko Jaurilaritzan Hizkuntz Politikarako idazkaria den Mari Karmen Garmendiak, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* batzordeari buruz adierazpen batzu egin

dizkio Euskaltzaindiari. Kezka bizia agertzen du arduradun eragilearen lan aldatzeko asmo-azalpenaz, OEHren prestakuntzaren etorkizuna kinka larrian utz dezakeelakoan.

Konponbide egokiak berehala aurkitzeko gogoarekin, honako eskari zehatzok azaltzen dizkio Euskaltzaindiari: a) OEHren lan desberdinak zein egoeratan dauden beharrezko zehaztasunez oraintxe aztertzea. Eta horren ondorez, bigarren liburukia esandako fexkatan amaitzeko neurriak hartzea. b) Orain artean arduradun eragile izandakoaren hutsunea betetzeko soluziobidea berehala aurkitzea.

Hain funtsezkoak diren puntu horiek behar bezala bideratu arte ezinezkoa ikusten du hitzarmenaren berritzea, alde batetik, eta Nafarroako agintariekiko harremanak burutzea.

Herri Agintek agertu duten joera baikorra eta zabala dela arazo honetan azpimarratu ondoren, herri-diruarekiko beharrezkoak diren garrantia eta kontrol neurriak gogora eraziz, amaitzen du gutuna.

Gaiaren garrantziagatik, horrezaz bakarrik jarduteko batzarre berezi bat egitea erabaki da, eguna datorren ekainaren 3an izango delarik.

Batzordeen berri

Argitalpen batzordeak bere azken bileran gomendatutako hartu-emanen ondoren Nafarroako Gobernuak J. M. Jimeno Jurio jaunaren *Toponimia de Galar* liburua argitaratzeko laguntza eman du, aurkeztutako edizio-kostu merkeenaren % 50 bere gain hartuz. 80 ale eskatzen ditu beretzat.

J. Haritschelhar buruordeak esan du, horrela amaitutzat ematen dela kasu honetan Nafarroako ordezkariari eskatutako gestioa. Egileak berak zuzenduko ditu probak eta E. Knörr Onomastika batzorde buruak ikusi. R. Badiola arduratuko da inprentako arazoez, eta Ekonomi batzordea diru kontuei dagokienez. Aho batez onartu du batzarreak proposamen hau.

Literatura. Herri-literaturako batzordeburu den A. Zavalak etortzerik izan ez duelarik, A. Irigoyenek aurkeztu du bi lehiaketa berriren proposamena: "Xenpelar saria", bertso paperentzat; eta "Fernando Amezketarra saria", humorezko sorketa lanentzat, hala nola izkirimiri, ateraldi-xelebre eta txiste bildumentzat.

Arlo bakoitzean hiru sari eskaintzen dira, 100.000, 75.000, eta 50.000 pezeta-koak. Datorren azaroaren 15ean amaituko da lanak aurkezteko epea.

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak ohorezko bazkide izendatu ditu: A. Irigoyen, M. Lekuona, eta A. Zavala, euskaltzainak; I. Eizmendi, euskaltzain ohorezkoa; eta X. Amuriza, euskaltzain urgazlea. Ohore bera izan du S. Lizaso bertsolariak. Denei zorionak.

Eguno Euskararen Bilketa Sistematikoa eskuartearen daraman batzordearen egitasmoak azaldu ditu M. Zalbide jaunak. Gaur egun idazten den guzia jaso eta sailkatzeko asmoa agertu du aurkezleak. Gehiegizko kopurua gerta daitekeela, aipatu da, eta ez horregatik adierazbide hobea. Arlo mugatuagotan eta eredu zehatzak hartuz egin behar litzatekeela, edozein inkesta motatan egin ohi den eran.

Eskuarteko gaiak

Justo Garate euskaltzain ohorezkoari, "Manuel Lekuona" saria emango zaio bihar Bergaran. Zorionak emango zaizkio Euskaltzaindiaren izenean.

Manuel Lekuona oso gaixorik dagoela esan da batzarrean eta bere hurbilekoen bidez euskaltzainkideen oroitzapen eta eskumuinak bidaliko zaizkio.

Bilboko Plaza Barriko egoitza berritze asmoz mintzatu da A. Irigoyen. Eusko Jaurlaritzako Patrimonioaz arduratzen den Kultura Saileko arkitektoa, beheko bidearen aurre-lana daraman SURVISA taldeko ordezkaria eta Euskaltzaindiko batzordeñoa bere arkitektoarekin bildu ziren ekainaren 17an. Arkitektoen aldetik ez dago barne hustuketa egiteko eragozpenik eta Diputazioa bera arduratuko da baimena eskatzez.

Kultura Ministeritzatik literatur-sorketarako diru laguntzen banatzeko epai mahairako ordezkaria izendatzea eskatzen dute. F. Krutwig joango da.

Lic. Poza-ren mendeurren ospakizuna irailean Toponimiako Jardunaldiak batera egingo dela aipatu da azkenean.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi,
Idazkaria

ZARAUZKO HIRIAREN SORRERAREN 750. URTEURRENEKO OSPAKIZUNA

Ekainaren 19an, iluntzeko 8etan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordea, J. M.^a Satrustegi idazkaria, A. Irigoien, F. Krutwig, J. San Martin euskaltzainak; I. Eizmendi "Basarri", ohorezkoa; M. Atxaga, R. Badiola, J.M.^a Iriondo, A. Lertxundi, J. L. Lizundia, P. Uribarren, J. J. Zearreta, urgazleak.

Mahaipuruan eseri dira baita ere, Iñaki Lertxundi, Alkateordea; M.^a Karmen Garmendia, Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Xabier Aizarna, Gipuzkoako Batzar Nagusien Lehendakaria; Karmelo Iturria, frantziskotar historiagilea.

a) Iñaki Lertxundi, Zarauzko Alkateordeak bere ongietorriarekin batzarreari hasiera eman dio, azpimarratuz Zarauzko Udalarentzat ohore bat dela, urteurren hau dela eta, Akademia bertara joatea Jardunaldi eta batzarreak eginez.

b) J. M.^a Satrustegi Idazkariak, VI. Lexikologi Erizpideak Finkatzeko Jardunaldien berri eman du. Baita ere, hileroko euskaltzainen osoko bilkuraren zenbait zehaztasun, azpimarratuz Jon Bilbao eta Pedro de Yrizar jaunak euskaltzain ohorezko izendatu direla.

d) A. Karmelo Iturria jaunaren hitzaldiñoa: *Zarauzko frantziskotarren misiolari kolegioa eta euskara* izeneko txosten interesgarria irakurtzen du. Zeintzu idazle pasatu diren Zarauzko kolegiotik, azpimarratzen du hala nola: A. Pedro Antonio Añibarro, A. Juan Mateo Zabala, A. Juan Domingo Unzueta, A. Jose Kruz Etxeberria, A. Kristobal Linaza eta A. Juan Jose Salazar. Zarauzko komentua, euskal idazle ospetsuen eskuizkribuen altxor eta gordailu izan dela ere zehaztu du.

e) Andu Lertxundi jaunaren hitzaldiñoa: *Haur literatura eta testugintza, Zarauzko ikastolaren inguruan sortzen den mugimendua*.

Euskaltzain urgazle honek, gaurko Zarauzko herriaren beste emaitza bat azpimarratuz egiten du bere txostena. Zarauzko ikastolaren inguruan, euskalari eta idazle andana bat sortu dela adieraziz. Joxan Ormazabal, Juan Martin Elexpuru, Daniel Urbistondo, Axun Landa, Jesus Mari Olaizola aipatu ditu, berarekin batera euskalgintzan jardun baidute, besteak beste.

f) A. Luis Villasante jaunaren hitzaldiñoa: *Juan Mateo Zabalaren eusquerasco dotrina ta sermoiac liburuaren aurkiketaz eta edukinaz zerbait*. Zarauzko kole-

gioko azken Guardianara izan zenaren lan hau, oraintsu Bermeoko komentuan aurkitu arte ezezaguna izan da eta beraren berri zehatza ematen du, edukinaz ere zenbait puntu azalduz. Aita Zabalak hizkuntzak eskatzen dituen bide jatorrak bilatzen eta segitzen bazekiela, adierazten du Euskaltzainburuak, euskararekiko sena eta jakituria hotza nabarmentzen zaizkiolarik.

Azkenik, Iñaki Eizmendi “Basarri” euskaltzain ohorezkoak, bere bertso eder batzurekin eman dio batzarre ireki honi amaiera.

BATZAR-TXOSTENAK

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO V. JARDUNALDIAK (HITZ ELKARKETARI BURUZ 2.AK)

Plentziako Aterpetxean, 1987-I-30/31

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren sarrera-hitzak

Jaun-Andreak:

Bihoa, hasteko, Euskaltzaindiaren eskerrona eta ezagutza Bizkaiko Diputazio txit Gorenari, Jardunaldi hauek egiteko Aterpetxe hau eskaini digulako. Honelako toki baketsu eta bakartiak guztiz aproposak dira gai hauek patxadaz aztertu eta barnatzeko. Oraingoan aurreko Jardunaldiak, oroituko zareten bezala, Beloken egin ziren joan den urteko Ekainean. Hauek ere ez dira izango azkenengoak, seguraski. Gaia, hitz-elkarketa edo konposizioa, berez luzea da eta aitzingibel askoduna. Bere osotasunean inguratzeko, denbora pixka bat eramango digu, nik uste.

Lexiko-berrikuntzari buruzko arazoak gaur Euskaltzaindiari ardura gehien ematen diotenetakoak dira, zalantza gabe. Eta arrazoia garbi dago. Gaur euskarari supituki aurkeztu zaizkio orain arte egundaino izan ez dituen bezalako aukerak. Orain arte harentzat debeku ziren esparruak zabaldu zaizkio, alegia. Eta euskarak egoera berri honi aurpegi eman behar dio. Adibidez, irakaskuntza, administrazioa, liturgia, ofizialtasun mailatako lanak, hitz batean esateko, hainbeste sail eta eremu, orain arte euskarak gorritu gabe zeuzkanak, orain nahi eta nahi ez landu behar ditu.

Beste hitzez esateko, euskarak kultur-hizkuntza bilakatu behar du. Honekin ez dugu esan nahi orain arte ere euskara neurri batean kultur-adierazgailu izan ez denik, baina orain neurri askoz handiagoan izan beharko du.

Eta, jakina, oztopoa berehalakoan irteten zaigu bidera, hots, hitzen eskasia. Gu murgildurik bizi garen Etzinalde honetako kultural badiha hainbeste izaki eta gauzaki —materiazko edo izpirituzko, batez ere izpirituzko—, zeinentzat euskaraz ezpaitago izenik, izen zehatzik behintzat, arazo horiek beti erdaretan, eta ez euskaraz, adierazten zirelako. Orain,

jakina, gauza horiek adierazteko eta izendatzeko, hitzak bilatu behar ditugu.

Eta bana-banaka hitzen bila hasi baino lehen, eta langintza hau batasun baten barnean egin ahal dadin, bada zeregin bat bere eitez eta izanez lehenago egin beharrekoa dena, nahiz eta gauza hauetan kronologia eta logika ez diren beti akort izaten. Zeregin hori da eritziak bateratzea eta finkatzea. Horretarako dago, hain zuzen, Lexiko-Erizpideen Finkapenerako talde edo saila, Euskaltzaindiko Hiztegi-Batzordearen barnean lanean ari dena. Zein da, zehazki, sail edo talde honen xedea? Lexiko-berrikuntza lan hori taxuz egin dadin, behar diren oinarriak ezartzea, erizpideak argitzea eta finkatzea, eta honela, gero Euskaltzaindiak, hala baderitza, ager ditzakeen arau gidarientzat, bidea prestatzea, aurre-lana egitea.

Zenbaitek uste du Euskaltzaindiak ez duela arazo honetan eskuak zer sarturik. Hau ez litzateke Euskaltzaindiaren lana izango. Hori frogatzeko, aipatzen dituzte ez dakit nongo exenpluak, besteez lan hori nola burutu duten ikas dezagun. Nik ez dut esaten besterengandik ikasi behar ez dugunik. Baina lan honetan Euskaltzaindiak zereginen bat baduela jakiteko, aski zait gure Arautegiak zer dioen irakurtzea. Gure Arautegiak, bada, bere lehen artikuluan Euskaltzaindiaren xedea zein diren bana-banaka xehatzen ditu, eta horien artean bat, “g” letran datorrena, honako hau da: “Hizkuntza, gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea”.

Eta hauxe da, hain zuzen, hemen darabilgun arazoa.

Horrek ez du esan nahi, bestalde, Euskaltzaindiak zama hau berak bakarrik eta xoilki hartu behar duenik edo dezakeenik. Ez, inolaz ere. Izugarri zabalak dira kulturaren bazterrak, eta begien bistan da berak bakarrik ezin ditzakeela horiek denak arakatu eta kultur izaki guztientzat izenak aurkitu. Hau guztion lana da, eta denok parte haturik ere, nahikoa lan eta denbora eskatuko diguna.

Baina langintza honetan bada zerbait berari, Euskaltzaindiari, eta berari bakarrik, dagokiona. Horra zein: Lan honen nolabaiteko gidaritza hartzea, eritziak finkatuz, oinarriak ezarriz eta arau gidari batzuk emanez, dena batasun baten barnean egin dadin. Eta horretan dihardu Euskaltzaindiak.

Beraz, hau da kontua: kultur-eremuko hitz askoren beharrean dela euskara, eta behar horri erremedio bilatu behar zaiola. Orain bada, gure hizkuntza hau hitz berriz aberasteko, badira hiru bide: 1. Maileguena. 2. Konposizio edo hitz elkarketarena, eta 3. Deribazio edo Eratorpenarena. Hiru bide horietarik euskarari ez zaio batño ere galerazi behar, denen beharrean da eta.

Hiru urtez aritu izan da Euskaltzaindia lehenbiziko bideari buruz azterketa eta jardunaldiak egiten eta azkenean bide horri dagozkion arauak eman ditu. Kalean da jadanik arauok dakartzan liburuxka: *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Honekin, eta oraingoz, hitz berriak mailegu-bidez sortzeko behar ziren arauak eskaintzen ditu Euskaltzaindiak eta honela bere zeregina bete du.

* * *

Orain beste bi bideei aurpegi eman behar die, hots, konposizio eta deribazioari. Bi bide hauek, nolabait esateko, autoktonoak ditugu, hots, euskarak bere erraietarik eta bere gaiak baliatuz, hitzak sortzeko dituen ahalbideak dira.

Zenbatetarainokoa izango ote da bi bide autoktono hauek —konposizioak eta deribazioak— euskararen hitzen eskasia erremediatzeko eman dezaketen laguntza? Nik ez dakit. Batzuek, beharbada, bide hauen garrantzia gutiesten dute eta beste batzuek sobera esten. Americo Castrok Bilbon 1920an egindako hitzaldi batean zioena gogoratu besterik ez dut egingo. Kulturak behar dituen hitz guztiak prozedura hauen bidez sortzeari hara zer zeritzon: Hori da —zioen— Nerbioi ibaiaren ur guztia hiruzpalau pitxerretan sartu nahi izatea bezala (Ikus “El elemento extraño en el lenguaje” in *Curso de Lingüística*, Eusko Ikaskuntza, 1921; p. 59). Honekin esan nahi du, noski, behar direnen aldean beti izango direla guti prozedura horien bidez sor daitezkeen hitzak.

Dena den, asko edo guti, euskarak bide horiek bere-bereak ditu, eta baliatu behar ditu.

Beraz, bigarren bidea, konposizio edo hitz-elkarketarena dugu orain aztergai. Egia esan, oraindik atarian gara, aurrenengo fasean, azterketak egiteko fasean. Iaz lantaldea izendatu zen, Mikel Zalbide eta Miren Azkareteren gidaritzapean. Eskerrak eman nahi dizkiet biei lan hau bul-tzatzen ipintzen duten gar eta lehiagatik.

Dakizuenez, joan den urteko Ekainean, eta Beloken, lehenbiziko Jardunaldiak egin ziren. Bildutako materialearen aurkezpena izan zen hura eta materiale horren nolabaiteko sailkapena ere bai. Belokeko bilku-rok gai guztiari osoko gainbegiratu bat emateko guztiz egokiak gertatu ziren.

Orain, bigarren bilkurotan xeheki eta zehazki aztertu nahi dira eus-kal konposizio-mota partikular batzuk, beste batzuk hurrengorako utziz, zeren gaia berez luzea baita.

Honekin bukatzen dut. Lantaldearen zuzendariak emango dituzte gainerako xehetasunak. Nik eskerrak eman nahi dizkiet berei eta langile eta lankide guztiei, eta ongi etorria, noski, guztioi.

Euskal konposizioaren gai hau ederra da eta maitagarria, guztiz ere beronen sekretuez jabetzen garenean. Uste dut, gainera, ongi edo behar bezala erabilia, txit emankorra eta baliotsua izan daitekeela euskarak dituen beharrianak gainditzen laguntzeko.

FELIPE ARRESE BEITIAREN BERTSO ARGITARAGABE BATZU

Donostia, 1987-II-27

Josemari Velez de Mendizabal

Arrasateko historiegile porrokatua den Joxe Letonaren artxibategian ikusi nituen lehen aldiz lantxo honetan aurkeztu nahi ditudan bertsoak. Beraz, ezer baino lehenago bihoakio Joxeri nire eskerrona eskaini didan aukerarengatik.

“Neure adiskide maite Don Juan Franzisko Maria Imaz Jaunari bere meza barriko egunean”. Horrela du izena sei orrialdetan zehar Otxandio-ko olerkari ospetsu izan zen Felipe Arrese ta Beitiak 1900gn urtean idatzitako bertso sail batek. Eta tituluak berak adierazten duen bezala Felipe-ren laguna zen abade baten meza berria ospatzean kantatu omen ziren.

Don Juan Franzisko Maria Imaz ezagutzeko aukera izan nuen. *Don Paco* esaten genion Arrasaten eta nire lehen aitorrentzulea izan zen. Ongi gogoratzen dut une hura, zazpi urteko mukizua bere arima zuritzera lehen aldiz zihoala...

“Ona da; ez du ezer galdetzen” neukan entzunda elizara orduko, hitz horietaz aitorpenerako Don Pacok eskaintzen zuen erreztasuna adierazi nahian, nonbait.

Eta horrela zen. Garai hartan laurogetabi urte zituen gizon harek ontasunaren irudia ematen baitzuen.

Don Paco Bizkaiko Zornotzan jaioa zen, 1873eko Martxoaren 8an, baina berehalaxe iritsi zen Arabako Aramaiora, beraren gurasoen herrira. Aita Aramaioko Bainuetxearen zaldigurtzaina zen eta bere etxean Bainuetxera zihoazen bezeroak hartzen zituen. Aramaiotik Arrasaterainoko bidaia egiten zuen egunero eta oraindik jende askok gogoratzen ditu Ildefonso zenaren joan etorriak.

Don Paco Aramaion bizi zen, Ibarra, eta —nire ustez— bertan ezagutuko zuen Felipe Arrese ta Beitia. Jakina denez, olerkari otxandiarra Aramaioko Azkoaga auzoan bizi zen beste otxandiar batekin ezkondu

zen, Angela Bengoa Mendialduarekin, hain zuzen. Angela, Azkoagako erretorea zen Nikolas Lasagaren giltzazainaren loba genuen (1).

Don Pacok lehen Meza 1.900ean eman zuen. Ziurtasun guztiaz ez dakidan arren, Maiatzaren 30 inguruan izango zela esango nuke. Zergatik hori? Bada, hain zuzen ere, 1950eko Maiatzaren 30ean —apaiz egin zenetik berrogetamar urte eman ondoren— Arrasateko herriak semetzako hartu baitzuen.

Meza berria eman eta berehala Eskoriatzako Apozaga auzora bialdu zuten. Hamabost urte igaro ondoren Arrasateko laguntzaile izan zen izendatua. Eta Arrasaten hil zen 1957eko Apirilaren 19ean.

Zer esan daiteke olerkiari buruz?

Eritzia nik baino hobeto Juan San Martinek eman zezakeela garbi nuelako, berari eskatu nion eta honatx Juanitok —beti bezala apal baina maixuki— emandako erantzuna:

“Ez diat uste inongo erregeletan legez sartzekoa denik, zeren ez baidik gordetzen ez neurririk ezta ere punturik, erregela hertsietan behintzat.

Poesia bera, zer esanik ere ez, erromantiko erakoa duk eta bere izatezko egitura poesia jenero barnean narrativo deritzan horietakoa duk.

Lerroen silabak, diptongoekin batzutan bat eta bestetan bi egiteaz gainera, hori kontutan hartuta ere, batzutan 13 eta bestetan 14 eta 15 silabaz eginak zeudek, neurriaren erregelak hautsiz. Puntua (rima) bera oso pobre erabiltzen dik, bertsolarien erregularik ximpleenen mailara iristen ez direnak. Lehen bertsoan (estrofa) ikusi besterik ez zegok: *bade, neuke, bere, neike* traketsegi direlako hotsen aldetik.

Beraz, ez zegok kantatzeko egokitua, errezitatzeko baizik. Eta, errezi-tatzeko ere ez duk oso egokia, erritmoa eskatzen duten etenak (cesuras) falta dituelako.

Eskuizkribua bera, nahiko garbi zegok F. Arrese Beitia ber-berarena dela.

F. Arrese Beitiak badizkik zenbait poesia erromantiko interesgarriak, “Ama euskeraren azken agurrak”, “Arbola bat” eta abar, baina gehien gehiena oso farragoso duk, erromantizismoaren azkenaldeko gehienak bezala. Horregatik, poesia horrek ez dik asko balio baina, hala ere, bere lanaren lekukotasun bat gehiago duk”.

(1) Jexus Mari Elejaldek, Aramaioko erretorea, eskaini dizkit datu horiek, Mila esker.

Eta besterik ez. Irakur ditzagun bertsoak orain dela laurogetazazpi urte, ziur aski, Aramaioko bazkalondo batetan egin zen bezalaxe.

Oharra:

Denok dakigun bezala, Pio Barojak *El cura de Monleón* deritzan liburua idatzi zuen. Ezaguna den legez, Monleón hori gure Mondragón da. Liburu horretan, Arrasaten 1934eko Urrian gertatu ziren ekintzak deskribatzen ditu, maixuki, orduko jazoeren zenbait lekukori aditu ahal izan diedanez.

Pio Baroja Arrasaten egon zen 1934eko Azaroan eta denboraldi labur bat eman zuen bertan lagun batzuengandik bere libururako datuak jasotzen. Barojari lagundu zioten arrasatear haietako batzuek aitortu didatenez Don Paco gure apaizaren deskribapena ederki ondo dago eginda.

Nik ez dakit, noski, Don Pacok inoiz elaberri hori irakurriko ote zuen. Liburuaren lehen argitalpenaz, 1936ean, sekulako ixkanbila sortu ei zen garaiko zenbait komunikabidetan, batez ere prentsa idatzian. Liburua baztertua izan zen, zokoratua, eta Barojaren lehen mendeurrenerarte ez zen bigarren argitalpena egin. Ordurako Don Paco hila zen. Liburua gaur aterako balitz eta Don Pacok bizirik iraungo balu, agian epaitegira eramango luke idazle donostiarra..., beste izen batenpean baina liburuan Don Paco izan zitekeen abadearen gainean esaten dituenak gogor xamarrak baitira. Epaia irabaziko ote lukeen ala ez beste gauza bat da, batez ere lekukoek giro hura *oso ongi* hartua dela aitortzen dutenean... (2).

* * *

Neure adiskide maite Don Juan Franzisko Maria Imaz Jaunari bere meza barriko egunean.

I

Beko aukeren zaletasunik etzeunkalako,
Ikusten zaitut Don Juan Franzisko gaur abade,
Ta beraugatik alabantzetan adiskidea
Zu zeruraino goratutea gura neuke.

(2) Txosten honen irakurketa amaitzean, Patxi Altunak eskatu zuen hitza eta esan olerki honen ahapaldi guziak zortzi bertsotakoak zirela eta zortzi bertso horiek hamabost eta hamalau silabatakoak txandaka. Hori bakarrik ez, hamabostekoen eskema 5-5-5 eta hamalaukoena 5-5-4 zela batere salbuespenik gabe, bosteko andana bakoitzaren ondoan beti etena gertatzen omen baitzen. Puntua, noski, hamalauko bertsoek bakarrik zutela.

Baña nik üzelan jaso zaikedaz sorutik goruntz
 Lurrean narras ibiltan banaz ni neu bere?
 Ezpadaukat nik Agustin batek eukan egorik
 Zelan izarrak baño gorago igo neike?

Eta inon ditut abade baten anditasunak
 Goratuteko bear dan añan itz zakonak?
 Non esakunak, non bardinkuntzak, irudi eta
 Orretarako bear neukezan dote onak?
 Non ditut bada apaingarriak orniduteko?
 Non pichi eder, non egokiak diran lorak?
 Non emokaiak, non gogamenak eta azkenez
 Jakituria etorri gozo ta ganorak?

Zure onarren baña zerchobait kantau bagarik
 Ezin nindeke adiskidea gaur geratu,
 Ezin nindeke abiau dodan arlo onetan
 Lotsor bat legez aria eten da mututu;
 Ezin nindeke aldats andiaz aurkitu arren
 Al dodan goren igo bagarik echeratu;
 Iturri onak agortu dedin baño lenago
 Daukan ur dana egin bear dau argiratu.

Asi zakidaz beraz agotik zerbait urteten
 Asi zakidaz itz-errekea erioten,
 Asi zakidaz egarritua daukazulako
 Artega, estu, edan zagizan icharoten;
 Asi zakidaz zuri begira dagotzun orri
 Bere eztatari eta sabela ezotuten,
 Eskiñitera nire edari biotzeko au
 Don Juan Franzisko zugana gaur naz zuzenduten.

Zuk bear dozu izarrak baño izan gorago
 Egun onetan askoz gorago goratua,
 Fedeagaz nik ikusi egin zaitudalako
 Zeru gañetik lurreratuten Jaungoikoa;
 Lenengo aldiz nik gaur ikusi zaitudalako
 Egiatzuten orren mirari ain dontsua,
 Biotz guztitik agurtzen zaitut eta agur au
 iAy! gura neuke balichakizu gogokua.

Lenengo aldiz ikusi zaitut adiskidea
 Golgotan jaso eben Mesias zu jasoten,
 Lenengo aldiz ikusi zaitut nik gaur altaran
 Ze eskubide andia dozun agertuten;

Lenengo aldiz: “Jauna zuekaz izan bedi” gaur
 Meza entzulai begiraturik dei egiten,
 Ta eurak leial: “zure espirituz izan bekigu”
 Berealaše zelan eutsuen erantzuten.

Lenengo aldiz ikusi zaitut chimista gori
 Eta justuri burundarien Egillea,
 Zuk eskuetan zelan gaur euki dozun berbera
 Bazan legeche bildots otzan ta umildea;
 Zeñen suaren ondoan utsa izanagaitik
 Odei chimista jaurtilarien aserrea,
 Bigun bigunik ak zirundian gura ebala
 Aukera, atsegin dan danak zuri emotea.

Lenengo aldiz emon deuskuzu benedeziñoa
 Jaungoiko andi itzaltuaren izenean,
 Irudituz ostarku eder zuk ziñeala
 Bere su eta gure erruen bitartean.
 Lenengo aldiz baita eskiñi bake dontsua
 Zorionakaz lurrean bizi gu gaitean,
 Urte askotan egin daizula beste ainbeste
 Lotatik zoli gois guztietan jagitean.

Alabau beye itzartutean lora argalak
 Gura badabe Eguzki arro anditsua,
 Alabau beye chorrochioka chori zoroak
 Añe balitza legeche euren Jaungoikua;
 Baña Franzisko gois guztietan zuk adorauko
 Dozu egiñaz gaurko eskintza goratsua,
 Eguzki, lora, chori ta arraiñak gois eta arrats
 Alabau bear leukien Argi Betikua.

Gois guztietan areik guztiak baño gorago
 Jasoko dozu milla aldiz gora zuk biotza,
 Orgaño soñuz eta intzentso-kez gozoturik
 Erregutuaz baita kantuan inoz-boza;
 Eta Jaunari zelan gogoan sartuko jakon
 Garra legeche doakon zure deien otsa,
 Bigunduko da bere barrua ta io! zelango
 Mesede errekak jatsiko dozuz guganuntza.

¿Zer ziran bada anchiñakoen erreariak?
 Lege zarreko tayuak eta antz guztiak?
 ¿Zer ziran bada Abel, Abran ta Melkisederen
 Egunetako eskintza eta opariak?

¿Zer ziran areik eitamu chiki batzuk besterik?
 ¿Zertzuk ezpada oraingo mezen irudiak?
 ¡Ay! baña gaurko egiagaz dauz atzean isten
 Keriza areik abade Kristok ipiñiak.

Aingeruena baño gorago orresegaitik
 Franzisko dago jarichi dozun duintasuna,
 Abel, Abran ta Melkisederi echaken emon
 Zuri Eleisan zeugandu jatzun altasuna;
 Ze atsegiña aldaikeozun emon Jaunari
 Eta Zerutar danai zelako poztasuna,
 Baita garretan beko lezetan dagozan askoi
 Askamena ta goiko betiko ondasuna.

Ze ederra dan Errelijiño Katolikua
 Ze pozgarria andik datorkun sinistea,
 Ze gozoa dan erbeste baltz au irago eta
 Gero dogula bizitza argia jakitea;
 Ze atsegina Eleizan beti abadeari
 Berbategitik egi andi au entzutea,
 Eztala lur au gure erritzat egiña izan
 Eta billatu daigula goiko a bestea.

Ze zoli berak jayoagaz bat ipinten gaitu
 Ara joango garean bide zuzenean,
 Ze ardurea jasoten gaitu inoz lurrera
 Oiñkaden baten laban eginda jausitean;
 Ta ze jorestu aldats garratz au irago eta
 Beste mundura aldatu bear dogunean,
 Pasea bere abade jaunak emoten deusku
 Zeruan zuzen sartuak izan gu gaitean.

Oi abadea, bai, abadea bagenki nor dan
 Ze mallatara eukiko geunken goratua,
 Beraganako ¿zer zan Zesar bat, zer Alejandro
 Napoleon zer ya lurreko jaungoikua?;
 Danak guztiak etziran gauza, ez, biztuteko
 Soldau bat iñoz euren aldera illdakua,
 Baña abadeak daikela ekarri lengo senera
 Arima illa ¿ez da sinisgei fedekua?.

Areik irurak gerren bitartez baño bakeaz
 geyago da ta, baita izango abadea,
 Zergaitik onek arma bagarik daben sartuko
 Larra batera azkenerako gizartea;

Abadeentzat Jesukristoren Lauburuagaz
 Dago gorderik garaitz andi au jaristea,
 Danok Artzain bakar bakarrik buru dogula
 Eta beraren azpian danok bizitea.

Abadetzako ziñealako zu bere jayo
 Zara Jesusen mastietako langillea,
 Dirudizula Don Juan Franzisko gazte zardena
 Zipreza deitu egiten jakon arbolea;
 Ta ez lloroe bekorra legeztu beti sorua
 Gogoan daukan arbola triste lur zalea,
 Lur zale baldin izan bazina Obispo Jaunak
 Ez eutsun eingo buruan dozun señailea.

II

Baña oraindik beste gloria andi bat bere
 Kantau bagarik eneuke gura isiltzea,
 Asieratik agertu deusut neure gogo
 Zu Zeruraino zala eregi egitea;
 Eta asmo au agertu baldin egin badeusut
 Baita nai neuke egiaztu ta beteteta,
 Zuzen dagotzun ta duiñ zarean alabantzeaz
 Ez da larregi zor deusudana emotea.

Zuk badakizu ontzigilleak dabela lurraraz
 Berak ze ontzi nai daben aŕe atonduten,
 Baña Jaunaren eskuak moldau zu zaituzala
 Basu autu ta berarizko bat dot ikusten;
 Zugaran uts utsik santidadeko zumo gozoa
 Lur usaiñaren naste bagarik gorde daiten,
 Oker esan dot, Santutasuna Berbera danak
 Gura dau bere kopoe eder izan zaiten.

Duda bagarik kopoia zara Don Juan Franzisko
 Ez lurrezkoa ezpada urre gorrizkoa,
 Nakar, zafir ta diamantezko edergeiakaz
 Ederto baño edertoago edertua;
 Zergaitik bertan gura dabenak eiñ egunero
 Egotaldi ta bere ikuste goiŕekua
 Ez da lurreko gizon argal bat, ez aingerua
 Ezpada eurak egiñ ebazan Jaun altsua.

Erregearen echearentzat Jauregia da
 euskaldun izen garbia eta adjutua,

Zure bularra Erregegiñak bere echetzat
 Egiña bada izein ete dogu duiñekua?;
 Kantauko deusut mezatan egun santu danetan
 Orche artzera zoazalako Jaungoikua,
 Dala berariz berak egiña berberarentzat
 Beian berori izan dakion jarlekua.

Udabarria bere ak egiñ badau guretzat
 Lora, orri ta bedar usaintsuz apaindua,
 Bearrekoa arima ori da izatea
 Udabarria ichi daikena negutua;
 Bearrekoa jantzi urdin ta begi zabalaz
 Goya badago zuri begira zoratua,
 Goiurdingiñak zugan jarteko bizilekua
 ¡O! Franzisko zu zachakoz zeru lurrekua.

¡Agurtzen zaitut esparru eder aukeratua!
 ¡Agurtzen zaitut Jaungoiko baten jarlekua!
 Zu duin ederra etzala izan kantauko deusut
 Adan ta Ebaren ortu galant ta loratsua;
 Agurtzen zaitut ¡o! Paradisu askoz ohea
 An etzalako bizi izaten Jaungoikua,
 Agurtzen zaitut agur onetan zuri deiturik
 ¡Agur! Zerugin danaren beko zeruchua.

Emen izanik lurreko zeru, gero izango
 Zachakoz bere adiskide bat goi zeruan,
 Izar eder bat argitasuna baño besterik
 Ez daukazuna arpegi orren inguruan;
 Illuntokiak argituteko jayo bazinan
 Lanpara eder izan ziñaiten gaur munduan,
 Duda bagarik gero izan (sic) zara izar bat
 Zorioneko eta betiko Erreñuan.

Felipe Arrese ta Beitia

HIZTEGIGINTZA-BATZORDEA 1987 ETA 1988RAKO EGITASMOAK

Donostia, 1987-III-22

Mikel Zalbide

Bere garaian finkatutako lan-programarekin aurrera jarraitzeko asmoa du, 1987-88 epealdian, Hiztezigintza-Batzordeak.

Hori dela-eta hauek dira, nagusiki, urtebiko honetan lantzen jarraitzea begiz jota dauden alor nagusiak:

- a) OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*
- b) LEF: *Lexikologi Erizpideen Finkapena*
- c) EEBS: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*

Ekintza-sail bakoitzaren egitasmo nagusiak azaldu nahi dira, ondoren, halako xehetasun batez.

I. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

— Hiztegi zabal honen lehen liburukia (A-Apain) martxoaren 15 alderako edo bukatzeko asmoa agertu zuen lantaldeak joan den Urtarrilean; eta, beraz, jadanik argitaletxearen eskuetan dagoke edota berari eskuratzeko puntuan. Horrezaz gainera, bigarren liburukiaren prestakuntza da OEH lantaldearen aurtengo ekintza nagusia.

— 1988an, bigarren liburukia argitaratzeaz gainera hirugarrena inprimategirako prestatuko da, Urtarrileko txostenean adierazten denez.

— Prestakuntza-lan horrezaz gainera lehen bi liburukien argitalpena, jendaurreko aurkezpena eta luze-zabaleko banaketa izango da itxuraz, alde batetik, eginbeharrik mamitsuena. Eta, bestetik, hitzarmen berri bat eskuratzea. Eginbehar bata zein bestea Hiztezigintza-Batzordearen eremuz gainetikoak dira, dena dela, eta aipatu besterik ez dira hemen egiten. Ez dago ahazterik, ordea, puntu bi horiek argitzen eta zuzen bideratzen ez diren artean kolokan dagokeela OEH programa osoaren egoera.

II. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)

Iaz ekindako bideari eutsi nahi zaio, lexikologi erizpideen finkapen-lanean. Hartarako ihardupidea aski era xehean finkaturik dago 1987. urterako.

Gaiari dagokionez, menpekotasunezko izen-elkarteak aztertu eta landu nahi dira, burutik burura, aurtien: Belokeko sailkapen-txosteneko 8. atala izango da beraz, begiz jota dagoenaren arabera, aztergai.

Hiru jardunaldi egin nahi dira, urtean zehar, horretarako: lehen Ekainaren 12 eta 13an, Zarautzen seguru asko. Bigarrena Irailean, oraindik seguru finkatu gabe dauden egunetan: erdialdean edo, nolana ere, tartean dauden beste ekitaldiak (II. Euskal Mundu Biltzarra...) kontuan izanik. Hirugarren jardunaldia, azkenik, Azaroaren 13 eta 14ean egitea begiz joa dago.

1988. urterako planak ez daude oraindik hain xehetuak. Gutxienezko puntu batzuez hainbat argibide eman daiteke, dena den, dagoeneko.

Aztergaiari dagokionez, horrela, hitz-elkarte sintetikoak dirateke, menpekotasunezko izen-elkarteen hurbilenekoak edo direnez, bertan tratatze-koak. Ez horiek bakarrik halere: beste zenbait atal ere, IX. eta X.ak agian, orduan aztertzeko eran egon daitezke orobat. Leku-egunei dagokionez ez du oraindik talde eragileak proposamen zehatzik prestatu. Hala behar izanez gero hemendik Ekainera prestaturik izan dezake, halere, proposamen hori.

III. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

Pauso garrantzitsuena eman da, alor honetan, Euskaltzaindiak joan den Urtarrilaren 31an hartutako erabakiarekin. Bilketa-lanen eremuan bere gain hartu du Euskaltzaindiak gidaritza-ardura, eta alor horretan ari diren elkarte eta lantaldeekin, edo bihar-etzi sor daitezkeenekin, elkar-lanean jarduteko ongi mugarriztatu du bakoitzaren eginbide-esparrua.

Orain, erabaki hori mamitzeko, EEBS batzordea izendatzea da lehen pausoa. Eta, ondoren, batzorde hori lanean jartzea. Honako egutegi hau proposatzen da, lehen hurbilketa gisa, langintza horretarako gidari:

a) 1987ko Apirilaren lehen hamabostaldian, ahal balitz Apirilaren 11n, Martxoaren amaitu aurretik baiezkoa eman duten batzordekide guz- tiekin lehen bilera egin. Bilera horren eginkizun litzateke, besteak beste:

— Batzordekide guztien aurkezpena.

— EEBS batzordearen aurkezpena: bere egitekoak eta lan-moldeak.

— Batzorde osoaren talde eragilea osatzea; bertako arduraduna eta idazkaria proposatzea.

— Hurrengo hilabeteetarako lan-prozedura: azpibatzerdeak edo banakako arduradunak izendatzea, zenbait eginbehar prestatzeko (bilketa-lanaren mekanizazioa, hustuketa-lanak bateratzeko lexikografiako erizpideen finkapena), eta abar.

b) Hilabeteko epean, Maiatzaren erdialderako beraz, EEBS programaren babespean egin nahi izan daitezen lanen onespenezko-prozedura finkatu eta hartarako mekanismoa martxan jartzea.

Pauso bi hauek Ekaina baino lehen ematea komeni da; gogoan izan dagoeneko 8 bat hilateko atzerapena daramagula begiz jotako asmoekin, eta dirubideen kontua ere gehiegi desfasatzeko arriskua dago tartean. Ekain alderako (beranduenik) Administrazioari 1988ko aurrekontugaiak aurkeztu beharra gerta daitekeenez, presa-kontua are nabarmenagoa da.

Pauso bi horiek Ekainerako emanak baleude goian aipaturiko puntuak xehe-xehe mamitzen hastea izango da, handik aurrera eta 1987-88 epealdi osoan, EEBS batzordearen eginkizun nagusia.

Hauek dira beraz, jaunak, hiztegi-gintza-batzordeak aurrera begira dituen egitasmoak. Honetaz edo hartaz xehetasun handiagorik behar balitz, esan eta saiaturiko naiz azaltzen.

CADIZKO KONSTITUZIOA EUSKARAZ 1820

Donostia, 1987-IV-24

Juan San Martin

Duela hilabete Hondarribiko Kaputxinoetatik Aita Zubeldiak telefonoz deitu ninduen, ahal nuenean hara joan nendin Biblioteka atontzean aurkitu zuen eskuizkribu bat ikus nezan: 1820. urtean euskarara itzulitako Konstituzioa.

Gerorako utzi gabe, ordu berean joan nintzen eta txukun koadernaturik gordetzen zen liburuxka eskuratu zidan. Ez zuen itzultzailearen izenik, apez-bikario gipuzkoar baten sigla soilak baizik. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekarako fotokopiatzen uztea eskatu nion eta hala bete ahal izan dut.

Euskaldunon foruak gogoan harturik inoiz madarikatu dugun Cádizko Konstituzioa, lehen erregeren pertsonarekin zegoen konpromisoa korteen esku uzten zuena, garai beretik ikusia ez dirudi hemen ere gehien-goarentzat hain txarra zenik. Aintzinako errejimenaren legedia zaharkituegia bai zegoen orduko Europaren mailetara hurbiltzeko, Euskal Herritik begiratuta ere.

1808an Korteetarako deiak hasi zirenetik Euskal Herriko semeak presente daude Konstituzio berrigintzarako. Hiru talde politikok osatuz lejislatzaile egingo zuten diputatu ordezkariena: *liberalak*, aldakuntzen aldeko eta Frantziako iraultza begionez ikusten zutenen taldea; *zerbitzailak*, aldakuntzen kontrako konserbadoreena; eta, *amerikanoak*, kolonien ordezkari. Hiru taldeetan zeuden Euskal Herriko semeak. Ramón Solisek bere ikerketan ere nabarmen azaltzen digu (1).

Gauzonerako beranduegi aritu ziren, eta gainera Estaduaren parterik gehiena frantzesen menpean zegoen garaian, ezinbestean, eta ondorioak laster ikusiko ziren aski abandonaturik aurkitzen zen Amerikak independentziaren alderako jarrera hartuz eta Penintsulan bertan gerra zibilak

(1) RAMÓN SOLIS: *El Cádiz de las Cortes* (Plaza-Janés, S. A., Barcelona, 1978). 99. orrialdean zehazki baina liburu guzian zehar agertzen zaizkigu euskaldun deiturak.

pizteaz. Alderantziz, Inkisizioaren bukaera ez-ezik, laboraritzaren erreforma, gizartea klaseen menpekotasunetik libratzea, eta abar. Gregorio Marañonek esango zigunez: “Las Cortes de Cádiz no fueron perfectas, puesto que estaban constituidas por hombres y puesto que eran un instrumento político, y todos los políticos son vivencias de ocasión, perecederas. Pero esa eficacia cronológica, que en los casos afortunados pueden tener un hecho político, la tuvieron ellas” (2).

Gure herritarren joerak ezagutzeko nahikoa adierazgarriak dira honako joera hauek: alde batetik Migel Lardizabalek erreformaren kontra idatzi zuen manifestoa eta bestetik Migel Zumalakarregiren proposamena Cádiz-ko bikarioa eta hiru kalonje prozesu edo auzi batera salatuz (3). Hala ere, Konstituzioa euskaratu zuen apez bikarioak Migel liberal buruzagi honi egiten dio itzulpen eskuizkribu honen eskaintza.

Egia esan, Cádizen Konstituzioaren garaian ideiaz elkarregandik hurbilago zebiltzan. Setakeriak geroztik agertu bai ziren. Tomas jeneral izango zenak, egun haietan, diputatu liberal zen bere anai nagusiari laguntzen zion, une berean hango Militar Akademian Espartero ikasle zela. Nork pentsa Espartero eta Zumalakarregi elkarrekin paseatu zitezkenik? (4).

Aurten ehun eta hirurogeta hamabost urte betetzen dira Konstituzioa proklamatu zenetik. Garai nahasia zen hura, 1812ko San Jose egunez onartu zenekoa. Askorentzat esperantzaz betea, inkisizioarekin bukatuz “Biba La Pepa” bizitzeko, eta beste askorentzat hondamenezkoa, iraultzaren deabrukeria nagusituko zen beldurrez. Arazo guzien artean euskaldunak buru-belarri sarturik agertzen zaizkigu.

Ameriketarako merkataritza zerbitzuak Sevillatik Cádizera igaro zirenetik hazkuntzaz goraka zetorren hiri hau, XVIII. mendearen hondarre-rako aberatsena bihurtu arte. Han ziren euskaldun merkatariak, itsasgizonak, eta azkenik politikoak. Adibide gisa, han jarri zen 1802. urtean suzko armen fabrika Plaentzia-Soraluze eta gure inguru horietako armaginez hornitua. 1812ko lehen hilabeteetan Cádiz nabari zen baikortasunez hiri hertsia hura idekiz, kanpokaldera handitzeko, “ensanche” zeritzan asmoak agertu ez ezik proiektatu eta hasi ere egin zuen hango Bellas Artes Eskolan Arkitektura irakasle zen Pedro Albizuren proposamenez, Torregorda eta Santi Petri bitarteko auzo berrian, “Eli-Erri” izenez baliatuz (5).

(2) GREGORIO MARAÑONEK, RAMÓN SOLIS-en: *El Cádiz de las Cortes*-i egin zion hitzaurrean.

(3) *Diccionario Enciclopédico Espasa*, X. tomoa, 338 orr.

(4) RAMÓN SOLIS, aipatutako obra, 110. orr.

(5) RAMÓN SOLIS, a. ob., 49, 50, 107 eta 416. orr.

Napoleonon menpeko zen Espainiarik gehiena, herriak meatxutzat ikusten zuelarik, baina bestalde liberaltasunaren haizeak ekintza gizonik gehienak biltzen zituen Cádizko hiri hartan. Han bertan idea desberdinetako gizonak, neurri handi batean elkarri amore emanez gizartea berpizteko lege berriak sortzen, *Habeas corpus* oinarri.

Egoera horretan, Cabrera Magistral ospetsua aurrengo zelarik, erraz ulertzekoa da apez askoren liberaltasuna eta horietakoa genuen, "Apez Vicario Dr. D. J. F. A. Guipuztarrac", 1820an Konstituzioa euskaratu zuena. Sigla horiek baizik ez ditu ematen, baina uste dut lortuko dugula nor zen.

Bere letra, garbia da. Itxura denez euskaraz idaztera ohitua, eskuizkribu honek erakusten digunaren arabera. Gipuzkeraz idatzia baina Larra-mendiren hiztegiak ondo kutsaturik.

Lastima da guk oraindik asmoetako euskal idazleen paleografia katalogoa burutu gabe edukitzea. Azkue Bibliotekako agiritegian holako katalogoa horniturik edukitzeaz lagungarri izango litzauguke era honetako ikerketak bizkortzeko.

Euskal idazle ezagunen artean ez dut aurkitzen sigla horiekin datorren apezik.

Oso bitxia da liburutxoaren eskaintza: "Dn. Miguel de Zumalacarre-gui Goitico Conseju Justiciacoaren Ministroari donquitua. ¿Nori besteri berorri baicic leguez, ta bidez, eta arrazoi andiarequin esqueñi, eta donquituco diot erderatic eusquerara itzulitaco liburu berez chiquichoa, baña izatez, eta bere jajot-iturrian chit andia, eta aldegucietara miragarria dan au?...". Laudorio horiekin hasten du eskaintza luzea, lehen bost orrialdeak hartzen dituen. Aurreraxeago, Migelen izena goresten du Konstituziogintzan izan zuen partaidetzagatik: "...jaquinaren gañean, ez duala berorrec, dudagabe, parteric chiquiena izandu obra mirarizco au asizanetic caburaño? Gauza aguiria da; cerren bestela etzuan iñolaz ere berorrec aimbèstebait Etsai izango, ezta ere aimbeste pena, eta atsecabe sufriquin...". Garai bereko lekukotasun gihartsua ematen digu bere eskaintza honek. Gainera, nork esan, apez liberalaren gogoak gainak hartzeaz gipuzkoarren leialtasuna ez ezik odol garbia eta noblezia ere aipatuko zigunik, Konstituzioaren kontraesanetara. Lerro batzu aurrerago hau irakurtzen bai dugu: "bere guipuzcoatarren odol garbi, nobleac eransicion sorcetic berorri leialtasunaren sillu estimagarria". Eta bukaeran umil aitortzen du, "Berorren Servitzari, eta Capillauric chiquiena Dr. D. F. A.".

Tomas Zumalakarregi jeneral karlistaren helburuetariko asmoak ez ziren ondo ezagutzera heldu. Hala ere bistan da pentsakeraz eta ideaz anai nagusiarengandik desberdina zela. Behar bada 1812ko gertakarien ondoreak hala erakutsirik. Baina oso garbi dagoena da Migelen jokabidea,

eta gogoangarria ahantzirik badugu ere. Ponte izena Migel Antonio zuen eta hamaika anaietatik zaharrena zen. Idiazabalen jaioa 1773ko Otsailaren 20an. Jurista zenez Justiziako Ministraria izateraino iritsi zen. Gipuzkoako diputatu ordezeko hartu zuen parte konstituzioaren prestakizunetan hasiera beretik, inoiz Korteetako idazkari eta buru eginez. 1815ean "francmason"tzat salaturik epaitua izan zen (6). Fernando VII.ak bere bigarren manifesto hura eman zuenean 1824ko Urriaren lehenean, politikatik erretiratu zen eta ez zen itzuli erregea hil arte. Anaia Tomas hil zenean Burgos-ko Real Audiencia-ko buruzagia zen eta 1836an Tribunal Supremo de Justicia-ko ministraria izendatua eta 1842an Gracia y Justicia-koa. Bere heriotzatik hamar urtera, 1856an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak Elgoibarren bildurik bi anaia ospetsuei monumentua eraikitzea erabaki zuten, baina geroago, karlistek Tomas jeneralari eraiki zioten Zegamako parrokian eta geroztik inor ez da oroitu Migelekin (7).

Eskuizkribua, Larramendiren hiztegiak kutsaturik dagoenarren, gipuzkera jatorrez idatzia da. Bere luze-zabal neurriak 15×10 zm., 108 orrialde bi alderdietatik idatzirik, lehen orrialdea azal gisa eta hirugarrenetik zazpigarrenera arestian aipatutako hitzak atera ditugun eskaintza luzea. Azalekoan aurkezpen hau dakar:

*Jaquin-bide Iritarautia
Espaniaco
Neurquidaren, edo Constitucio
berriaren erara adrezatua,
Erritarren arguidoraraco,
Gazteen icasbideraco, eta
Escola-maisuen usoraco
Erderatic Eusquerara itzulidu
Apez Vicario
Dr. D. J. F. A. Guipuztarrac.
1820. Urtean.*

Honako liburuxka hau eta hitzaurre gisa daraman eskaintza, lekukotasun bat gehiago dugu Cádiz-ko Konstituzio hura Euskal Herrian orokorki onartua izan zenarena. Baina 1920-23. hiru urteko aginte hartan (erdaraz *trienio* bezala hain ezaguna dena) liberalek sartu zituzten aldakuntzak sumindurik utzi zuen Euskal Herria. Ordurarte gehiengoek ontzat ikusia, kontrako bihurtu zen eta hortik sortu ziren geroako nahaspilak, iskanbilak eta gerrak.

(6) FAUSTO AROCENA: *Diccionario Biográfico Vasco (I.-Guipúzcoa)*. (Donostia, 1962) 206. orr.

(7) *Dicc. Enc. Espasa*, LXX. tomoa, 1509. orr.

Adibidez, gai hau, 1823. urtean Bizkaiko Batzarren agiriz eta Mahn-en bildumako bertsoz Alfonso Irigoyen euskaltzainak eman zuen “Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin” (8).

C. A. F. Mahn-en bilduma, 1857koa, oraintsu *Egan*-en berargitaratua dugu (9) eta han bertan datoz, fotokopiatuak, Bilboko Basozabalenean 1823.ean argitaratu ziren bertsoak.

Bertso horiek, Mogel neba-arrebak eginak ez badira, Juan Antonio zenaren iloba horiek ez ziren urruti ibiliko. Bizenta Mogel, kantok inprimatu ziren etxe jabea zen Eleuterio Basozabalekin ezkondua zen eta badakigu 1818an V. M. B. letraz izenpeturik “Gabon-kantak” argitaratu zituela, Lino Akesolok aski argi jarri zigunez (10). Mahn-en bilduman “Konstituzinoeco damiari” deritzaten bertsoen aurretik 1819an Abando-ko elizarako “Gaboneco cantia” ere iturri bereko iduritzen zaigu (11).

Baina, Konstituzioari jarraituz, argi dago “Trienio Constitucional (1820-1823)” hark deuseztu zuela Cádiz-koa. Korteak, Foru Diputazioak lehenagoko agindurik gabe eta gainerako probintzietakoen mailara jartzea ekarri zuen, Batzar Nagusirik gabe, 1837ko Irailaren 16an erabaki zenaren arabera, eta itxura denez Joakin M.^a Ferrer pasaiarra eta Miguel A. Zumalacárregui idiazabaltarra tarteko zirela, diputatuen onespenez (12). Beraz, historia hori aztertzean, gauza bat utzi behar dugu garbi: Cádiz-ko Konstituzio bera (1812) orogandik onartua izan zela; baina ondoko Hirurteko hura (1820-23) ez. Behar bada, hori zen arrazoa Dr. D. J. F. A. zelako gipuzkoar apezaren itzulpen hau, 1820an idatzia, inoiz ez argitaratzeko.

(8) ALFONSO IRIGOYEN: “Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin”, *Zeatz*, II, 3.4, 1987ko Uztaila (Abendua), 43-70. orr.

(9) “C. A. F. Mahn-en eta bertso bilduma. Berlin, 1857” (PATRI URKIZUK prestatua), *Egan*, 1986ko 1-2 zenbakia, 13-84 orrialdeak (kus 30-52. orrialdeak).

(10) L. AKESOLO (“Axmutil” izen ordez): “Euskal-esnale ta euskal-idazle Yose Paulo Ulibarri”, *Oleri*, 1962, I-II, 133. orr. Eta egile ber-berak berriz aipatuko zuen “Romanista y vascólogo ilustre: Carlos Augusto Federico Mahn” lanean, *La Gran Enciclopedia Vasca*, II, 1967, 392-393. orrialdeetan.

— J. SAN MARTÍN: “Bizenta Mogelen mendeurrena”, Donostiako *Hoja del Lunes*-en, 1982ko Ekainaren 7an.

(11) Ikus C. A. F. MAHN-en aipatutako lan hori *Egan* aldizkari beraren 22. orrialdean.

(12) JOSÉ MÚGICA: *Carlistas, moderados y progresistas* (C. A. Luzuriaga), San Sebastián, 1950, pp. 151-152.

**ANGEL ALLENDESALAZAR-EN
"BIBLIOTECA DEL BASCOFILO"
KATALOGOAREN MENDEURRENA**

Donostia, 1987-IV-24

Jose Antonio Arana Martija

Angel Allendesalazar lumotarraren *Biblioteca del Bascófilo* argitaratu zenetik ehun urte betetzen dira aurren eta lehen euskal bibliografia sistematikoa denez, merezi du euskal Akademia honen bilera batetan aipamen bat egitea, bai burututako lanak baita ere bibliografoak berak, hogeitamar urteko bizitza laburrean, euskarari eta euskal kulturari eman zion bultzadagatik.

Lumotarra zela Angel Allendesalazar esan dut, eta hala da, Alegria jauregian jaio zenean, 1854.eko Irailaren 24an, Lumoko lurraldean kokaturik bait zegoen etxe hori, 1882an Allendesalazar berberaren eraginez Elizatea Gernikako uriarekin bateratu arte. Hogeitamar urtedun Madriden hil zenean, 1885.eko Martxoaren 18an, bere bizitzaren proiekturik haundiena buruturik zeukan, hots, bost mendetan zehar Elizate eta Uriaren tarteko auziak eta iskanbilak amaitutzat ematea. Elizatea eta Uria bat egin ondoren jaioko zen Gernika-Lumon beste euskal bibliografo aipagarri bat, Juan Allendesalazar Zaragoza (1882-1938), Angelen seme nagusia; lehenago Gernikan jaioa zen Juan Ruiz de Larrinaga Larrañaga frantziskotarra (1876-1954). Nahiz eta Gernikan jaio ez, bertan burutuko zuten beraien lanik garrantzitsuena Karmelo Etxegarai Korta, euskaltzain azpeitiarrak (1865-1925) eta Florencio Amador Carrandi gasteiztiarrak (1888-1963).

Sei seme-alabetatik laugarrena zen Angel, Manuel Maria Allendesalazar Loizaga-ren eta Angela Muñoz de Salazar Martorell-en ezkontzatik jaioa. Aita ere lumotarra zen eta Montefuerteko II Kondea, eta ama Parisen jaioa. Aitaren ama, Angelen amona Loizaga sendikoa zen eta familia honek Gernikan zeukan liburutegi ederra hurbil zeukan gure bibliografoak. Gero Madriden aitaren partekoek zeukatena ere baliagarri izan zuen bere lanak burutzeko.

Gazte zelarik jo zuen Madridera Angelek, Zuzenbide karrera estudiantzera, 1874an hogeitazeterekin bukatu zuena hain zuzen. Ordurako hasia zen euskal bibliografiaren fitxak betetzen eta lan honetan jarraitu zuen

Filosofia eta Letren karrera egiten ari zen bitartean. 1878an bukatu zuen bigarren karrera hori, Doktoratu mailarako lan bat aurkeztuz urte berean: “Carácter general de la literatura vasca”, *Euskalerrriaren Alde* aldizkarian 1915ean argitaratua. Madrideko Academia de Legislación y Jurisprudencia delakoaren kidea zen, eta geroago Buruordea ere bai, eta sarrera gisako hitzaldian gai hau erabili zuen, hots, “La codificación civil y las legislaciones forales”, Iruñeko *Revista Euskarak* 1878an argitaratua eta hamar urte geroago Manterolaren *Euskal Erriak* 1888an berrargitaratua. Kontutan izan dezagun legeen kodifikazioaren garaia zela orduan. Zuzenbide arlo honetan esan beharko dugu Diputatuen Kongresuan Idazkari izan zela gure bibliografoa eta Letren arloan Madrideko Unibertsitatean Geografia eta Historia saileko katedraduna. Angel Allendesalazaren lan erroldan honako hauek gehitu behar dira:

Bascófilo debe escribirse con B y no con V, EE, 1881, III, 1-8.

Carta a Julian Apraiz sobre la ortografía vasca B-V, Revista “Euskara”, 1881, IV, 142-152.

Ercilla era bizcaino, EE, 1881, III, 53-58, hau ere Julian Apraiz jaunari zuzendutako gutuna delarik, urte berean “Boletín Histórico” aldizkariak ere eman zuena.

El dualismo de la legislación civil de Bizcaya, Revista de Legislación.

Urte hauetan bere jaioterriari zegokion arazo batekin zebilen ardura-tuta gure bibliografoa, aipatutako Lumo Elizatea eta Gernika Uriá bateratzearekin, hain zuzen. La Habanako Carmen Zaragoza Aillon neska gaztearekin ezkondu berria zen, arazo honetan buru belarri sartu zenean. Azkenean, 1881.eko Abenduaren 20an lortu zuen Madrideko Diputatuen Kongresuak zera erabakitzea: Gernika eta Lumo bat egitea, bakoitzak lehendik zegokion legeria mantenduz, hots, Gernikak Kode Zibil orokorra eta Lumok, Elizatea izatetik zekarren Bizkaiko Forua. 1882.eko Urtarrilaren 8an jarri zen indarrean bateratze lege hau.

Hiru urte geroago hil zen Angel Allendesalazar Madriden, 1885.eko Martxoaren 18an. Gorpua Gernikara ekarria izan zen trenez eta 23an hiletak egin ondoren Saraspeko kanposantu zaharrean lurperatua. Eraikitzen ari ziren eskola berrietan errotulu handi bat jarri zuten zera esanez, euskaraz: “Il da aita emengoa, On Angel Allendesalazar”. Oroitgarri bat eraikitzekotan ere bazeuden ordukoak, baina asmoetan geratu zen proiektua. Dena den, gure bibliografoaren izena darama Gernikako kale batek: Junta Etxetik iparrerantz, Andra Maria Elizaren atzekaldetik doana, Lumo eta Gernikako muga bat markatuz. Junta Etxera heltzen den beste kaleak, Saraspeko plazatik datorrenak, Karmelo Etxegarai poligrafoaren izena darama, eta han duzue nire bizilekua eta zuon etxea.

BIBLIOTECA DEL BASCOFILO

ENSAYO

DE UN

CATÁLOGO GENERAL SISTEMÁTICO Y CRÍTICO

DE LAS OBRAS REFERENTES Á LAS PROVINCIAS DE

VIZCAYA, GUIPÚZCOA, ÁLAVA Y NAVARRA

POR

D. ANGEL ALLENDE SALAZAR

OBRA PREMIADA POR LA BIBLIOTECA NACIONAL

EN EL CONCURSO PÚBLICO DE 1877

É IMPRESA Á EXPENSAS DEL ESTADO



MADRID

BIENENTRADA Y CUNDECA DE MANUEL TELLO

IMPRESOR DE CÁMARA DE S. M.

Don Evaristo, S

1887

Zehaztatu gabe utzi dugu Allendesalazarren lanik handiena, kalera-tzetik ehun urte betetzen duen *Biblioteca del Bascófilo*, eta orain datorkio txanda.

Madrideko Biblioteca Nacional delakoak urtero lan bat saritzeko dei bat egiten zuen eta 1877an sari hori irabazi zuena gure bibliografoarena izan zen. Hogeita hiru urte zituen orduan Allendesalazarrek eta Zuzenbide karrera jadanik bukatuta Filosofia eta Letretakoa amaitzera zihoan. Baina lumotarrak burututako euskal bibliografiaren katalogo hura argitaratu gabe geratu zen eta ez zuen egileak inprimatuta ikusi. Bera baino gazteagoa zen Manuel anaiak eraman zuen moldiztegira eta 2.027 fitxekin osatutako 488 orrialdedun liburua 1887an kaleratu zuen, orain dela ehun urte.

Hitzaurre luze bat dakar hasieran liburuak, 65 orrialdeduna. Bibliologia eta Bibliografia zer diren estudiatzen du egileak eta gero Espainiari eta Euskal Herriari dagozkion bibliografiak azaltzen ditu, azkenean bere liburuaren metodoa eta iturriak aipatzen dituelarik. Oso interesgarria da hitzaurre honetan Allendesalazar gazteak esaten digun guztia eta bibliografiari buruz ematen dizkigun iturriak. Lana burututa saria irabazi zue-nean karlistada amaitu berria zen eta une historiko horretan zertan zen euskal kulturaren bibliografia liburu honi esker jakin dezakegu.

Baina zeharka beste datu interesgarri batzu ere aipatzen ditu, euskararen historiarako baliagarriak. Bizkaiko administrazio publikoa euskalduntzea erabaki omen zuten Batzar Nagusiek Gernikan 1814.eko Irailaren 12an, enpleguak euskaldun izan beharra eskatuz. Berrogei urte geroago, 1856.eko Uztailaren 17an gauza berbera erabaki zutela Batzar Nagusiek diosku gure bibliografoak. Euskararen Katedra bat sortzea ere erabaki zen, Villabaso deputatuaren eraginez, 1876.eko Irailaren 29an, baina asmo hau ez zen burutu hamabi urte beranduago arte, gure Azkue izan zelarik katedradun 1888an, datorren urtean ehun urte betetzen direlarik.

Baina lehengo harira gure esanak lotuz, ikus dezagun zein zen euskal bibliografia sakabanatua Allendesalazarren lehen bibliografia sistematizatua agertu arte:

1. ABBADIE, ANTOINE: *Travaux récents sur la langue basque*, Paris, 1859.
2. ABBADIE, ANTOINE: *Bibliographie basque*, in Abbadie, Antoine eta Chaho, Jose Agustín: *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836, 28-50 orr.
3. ANTON RAMIREZ, BRAULIO: *Diccionario de Bibliografía Agronómica y de toda clase de escritos relacionados con la Agricultura*, Madrid, 1865.

4. ANTONIO, NICOLAS: *Bibliotheca Hispana nova*, Madrid, 1783-1788.
5. ANTONIO, NICOLAS: *Bibliotheca Hispana vetus*, Madrid, 1788.
6. BIBLIOTECA DE INSTRUCCIÓN Y CARIDAD: *Catálogo de la ...*, Bilbao, 1871.
7. BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN: *Catalogue des ouvrages de linguistique européenne edités par la Prince...*, Londres, 1858.
8. BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN: *Deuxième Catalogue des ouvrages destinés à faciliter l'étude comparative des langues européennes, edités par le Prince...*, Londres, 1862.
9. BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN: *Remarques sur plusieurs assertions de M. A. Hovelacque concernant la langue basque accompagnée d'observations grammaticales et bibliographiques*, Londres 1876.
10. BRUNET, GUSTAVE: *Notice sur les proverbes basques recueilles par Arnould Oihenart, et sur quelques autres travaux relatif à la langue euskarienne*, Paris, 1859.
11. BRUNET, GUSTAVE: *Lettre sur la bibliographie bordelaise*, Revue d'Aquitaine et du Languedoc, 1870, 610-613 orr.
12. BRUNET, JACQUES-CHARLES: *Manuel du Libraire eta de l'amateur de livres*, Paris, 1860-1865, 6 tomo, gehien bat seigarrena.
13. CHARENCEY, CHARLES: *De quelques travaux sur les basques*, Polybion, 1870, 56-60 orr.
14. *Ensayo para una colección de memorias de hombres célebres, prelados, escritores y sujetos notables en virtud y doctrina naturales de Guipuzcoa*, Florencia, 1870.
15. FERNÁNDEZ DE NAVARRETE, MARTIN: *Biblioteca marítima española*, Madrid, 1851-1852.
16. FORT, CARLOS-RAMÓN: *Memoria que, al inaugurarse el año académico de 1870 a 1871 en la Universidad libre de Vitoria, leyó el Rector y Catedrático de Derecho Dr. D. ...*, Vitoria, 1870.
17. FUENTE, JOSÉ JULIO DE LA: *Catálogo por orden alfabético de escritores vizcainos antiguos y modernos de que tengo noticia así de los que han publicado sus obras como de aquellos cuyas producciones permanecen inéditas*, in *Memoria acerca del estado del Instituto Vizcaino*, Bilbao, 1871.
18. GALLARDO, BARTOLOMÉ-JOSÉ: *Ensayo de una Biblioteca Española de libros raros y curiosos, formado con los apuntamientos de D..., coordinados y aumentados por D. M. R. Zarco del Valle y D. J. Sancho Rayón*, Madrid, 1863-1866.
19. HIDALGO, DIONISIO: *Diccionario General de Bibliografía Española*. Madrid, 1862-1872.
20. LAMOTHE, LEONCE DE : *Bibliographie (des livres imprimés à Bordeaux)* Comission de Monuments Historiques de la Gironde, 1852, 1853, 1854, 1855.

21. LAPEYROUSE, PHILIP: *Notice des auteurs qui ont voyage dans les Pyrénées, et publié des ouvrages sur la botanique de ces montagnes*, in *Histoire abrégée des plantes des Pyrénées, et itinéraire des Botanistes dans ces montagnes* Toulouse, 1813.
22. LARRAMENDI, MANUEL DE: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, San Sebastián, 1745. Bigarren argitalpena, San Sebastián 1853.
23. MICHAUD: *Bibliographie Universelle*, Paris, 1842.
24. MICHEL, FRANCISQUE: *Proverbes basques d'Oihenart précédé d'une introduction bibliographique*, Bordeaux, 1847.
25. MICHEL, FRANCISQUE: *Bibliographie basque*, in *Le Pays Basque...*, Paris, 1857.
26. MUÑOZ Y ROMERO, TOMÁS: *Diccionario bibliográfico-histórico de los antiguos reinos, provincias, ciudades, villas, iglesias y santuarios de España*, Madrid, 1858.
27. OETTINGER, EDOUARD-MARIE: *Bibliographie biographique universelle*, Bruxelles, 1866.
28. PIERQUIN DE GEMBOUX, CLAUDE-CHARLES: *Histoire littéraire, philologique et bibliographique des patois*, Paris, 1841.
29. PIERQUIN DE GEMBOUX, CLAUDE-CHARLES: *Bibliographie basque*, Evreux 1858.
30. RODRIGUEZ FERRER, MIGUEL: *Los vascongados: su país, su lengua y el Príncipe Bonaparte*, Madrid, 1873.
31. SOCIEDAD BILBAINA: *Catálogo por orden de materias de los libros que constituyen la Biblioteca de la...*, Bilbao, 1869.
32. SORALUCE Y ZUBIZARRETA, NICOLÁS: *Historia General de Guipúzcoa*, San Sebastián, Tomo II, Apéndice.
33. SORALUCE Y ZUBIZARRETA, NICOLÁS: *Más biografías y Catálogo de obras vasco-navarras*, Vitoria, 1871.
34. *Travaux du Prince Bonaparte*, Moniteur Universel, 1855, V. 20.
35. VINSON, JULIEN: *Coup d'oeil sur l'étude de la langue basque*, RLPHC, 1867, I, 381-405 orr.
36. VINSON, JULIEN: *Les vieux livres basques*, in *Variétés euscariens VII*, Imparcial des Pyrénées, 1873.
37. VINSON, JULIEN: *Les premiers livres basques*, Revue de Linguistique 1875, VIII.
38. VINSON, JULIEN: *Essai sur la langue basque, par F. Ribary, traduit du hongrois, avec des notes complémentaires et suivi d'une notice bibliographique*, Paris, 1877.
39. WEBSTER, WENTWORTH: *Recent contributions to Basque Philology*, Academy, 1874.
40. ZABALA, JUAN MATEO: *Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, San Sebastián, 1856.

Zerrenda honetan aipaturiko gehienak ezagutu zituen Allendesalazarrek eta bere liburuaren hitzaurrean iturri gisa azpimarratzen ditu. Kontutan har dezagun 1877. urtea baino lehen argitaratutakoak direla, urte horretan bukatu bait zuen Allendesalazarrek bere sarirako lana. Fitxagintzan jarraitu zuen gure bibliografoak, baina tamalez *Biblioteca del Bascófilo* delako liburua moldiztegirako prestatu zuenak ez zituen bertan geroztikako fitxak txertatu eta saria irabazi zuen lana zegoen zegoenean argitaratu zuen. Argitaratzaile hau Angelen anaia izan zen, Manuel Allendesalazar Muñoz de Salazar (1856-1923), gero Madrideko Alkatea, Ministraria eta Gobernuako Presidente izango zena. Politikako arazoetan aditua bazen ere, ez zeukan, anaiak bezala, bibliografia eta kultura arazoetan horrenbesteko jakituriarik, orain beste batzurekin gertatzen zaigun bezelaxe.

Biblioteca del Bascófilo prestatu ondoren (oraindik argitaratu gabea) fitxagintzan jarraitu zuen Angelek eta semeak dioskunez (Ikus Eusko Ikaskuntzak Oñatin antolatu zuen I Biltzarraren Kronika) Madrideko Biblioteca Nacional delakoak eratutako beste lehiaketa batetara beste bibliografiatzko lan bat aurkeztu zuen: *Escritores Bascongados. Ensayo de una recopilación de datos biográficos y bibliográficos referentes a los escritores de las provincias de Vizcaya, Guipuzcoa y Alava*. Ez zuen oraingoan saririk irabazi eta originala Juan de Dios de la Rada y Delgado jaunaren eskuetan galdu omen zen. Baina Juan Allendesalazar Zaragoza semeak aurkitu zituen aitak lana prestatzeko erabili zituen datuak. 1877tik 1885 arte Euskal Herriaren hegoaldean argitara emandako liburuen fitxak bete zituen Angelek, guztira berrehunetik gora zirelarik. Seguraski, berak eskue-tan izandako liburuetatik aparte, bibliografia hauetan agertzen direnak ere fitxatuko zituen, epealdi horretan argitaratutakoak bait dira:

41. ALTADILL, JULIO: *Estudio bibliográfico. Primera imprenta y catálogo de obras editadas en Pamplona*, in *Certamen científico, literario y artístico en la Ciudad de Pamplona*, Pamplona, 1884, 21-96 orr.
42. ARZAC, ANTONIO: *Euskal liburuak*, EE, 1884, XI, 61-62.
43. CAMPIÓN, ARTURO: *El anti-iberismo. Notas*, Revista Euskara, 1878, I, 231-237.
44. *Les traductions (basques) de l'Imitation*, Revue des Bibliophiles, 1880, 197-202.
45. VINSON, JULIEN: *Variétés de bibliographie basque*, Revue des Bibliophiles, 1879, 1880, 1881.
46. VINSON, JULIEN: *Notice bibliographique sur la littérature populaire basque*, Revue de Linguistique, 1882, 321-326.
47. VINSON, JULIEN: *Notice bibliographique sur le folklore basque*, Paris, 1884.
48. VINSON, JULIEN: *Les études basques de 1883-1884*. Revue de Linguistique, 1884, 246-258.
49. WEBSTER, WENTWORTH: *Books on the basques*, Academy, 1882.

Angel Allendesalazar hil ondoren, baina liburua kaleratu orduko honako lan hauek agertu ziren, liburuan agertzeko baliagarriak:

50. ETXEGARAI, KARMELO: *Bibliografía euscará. Ensayo de un catálogo de obras bascongadas*, EE, 1886.
51. VINSON, JULIEN: *Bibliographie du folklore basque*, BSB, 1885, VI.
52. WEBSTER, WENTWORTH: *Trabajos extranjeros sobre el bascuence publicados en 1884*, EE, 1885.

Beraz, ikusi dugunez, *Biblioteca del Bascófilo* lana burutzeko garairako inprimatuak ziren euskal bibliografiatzko lanak sakabanatuak zeuden eta Allendesalazarrek gehienak bere liburuan bildu eta sistematizatu zituen. Bibliografietatik aparte, liburutegietan ere hainbat informazio lortu zuen, berak aipatzen dituen honako hauek: Madrideko Biblioteca Nacional-a, Historiaren Academiarena, Archivo Historico Nacional-a, Escuela Superior de Diplomática, Jurisprudenciaren Academiarena, Simancas-ko Artxi-boa, Escorialeko Biblioteca, Diputazioetako Artxiboak, Gernikakoa bereziki, Bilbo eta Donostiako Udal Bibliotekak, hegoaldeko lau probintzietako Institutu Liburutegiak, Bilbo eta Gasteizko Elkartetakoak, Bilboko Instrucción y Caridad zelakoaren Liburutegia, Gasteizko Ateneokoa, eta Gernikan Loizagarena, Gasteizen Mantelirena eta Madriden Allendesalazarrena. Iturriak franko izan zituen 2.027 fitxa betetzeko eta lehen bibliografia sistematizatua osatzeko orain duela ehun urte.

Liburuak tituluen arabera ematen dizkigu fitxak, alfabetaren ordenaz eratuta. Baina lagungarri gisa hiru aurkibide azaltzen dira lehen orrialdeetan: 1. Liburuaren egiturarena. 2. Gaika eratua. 3. Egileka eratua. Aurkibide toponimikoa bigarrenetan kokatzen da. Orduko Bibliografia Hiztegiak erabiltzen zuten tankera berbera dauka Allendesalazarren egiturak. Julien Vinsonen 1891an bere izugarritzko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* kaleratu zuenean, tituluka barik kronologikoki eratu zuen bere lana eta sistema honek ere hiru aurkibide eranstera behartu zuen Vinson jauna: gaiena, egile eta itzultzaileena, eta oharrena. Beraz, nahiz eta Vinsonen Allendesalazarren egitura kritikatu, ez zuen bide egokiagorik aurkitu hamalau urte geroago.

Lau urte barru, 1991an, Vinsonen Bibliografiaren mendeurrena ospatuko dugu, eta Azkueren *Euskal Izkindearen*. Bonaparte Printzearen heriotzea ere orduan izango da gogoragarria. Baina oraingoz gogora dezagun Angel Allendesalazarren bibliografia, lehen lan sistematizatua delako, 1887an argitaratua baina hamar urte lehenago prestatua.

HITZ ELKARKETAZ

Euskaltaindiak Lexikologiaz Plentzia-n 1987-ko Urtarrilaren 30 eta 31-rako prestatu zituen batzarretara aurkeztaturikoa.

Alfonso Irigoien

Beloken 1986-garreneko Ekainaren 26 eta 27-an egin ziren bileretan Mikel Zalbide-ren txosten bi irakurri ziren hitz elkartuez eta hantxe bertan jakin genduen zuten mamia. Txanda heldu zitzaidanean hitza harturik hainbat ohar egin nituen eta astia izan balitz gehiago egin nitzakeen.

Hitz elkartuen sailkapena egiterakoan XVII kapitulu agertzen dira, eta hitz andana ihartuak sartuz gero, han esan zen bezala, XVIII.

Berez zerrendan sailkatutik agertzen diren hainbat eta hainbat gai hiztegian baino hobeto gramatikan agertzekoak dira, alderdi batera utzirik, noski, gure denboran euskaldunen artean korritzen duten formak, eta, zertan esanik ez, memoria kulturalen ditugunak, horiek oro hiztegian bildu behar baitira.

Hitzak elkartzeko erregelak behar den moduan erabilirik hitzunen ohituretara heda daitezenak ere hiztegian kokatuko lirakeke garaia letorkiekenean, ez lehenago. Hau da bide zuzena. Hala ere norbaitek berehala lerradake gure hizkuntzari dagokionez bazterretan badela eskabide premia gorrizko bat egungo zibilizazioko zenbait gauza arrunt nola esan behar lirakekeen erantzunaren zai dagoena. Nik neuk halakoetan bakarrik amore emango nuke, ahal denik eta beharrezkoenetan baino ez izatekotan. Bestelako kultura hitzetan hizkuntza klasikoetara joko nuke, batez ere Europako hizkuntza moderno hedatuenetan hala jokatu izan baita, eta gu ere, etnia berezia osatzen dugunarren, Europa-ko kulturen buru belarri murgildurik baikaude, eta Europako kulturaren erroak Grezia-tik heldu baitira.

Jakina, ematen zaigun sailkapena klasifikazio posible bat da eta beste norbaitek zuzen lezake edo alda, eta agian sanskritozko hitz gehiago ere erabil daitezke, nahiz eta hizkuntza hartan diren moeta bat edo beste guk ez dugun edo gramatikazko egituran sartzen dugun, *-ko* genitiboa erabilirik, eta abar, esaterako. Esan nahi dudana da hori Euskaltzaindiak ez

lukeela erabaki behar eta ene ustez legezkoa dela irekirik geldi dadin etorkizun hurbilean nahiz luzean ikertzen jarraitu nahi lukeenarentzat.

Hala ere ez nuke elkarketa moeta bat aipatu gabe utzi nahi: Tovar zenak *geminatu semantikoak* sailean sartu zuena. Hain zuzen ere “Geminados semánticos en vascuence” lanean, *Ioanni Dominico Serra ex munere laeto inferiae*, Università degli studi di Napoli, Istituto di glottologia, 1959, 365-371 orr., tratatzen du kontu hori. Yu. VI. Zytsar-ek artikulua hori gogora erakarri berri digu Euskaltzaindiaren **Euskera** aldizkarian, “Sobre los geminados semánticos de A. Tovar”. XXX (1985), 439-444. “Proponemos se de el nombre de geminados semánticos, —dio Tovarr-ek—, a términos en que, de una manera que podríamos llamar pleonástica, se repite el semantema. Ello se debe a no otra cosa que el bilingüismo, y se registra especialmente en territorios bilingües”. “La geminación puede ocurrir con términos de un mismo dialecto y para evitar la homonimia: de este tipo es el al. *Diebstahl*, donde dos términos sinónimos se han sumado, quizá para evitar la homonimia entre el sustantivo relacionado con el verbo *stehlen* ‘robar’ (aaa. *stala* fem.) y el que significa ‘acero’, *Stahl* (aaa. *stal* masc.)”. Eta zenbait hizkuntzatakako ereduak aipaturik euskarazkoak ere ikertzen ditu, hala nola:

“*Abatorraze, abatorrazi* (bajo-nav., ronc.) ‘panal de miel’”, alderdi batetik *abao / aba / abe* duela, —latinetik omen dator—, eta bestetik zentzu bereko “*orraze* (alto-nav., guip., lab. sul.) ‘panal de miel’”, eta *orrazi*.

“*Abrebestiaki* ‘ganado’: de *abere* (de lat. *habere*, que ha hecho como en otras zonas románicas el camino contrario de *pecunia*, de acuerdo con el retroceso de la economía monetaria imperial a la economía primitiva de la alta Edad Media) y el lat. *bestia*”.

“*Arlauza* (nav.), *harlauza* (bajo-nav., lab., sul.), *arrilauza* (bajo-nav.) ‘losa’”, *harri* duela alderdi batetik eta *laus*a (lat. berandukoa) bestetik, eta abar.

“*Ari-albañu*, que hallo en D. de Agirre, *Garoa* (p. 12 de la 2ª ed.)”, alderdi batetik *ari* duela eta bestetik zentzu beretsuko *albañu* ‘hebra de hilo’.

“*Ussocolumba* (Leizarrague traduciendo Mateo 3,16) es un tipo bilingüe donde el latín glosa la palabra vasca en un compuesto”.

Galbarriartu deitura ere halakoa omen da. Izan ere alderdi batetik *galbar* du, erdaraz ‘calvo’, eta bestetik *i(h)artu, igartu*. Deitura hori Bilbo inguruan dagoen Derio-ko baserri izenetik dator, disimilazioz *Galbarriatu*.

Badira Tovarr-ek aipatzen dituenak baino gehiago ere. Horretara Oiartzun aldeko *izelonbrea*, erdaraz ‘apellido’, *izen* eta zentzu bereko

nombre dituela. *Ikusmiratu*, Gipuzkoan erabiltzen den *miatu* bezalatsu, azken finean *miratu* baita; *ikus(i)* eta zentzu berdintsuko *miratu* elkarturik; Aita Felix Bilbao-k darabil *Ipuin barreka*, Bilbao 1959, 203 orr., liburuan: *Billa ta billa, orko baztarrak ikusmiratu, ango idi-zaiñari itaundu, azkenean azeri bategaz topo egin eban andreak*. Azkue-ren hiztegian *ikusmiran* ‘observando, curioseando’ dator Gipuzkoarako, eta *ikusmira* ‘curioso’, ‘curiosidad’, Bizkai Gipuzkoetarako. *Ipuin barreka*, 186 orr.: *Ikusmira egon: Alan uste eben ikusmira egozan guztiak*.

Usatortola ere tipo berekoa da, zeren *tortola* uso moeta bat baita. Mikel Zalbide-k ere aipatzen du “Atributu edo koordinaziozko elkarteak” multzoan sarturik, “Atributuzko AB izen-elkarteak, B den A”. Or doa *poema olerki* ere, “Idem. A den B”. Baina bertan agertzen diren beste batzu ez dira gauza bera ene ustez, hala nola, *apaiz jaun*, jaun hitza berez ez baita ematen den titulua besterik, lehenago, gainera, aurrean jarririk, *praenomen* modura, Euskal Herriko Ifarraldean irauten duen erara, *jaun apez*, eta abar, esaten baitute, edo *alkate asto*, alkate guztiak ez baitira asto, ezta gutxiagorik ere.

Salmenta ere hemen sartu behar da. *Sal(du)* eta *benta*, —sudurkari asimilazioz *menta*—, elkarturik.

Bide beretik sortu ziren Bizkaiko dotrina zaharretako *Jaundone Peri*, eta abar, eta Lapurdi aldeko *Jondone Petri*, eta abar, *jaun* eta *done* < lat. beranduko *domne*, daramatzatela, eta Bizkaiko *Andrane Maria* eta Lapurdiko *Andredena Maria*, *andra* / *andre* eta *dona* < lat. beranduko *domna*, daramatzatela.

Guzti hau ezagutzen nuelarik hiru pertsonako batzordeak lehenengo eta Euskaltzaindiak gero Donostian nik neuk idatziriko *Kontsonante busti-palatalen grafiaz* erabakia onartu zuten, eta *busti-palatalak* geminatu semantikoa lehenengo aldiz paperean ipini banuen ere inork ez zuen txartzat hartu, ez harrigarritzko begitarterik ipini, berezko gauza bailitz bezala, ikus **Euskera** XXIV (1979), 91-92 orr., 1978-XI-24-an Euskaltzaindiak onartu eta erabakia.

Jakina, hemen ezin utz dezakegu aipatu gabe *irribarre*, Bizkai osoan ondo ezagutzen den hitza, *irri* alderdi batetik eta zentzu berdintsuko *barre* bestetik duena, eta erdarara ‘sonrisa’ moduan itzul litekeena. Zentzuari, gainera, bai *irri* eta bai *barre* hitzetarik zerbait aldentzen da. Mikel Zalbide-k “Atributu edo koordinaziozko elkarteak” multzoan sartzen du *irrifarre* forma duela, “koordinazio elkarteak, izenak: gauza bat A da eta B da”. Egia esateko *irribarre* hitzaren ñabardura ez da es A-rena eta ez B-rena, zerbait berezi baizik.

Beste alderdi batetik, Beloken bertan hitzik eman ez banuen ere, Jose A. Aduriz-ek geroago karta bat bidali zidan esanik niri eskatzea erabaki zutela hamazazpigarren atalari buruzko txostenetariko bat, “PERU

ABARKA elkarte-mota", eta berrikitan telefonoz ere deitu dit. Beraz pertsona izena eta izengoitia dutenak. Erdi aroan bereziki asko dira horrelakoak, baina ez dut uste beharrezkoa denik zerrenda amaigabekorik egitea honako eta aski litzateke bat edo beste aipatzea:

1330-garren urtean Artaxona-n korritzen zuten zenbait ematen ditut, ikus Juan Carrasco Pérez. *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, 291 orr. eta hurrengoak: *Sancho Chapel, Maria Miguel Annaye, Garcia Gorria, Pascoal Chapel, Sancho Lascarro*, —bada beste bat *Garcia Lascarra Caçador*, artikulua gradu gabekoz hornitua, eta duen ofizioa eskribauak erdaraz itsatsirik daramana—, *Johan Urdina, Pero Gaztea, Maria Sanoyz Landerra, Aluerta Guruçe, Miguel Garçeiz Andia, Sancho Guruzçe, Maria Arozca*. —seguru asko *Arozça*—, *Garcia Çuria, la muyller de Miguel Gorria, Aluerta Lasterra, fijo Pero Lasterco*, —baldin -ko berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Miguel Andia, Garcia fijo de Toda Maloa Çauardo, Sancho Leuna. Pascoal Bichia, Xemen Çuria, Miguel Ardia, Miguel Çuria, Sancha Ardia, Pero Çuria, Maria Ortiz Aldazça, Pero Lascarro, Pascoal Aldazça, Maria Ona, Johan Çauardo, Sancho Landerra, Maria Miguel Çayoa, Johan Çayoa, Sancho Olata, Johan Ezquerria, Pero Gapela, Eluira Çamorguina* [sic], —seguru asko *Çamarguina*, ofizioa adierazirik—, *Toda Galzar, Miguel Laburra, Pascoal Chipia, Sancha Ederra, Maria Murro* [sic], *Michel Gorria, Sancho Mercatori* [sic], *Garcia Arozça, Pero Surra, Maria Uella Laburra, Pascoal Mercatori* [sic], *Martin Maloa, Sancha Maloa Aqueza, Garcia Surra, Pero Uerri, Pascoal Martin Chipi, Sancho Murru*, —ikus gorago *Murro*—, *Miguel Euna, Lope Leuna, Garcia Lasterra, Pascoal Surra, Garcia fi de Sancho Laborraria*, —seguru asko *Laboraria*—, *Maria Ygurra, Miguel Garçeiz Lucea, Johan Velça, Miguel Vrdina, Garcia Maloa, fijo de Pascoal Senar, Eluira de Ochoa Galuarra, Miguel Çuria Landergori*, —agian *Landergori*, forma zuzenez heldu baldin bada guganaino, gradu hurbileko mugatzailedun bokati-boka dela—, *Lope Lazcarro*, —hemen -z-rekin, gorago ez bezala—, *Garcia Uiriçe, Maria Varrena, Sancho Surra, Sancha Ederra Aldaçça, Garcia Leuna, Garcia Çauardo, fijo Matheo Galuarco*, —baldin -ko berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Garcia Lasterra, Johan Gorria, Garcia de Lope Luçe, Johan Aqueza, Miguel Rayteco*, —seguru asko aurreko e-bokala galdurik—, *Ochoa Galuarra, Sancho Arça, muyller de Sancho Çurra, Pero Cortes de Garcia Apeça, Sancho Landerra yerrno de Miguel Matayllaria, Johan Olata, Johan Biriçe, Pero Ederra, Ochoa Moça, Bartulon Matayllaria, Pero Martin Chipi, Pero Gorriço, Toda Çurria, Matheo Bargoa, Pascoal Migaya*, —Mogel-ek darabilen *bigae* bezalatsukoa—, *Semen Aqueza, Sancho Miguel Navarra*, —agian kolorearen izena, baina erdaraz Nafarroari dagokiola erabiltzen denarekin nahastenda—, *Martin Olata, Domingo Çelay, Eluira Guruçe, Eluira Miguel Borrocaria, Maria Borrocaria, Maria Leuna, Maria Laza, Garcia Uaraçuri, Maria fiya Johan Charria*, eta abar.

Izengoiti konposatua dutenak, *bahu-vrihi*, 'arroz-asko[-dun] / ...[-ko]', ereduaren arauera, sanskritoz idatzirik बहुरीहि, (1): *Garcia Ongaya, Teresa Beorburuco*, —baldin -ko berrekailuak zentzu hipokoristikoa ematen badio, eta ez genitibo balioa—, *Johan Aldagurri* [sic], —ikus hurrengoan datorren *Aldagorri* aldagarria, sustantibo eta adjetiboz osaturik—, *Pascoal Aldagorri*, *Pascoal fi Yhuela*, *Toda Ardangrina*, ardoa gustatzen zitzaiolako, noski, *fijo de Pascoal Ardangrina muyller de Garcia Mutil Ederra*, sustantibo eta adjetiboz osaturik, *Miguel Mauruburu*, itxuraz mairu baten burua zuelako, edo, formaren aldetik bederen, mairuen buru izan zelako edo zelako, —gauza berdintsua gertatzen da *Toda fija de Lope Mayrubaro*-rekin, dirudienez beste azken elementu bat duela, agian *abaro*, eta *mairu* aldagarria *mairu* formaren ordeztu, *Maria Arceyz Ongaya*, *Miguel Mutil Ederra*, *Johan Periz Ongaya*, *Eluira Muthil Ederra*, la muyller de *Pero Ortiz Eztigrina*, ezitia gustatzen zitzaiolako.

Badira -ko genitiboa daramatela atzean ipinirik agertzen direnak ere: *Johan Ayçingo*, *Miguel Ayçingo*, *Pero Lopez Mendigurrico*, —*Miguel de Mendigurria*, eskribauak erdarazko de preposizioarekin emanikoaren parekoa—, *Sandor Mendigorrigo*, *fijos de Benedit d'Urduylucoa*, erdarazko d(e) preposizioa ere baduela, *Pero Sanz Larraçeco*, *Garcia Larrayngo*, *Sancho Uazterreco*, *Garcia Aldazco*, *Eluira Aldazco*, *Sancho Lacoetaco*, —etako pluralduna daramala, *Martin Uazterreco*, *Sancho Larrayneco*, *fijo Miguel Larrayneco*, *Domingo Marqueylaco*, *Sancho Essacecoa*, *Maria Essacecoa*, *Eluira Garceyz Bazterreco*, *Miguel Bazterreco*, *Pero Essauco*, *Sancho Çarrançico*, *Miguel Larraçeco*, *Pascoal Sarrico*, —eskribauak erdaraz ematen duen *Garcia de Sarria* bezalatsukoa—, *Maria Lacoetaco*, *Garcia Yturrico*, *Garcia Chirriacoa*, —eskribauak erdaraz ematen duen *Pascoal de Chirria* bezalatsukoa—, *Pascoal Ochauerriico*, eta abar.

Testu zaharretako azkeneko bide hau hobetsirik Jon Etxaide-k bere liburu bati titulua honela ezarri zion: *Hamasei seme Euskal Herriko*, orduan -h-rik gabe emana. Jakina, *Euskal Herriko hamasei seme* ere berdin berdin ipin zezakeen, baina zahar kutsuko dotorezia berezi bat hartzen du lehenengoak.

Pertsona izenetan, bestalde, egungo egunean *jaun* eta *andre* hitzak gibelean ipintzeko joera hedaturik badago ere, *Altube jauna*, eta abar,

(1) J. D. Anderson, *A manual of the bengali language*, New York, 1962, 71 orr. eta hurrengoak.

H. C. Scholberg, *Concise grammar of the hindi language*, third impression, Oxford University Press, 1968, 120 orr. eta hurrengoak.

Liburu bi horietan ikerturiko hizkuntzetan sanskritozko karaktereak erabiltzen dira idazteko eta hitz arruntan parean korritzen duten kultura hitzak ere sanskritozkoak dira.

Bahu-vrihi, 'arroz asko [-dun] / ...[-ko]', etsenplu bat da bera ere. *Karma-dharaya* edo deskripzio erako konposatu bat da adjetibo modura erabilia.

testu zaharretan aitzinean joaten ziren, eta egungo egunean maiz Euskal Herriko ifarraldean ere bai: *Jaun Enneco Didacoz de Murueta, Jaun Mauri Blascoz de Bosturia, Jaun Nuno Momez de Arratia*, (1070, *S. Juan de la Peña*), ikus nire lana, *Las leng. de los vizc.*, Bilbao 1985, § 8, *Jaun Umea*, (1243, *El gran Pr. de Nav.*, dok. 300). Ikus baita ere Garibai-k XVI-garren mendean bilduriko kanta zaharrean agertzen den *andra Milia Lasturco*, Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 3.1.5. Ama birjinari dagokiola ere egungo egunean *Andra Mari* esaten da gure artean, maiz baita erdaraz ere, eta ez bestela.

Ez dago esan beharrik, gauza ezaguna baita, patronimikoa erabiltzen denean ere izenaren atzean ipintzen dela, gorago ikusi dugun bezala: *Maria Sanoyz Landerra*, eta abar. Izan ere, Euskal Herriko eremuetan patronimikoaren usarioa zaharrenetarikoa da, eta izenarekin batera huts hutsik joan zitekeen.

Bada, hala ere, arazo bat hitzen konposizioaren erregelei dagokiena eta batere aipatzen ez dena Mikel Zalbide-ren txostenean. Izan ere ezertan araurik ematekotan hor eman behar luke Euskaltzaindiak, bakoitzaren kontura abia ez dadin bide desberdinetarik. Esaterako, bi silabako lehenengo elementuetan *-i* agertzen baldin bazen azkenean normalki desagertu egiten zen lege zaharraren arauera, hala nola, *erbeste*, *herri duela*, *otordu*, *ogi duela*, eta abar, baina hala ere edozeinek esango luke aipaturiko bideari inola ere eutsi gabe *mendi hegala*, *mendi tontorra*, *mendi gaina*, edo *herri inguruak*. Hiru silaba edo gehiagokoetan berdin, azkenengo bokala beti erortzen bazen ere, hala nola, *errege* hitzean, ikus *erret bide*, inork ez luke osorik esan gabe utziko *politika gaiak*, esaterako. Honezaz, arazoa bere osotasunean ikusirik, eredu orokor batzu prestatzea ez litzateke zailegia.

Bilbao 1987 Urtarrilaren 29-an.

XV. SINBOLISMO FONETIKOA ETA HOTS-UZTARDURA HITZ ELKARTUEN ITURRI

Plentzian, 1987-I-30

Tomas Uribeetxebarria Maiztegi

Hasieran eskeini zitzaigun txostenean garbi azaltzen zen onomatopeiak eta errima-bikoteak ez zirela hitz elkartuen sorburu, hitzak sortzen badituzte ere. Eta elkartuen definizio ohietara lotuz gero, hori horrela denik ez du ia inork ukatuko.

Itxuraren aldetik, ordea, nahiz ahoz nahiz idatziz, oso antzerakoak dira batzuk eta besteak, eta ageri duten problematika ere elkarrekin kidegarria da.

Esan daiteke, beraz, eta orokorki hartuta, ongi kokatzen dela errekurso hau hitz elkartuen alorrean, beharbada eranskin bezela sartu behar-ko balitz ere, esaterako "Hitz elkartuen parekoak" izenarekin edo, eta horren azpian bi azpisail: "Onomatopeia errepikatuak" eta "Errima-bikoteak"; horrela berdin balioko luke hauentzat ere hitz elkartuei buruz erabakiak.

Onomatopeiak

Ez dut uste hemen onomatopeiari buruzko teorietan murgildu beharrik dugunik, orokorki onar bait daiteke onomatopeia bitarteko irudikatzaileria dela, errealtatearen imitazioa, komunikatzen ari den erreferentearen irudikapena, soinu linguistikoz burutzen den irudikapen eta imitazioa. Errekurtso hau, berez, ez da linguistikoa: beste edozein bitartekoren parekoa da, esaterako, keinaden edo beste edozein zarata motaren parekoa. Onomatopeia ahoz eta ahoskatuz egiten da, eta honek lexiko sortuntzan badu eraginik, baina bestela, berdin litzateke "Tarr... egin du" esan, edo zarata hori, ahoskatuz egin ordez, jostailuz edo edozein tramankuluz baliatuz egin. Funtzioa bietan bat da: erreferentea nola edo hala irudikatu.

Hau honela onartuko balitz, ez legoke “hots-errepika” (“pil-pil”, “talan-talan”, “ttapa-ttapa”) eta “ablaut-taldeak” (dinbi-danba”, “firri-farra”) bereizi beharrik. Gauza bera eta tratamendu bera onartzen dute “ttapa-ttapa”k eta “ttipi-ttapa”k; “danba-danba”k eta “dinbi-danba”k; “farra-farra”k eta “firri farra”k. Onomatopeiak, onomatopeia den aldetik, ez du “gal-gal” eta “tirriki-tarraka”ren arteko bereiztasunik onartzen.

Baina, hori bai, onomatopeia bitarteko linguistikoa ez bada ere, ahoskatu egiten denez, hitz berrien iturburu bilakatzen da. Onomatopeia-ren bidez, milaka hitz sortu dira hizkuntzetan. Bi eratarata gertatu izan da hori: zuzenean, onomatopeia bera hitz bihurtzen dela, esaterako, “pospolin”, “purra”, “zigzag” (gaztelera) eta zeharka edo, onomatopeiari atzizki eratorleren bat erantsiz, “danbada”, “zartako”, “zigzaguear” (gaztelera).

Errima-bikoteak

Errima-bikoteek ez dute, nire ustez, onomatopeiekin zerikusirik. Errima-bikotea errekurtsu linguistikoa da, hitzez baliatzen delako, ez zarata hutsez, eta hitza errepikatuz ñabardura semantikoa ezartzen diolako hitzari.

Erkatu “hitz” eta “hitz eta pitz”; “inguru” eta “inguruminguru”; “zirri”, “zirri eta mirri” eta “zirri-mirri”. Kasu arruntenetan hitzaren lehen hotsa ezpainbikariez aldatuz, ezpainbikari sudurkariaz gehienbat, gertatu ohi da.

Hartzen duen ñabardura ez da erreza zehatz azaltzen, orokor xamarrak baita, baina badu horrelako erdeinu kutsuren bat: “aitzaki-maitzaki”, “elur-melur”, “irri-mirri”, “nahas-mahas”, “tarteka-marteka”, “zeharka-meharka”.

Erdeinu-ñabardura hori ez da beti garbia, eta hitzak berak ere baldintzatzen du. Esaterako “zehatz-mehatz”en kutsua horrelakoa denik esaten ez nintzateke ausartuko, ez eta “duda-muda”, “tira-bira” edo “sirimiri”rena ere, baina nork uka dezake horrelako airea edo dutenik?

Errepikak indartu egiten du hitzaren esanahia, baina, bidenabar, ironia izpi bat erantsiz: “bildur-mildur”, “auzi-mauzi”, “iritzi-miritzi”, “isilka-misilka”, “saski-naski”, “nahaste-borraste”. Edozein modutan ere, ñabardura semantikoa ezartzen dio, ñabardura hori nolakoa den alde batera uzten badugu ere, eta erabili ere hortarako erabiltzen dela esan daiteke.

Errima bikoteetatik ere hitzak sor daitezkeenik ez dago dudarik. Bidea beti bera da, erabiliaren erabiliz, bere lehen funtzioaren indarra galdu ahala, bikotea esanahi bakarrez jantziz joaten da. Bikotea bera hitz eraketa horren lehen urratsa dela esan daiteke, hasieran “eta” kopulati-

boarekin egiten bait dira errimazko bikote hauek: “isilka eta misilka”, “jira eta bira”, “zehatz eta mehatz”, eta beharbada baita beste era batzutar ere. Errekurtso hau, izan ere, oso lotua agertzen da hizkuntza mintzatuarekin. Oso esate adierazgarriak gertatzen dira elkarriketa bizia-
ren eraginez: “Zer bildur eta zer mildur!”, “Han zebilen jira eta bira”, “Mutil hori, kokolo-mokolo galanta!”

Erabileraren eraginez, adierazgarritasun hori galduz joaten da, eta bikotea esanahi bakar batez jatzten joan daiteke, hitz arrunt bihurtuz, hala nola “sirimiri”, “jirabira”, “handi-mandi”, “tirabira”, “txutxu-putxu”, “nahaste-borraste”.

Idazkera

Errekurtso hauek, onomatopeia eta errima-bikotea, alegia, ez dira berez hitzak sortzeko bideak. Hauen helburua beste bat da, eta ez da erreza mugatzen noiz galdu duten beren lehenbiziko balioa edo helburua, eta noiz bihurtu diren hitz onartuak. Bilakabide honetan etapa guztiak aurki daitezke, oraintxe bertan asmatu eta erabil daitekeen onomatopeia edo errima-bikotea, eta “marmar”, “dirdir”, “sirimiri”, “jirabira” edo “nahaste-borraste”, hitz onartuak direnak, eta ez onomatopeia edo errima-bikote hutsak.

Agertzen duten arazo nagusia, nire iritziz, beren idazkerarena da. Hitz bihurtzen direnean, edo hitz bihurtuko balira, hitz konposatuen trataera bera eman beharko litzaieke. Baina hemen arazoa besterik da, onomatopeia errepikatuak eta errima-bikoteak beren erabilera arruntean nola idatzi.

Horretarako bere betekizuna hartu behar da, kontutan: erreferentea irudikatzea, onomatopeiaren kasuan; eta adierazgarritasuna, errima - biko-teenean. Betebehar horiek ongi aditzera emateko marrattoa, gidoia, har daiteke arau nagusi eta orokor bezela.

Puntu honetan ez da betere adostasunik hizkuntza ezberdinetan, ez eta hiztegi eta autoreetan ere, autore berak edozein erataria idazten dituela: errepika bereiziz, gidoiarekin edo hitz bat balitz bezela. Arras nabaria da irizpide falta.

Halaz ere, nik uste dut marrattoz idazteak hobeto eta artezago agertzen duela idazketa bereiziak baino onomatopeien nahiz errima-bikoteen eginkizuna.

Bi hitzetan idatziz, errekurtso horien funtzio bakarraren indarra ahuldu egiten da, eta ahultzen ez bada ere, bitasun hori eginkizun bakarrarekin ez dator ongi.

Hitz bakar bezela idazteak ere baditu, ordea, bere eragozpenak. Zergatik? Hitzaren ezaugarriak ezartzen dizkielako, eta bereziki azentu bakanerako joera. Azentu bakarra ez dator oso ongi ez onomatopeiaren betekizun irudikatzailaz, ez eta errima bikoteak hizkuntza mintzatuan hartzen duen indar espresiboaz ere. Azentuek errepikari beren indarra ezartzen die, eta hortik dator errepika hutsean, bikoitzean, alegia, bi azentuetatik bat galduz joaten dela, hasierako helburua utziz hitz bihurtzen diren heinean.

“Plisti-plasta” edo “zipli-zapla jo zuen mutikoa” esaldian bi azentuak garbi gordetzen dira. “Han zipli-zapla ugari izan zen” azentu bateko bidean dago, bi ahoskerak onartzen baditu ere, eta hitz bakarraren balioa hartzeko bidean ere bai. “Han zaplateko ugari izan zen” esaldiaren antz osokoa da.

Onomatopeiak, bestalde, errepika hirukoitz eta lauukoitzak ere bikain onartzen ditu: “pil-pil-pil-pil”, “pin-pan-pun”, “barra-barra-barra”, “tiriki-tiki-tauki”. Horrelako errepikak hitz batez idaztea ez da posible, eta guztiz bereziak ere ez leudeke ongi: marrattoia, gidoia, ezinbestekoa da.

Labur esanda, onomatopeia errepikatuak eta errima-bikoteak beti gidoiaz idaztea, horixe izango litzateke niri aski garbi ageri zaidan irizpidea.

Zer egin hitz bihurtu direnekin? Edo beste era batera esanda, nola idatzi “kili-kili” edo “kilikili”?, “ttun-ttun” edo “ttunttun”?, “zurru-murru” edo “zurrumurru”?

Honetarako, elkartuentzat onartzen den irizpidea izango litzateke zuzenena. Behin azentu bat galduz gero eta morfemak onartzen ditue-nean eta zentzu bakar bat hartuz gero, ez legoke batere eragozpenik hitz konposatu bezela hartzeko. Eta egunen batean elkartuentzat araurik ezartzen bada eta jokabiderik gomendatzen, hura bera onartu hautentzat ere.

ONOMASTIKA SAILA

HERRI-IZENEI BURUZKO ADIERAZPENAK

Gasteiz, 1987-XI-9

EAko Alkatejauna

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, 213 zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: *Ea* deitzen dena, euskal bertsio ofizialean: *EA* da.

Herri horren izena dokumentu-agirietan eta idazkera literarioan *EA*, *HEA* edo *Puebla de HEA*, agertzen da. Tradiziozko esaera zahar bat ere ezagutzen da. (Ikus Iturrizaren *Historia General de Vizcaya*).

Udal horren auzo nagusi eta elizate izandakoen izenak honela dira: BEDAROA eta NATXITUA.

“Bedarona” erdal bertsioa da, zeren eta euskaraz bokal arteko *-n-* galtzea baita araua. Horregatik tokiko hizkeran “Bedaru” esaten da apokopez, *Bedaroa* > Bedaro > Bedaru.

NATXITUA izenaren kasuan ziurtatu beharko litzateke azkenengo *-a* hori itsatsia den ala artikulua, alegia, inesiboan galtzen duen ala ez. Adineko lekukotasunen bat aurkitu beharko zenukete, hor bertan, ahal delak euskaldun hutsa.

OLAGORTA, ANGERUTXU, ALDEBASTER, OLABE eta MENDIOLA auzo izenak ez dute arazorik sortzen. Beraz, euskarazko grafia akademikoan horrela ondo daude.

URTZA auzo izena, horrela izan daiteke, baina agian URTZAGA ere bai. Ziurtatzeko dokumentu-agirietan “Urza” ala “Urzaga” agertzen den ikusi behar duzue. Ebakera ere adierazgarri gerta daiteke, alegia, *urtza* ala *urtzá* esaten den bertan.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatzehun eta laurogei eta zazpigarreneko Abuztuaren lauean.

Agur t'erdi!

Batzorde honek bere azken bilkuran, Urriaren 25ean, Leitzako Udal-etxean egindakoan hain zuzen, beste gai batzuen artean, Alkatetza horretatik igorritako bigarren gutuna aztertu zuen eta honako hau erabaki: Euskaltzaindiak bere *Euskal Herriko Udalen Izendegian* agertu bezala, herri horren izena *EA* dela birresten du. Beraz, Akademi Batzorde honen ustez *IA* ez da herri horren euskarazko izen osoa, *EA* baizik.

Tokian tokiko fonetismo guztiak onartzen hasten baldin bagara, Arguia eta ez *Arrigorriaga*, Iborri eta ez *Ibarruri*, Amoto eta ez *Amoroto*, Elantxu eta ez *Elantxobe*, Muttubar eta ez *Munitibar*, etabar bertsioak onartu beharko genituzke.

Edozein Hizkuntz Akademiak bezala, Euskaltzaindiak ere, euskal toponomastikaren arau orokorrak jagonik, eredu osoak eman eta jarraitu behar ditu, ustezko erizpideei ikerketa —zehaztu eta dokumentatueta oinarritzen ez badira—, eta txokokeriei lar jaramonik egin gabe. Bestela anarkiaren oihanean galduko litzateke.

Hara horretaz zer dion *Euskal Herriko Udalen Izendegiak/Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Nomenclature des Communes du Pays Basque* bere 120 eta 130 orrialdeetan. Ikus eranskina.

Guzti hau da, dagokion Batzordearen izenean ematen dizudan erizpena.

Onomastika Batzordeburua

E. Knörr

* * *

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Onomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Euskal Herriko Udalen Izendegia*, preparado y aprobado por esta Institución académica, el clasificado con el número 544 y denominado en la versión castellana *Samaniego*, es, asimismo, en su versión euskérica académica *SAMANIEGO*.

Que el nombre de este municipio aparece documentado a lo largo de la historia de las siguientes formas, según testimonio recogido por Fr. Fernando de Mendoza, en *Laguardia a mediados del siglo XIV*, Revista *Euskal-erriaren alde*:

- SAMANIEGO, villa (R.E.a.).
- Samaynnego, año 1366 (pág. 320).
- Samaynigo, año 1366 (pág. 320).
- Samaynniego, año 1366 (pág. 320).
- Saymannego, año 1366 (pág. 320).
- Samanigo, año 1368 (pág. 320).

En el *Quaderno de Leyes y Ordenanzas con que se gobierna esta Muy Noble y Muy Leal Provincia de Alava y diferentes Privilegios y Cédulas de su Magestad, que van puestos en el Indice; Impresos por mandado de dicha Muy Noble y Muy Leal Provincia*; En Vitoria: en la oficina de Tomás de Robles y Navarro, Impresor de dicha Muy Noble Provincia de Alava. Año de 1776, aparece en su pág. 217 la forma *Samaniego*, año 1742.

Que según acuerdo adoptado por esta Comisión en su última sesión, celebrada el pasado mes de Septiembre, se ratifica que el nombre euskérico de este municipio es *SAMANIEGO* y el de su gentilicio euskérico *samaniegar*.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicha villa, expido la presente en Bilbao a trece de Octubre de mil novecientos ochenta y siete.

V.º B.º

E. Knörr - Presidente de la Comisión.

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Onomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Euskal Herriko Udalen Izendegia*, preparado y aprobado por esta Institución académica, el clasificado con el n.º 112 y denominado en la versión castellana *Baños de Ebro*, es en su versión euskérica académica *BAÑOS/MAINUETA*.

Que a este respecto conviene aclarar que *Mainueta* es el neologismo equivalente a *Baños* en la lengua vasca.

Que a mayor abundamiento en el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Euskal Herriko Udalen Izendegia*, en su página 132, respecto de los neologismos dice lo siguiente: “Sabino de Arana creó el neologismo *Sukarrieta*, traduciendo así *Pedernales*, la anteiglesia de Busturia donde él pasaba los veranos. Nadie negará la aceptación que ha tenido dicho neologismo. De la misma manera y tratando de dar un poco de orden a muchas iniciativas particulares de reeuskaldunización de localidades, en las que por no conocerse la forma euskérica original o por haberse producido la castellanización en época históricamente anterior a la creación de la entidad de población en cuestión, esta Comisión ha procurado abrir un camino, mostrar una guía en este problemático proceso de afirmación cultural nacional. Lanzarse en este camino sin conocer suficientemente el origen del topónimo romance o incluso árabe, sin saber debidamente la evolución de esos mismos romances, no únicamente castellanos, sino también navarro-riojano-aragoneses o astur-leoneses, puede descarriar peligrosamente el camino a seguir. Sin ánimo de afirmar categóricamente una forma, para mostrar una vía modesta, se ha procedido a publicar algunos neologismos o traducciones. No se ha efectuado una tarea general y exhaustiva de todos los que están en esta situación, pues sólo alcanza a dos encartados, cuatro de la Alava meridional, cinco de la Tierra Estella y otros tantos de la Ribera. En todo caso, como dice el Sr. Mitxelena en el prólogo, siempre figuran convenientemente señalizados con un asterisco que indica su condición específica y se ha preferido prudentemente seguir el camino intermedio entre los que quisieran publicar únicamente el neologismo y los que rehusarían a alguna de las traducciones. Se han admitido ambas formas, y que luego en definitiva sean los propios interesados o *sus instituciones representativas*, quienes adopten la decisión última”.

Que según la documentación histórica el nombre de este municipio aparece desde el siglo XIV en su forma actual, es decir, *Baños* o *Baños de Ebro*.

Que según acuerdo adoptado por esta Comisión en su última sesión, celebrada el pasado mes de Septiembre, se ratifica que el nombre euskérico de este municipio es *BAÑOS/MAINUETA* y el de su gentilicio euskérico *bañostar/mainuetar*.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a trece de Octubre de mil novecientos ochenta y siete.

V.º B.º

E. Knörr - Presidente de la Comisión.

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Onomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco/Euskal Herriko Udalen Izendegia*, preparado y aprobado por esta Institución académica, el clasificado con el número 500 y denominado en la versión castellana *Oyón*, es en su versión euskérica académica *OION*.

Que según los datos obrantes en esta Academia, el nombre de este municipio aparece documentado de la siguiente forma:

Año	Versión	Bibliografía
1110-1123	OION	MARTIN DUQUE: Documentos medievales Leire, n. 181.
latsa, latx: “berbérís, petit houx”, difficile à distinguer de *lats*.

goro: “houx”, suffixé en *gorotz* ou doublement en *gorosti*.

othe: “ajonc épineux”.

ira: “fougère”, suffixé en *iratz* assez souvent.

jats et **isats**: “genêt”.

abi ou **gabi**: “airielle”, incertain en toponymie (?).

ihi: “jonc”, avec suffixe collectif *-tz* se confond avec *ihitz* “rosée”.

ilhar, elhar, ainhar: “bruyère”.

ardantz: “vigne”.

aihen: “liane, clématite”.

lehun: “liseron”.

ezkartz: “nielle, liseron” (?).

belhar: “herbe”, se confond avec *belar* “façade, front, devant”.

albin: “herbe”.

bera, beda: “herbe”, variantes de *belhar*.

ol(h)o: “folle avoine”.

anbulo et **unanu**: “asphodèle”.

akara: “nard”, difficile à distinguer de *ak(h)er* “bouc”.

golderna ou **goldarron** (?): “herbe à piquants”.

asun: "ortie" (?) très rare en toponymie.

zalke ou **zalge:** "ivraie".

untz: "lierre".

otsar: "garance", probablement dans des noms où l'on croit lire *otso* "loup". (Beaucoup de ces termes apparaissent si rarement en toponymie qu'il est difficile de les reconnaître avec certitude).

4. NOMS D'ANIMAUX (Y COMPRIS LES OISEAUX):

urde: "cochon", probablement exclu en toponymie ancienne (cf. *urd-*).

otso: "loup"; la fréquence de ce mot dans des noms comme *Otsobi* ("terrier, repaire de loups") où il paraît irrécusable est l'un des faits les plus surprenants de l'ancienne toponymie basque. Mais on doit se rappeler aussi qu'il était très porté comme nom d'homme, régulièrement traduit par "Lupus".

azeari: "renard", mais aussi anthroponyme.

azkon: "blaireau", à peu près aussi incontestable que *otso*, dans le modèle.

Azkonzilo: "trou, terrier de blaireau", *Azkonhobi*, etc.

gamu: "chamois", peu probable, se confond avec des radicaux *cam-*, *gam(b)-* peut-être indo-européens et hydronymiques. (*Cambo*, *Gamo*, *Gamarte*).

aun ou **ahuntz:** "chèvre"; *a(h)un* est aussi "vent du Nord-Est", et on le trouve peut-être en oronymie (en souletin "Pic d'Anie") (?).

akher: "bouc"; incertain en toponymie malgré le mythique *Akelarre*.

orkaz: "chamois", paraît présent dans de rares noms.

Dans les noms d'oiseaux *Urtzo* (qui se confond avec *urd-lurz-*) dialectalement aujourd'hui *uso*, est hautement improbable, et *arrano* déjà cité de même.

ele ou **el(h)i:** "troupeau", quoique rare, paraît sûr dans quelques noms.

behor: "jument", et sans doute plus généralement "équidé", peu contestable dans *Behorlegi*, mais absent ailleurs.

5. NOMS DU DOMAINE, DE L'HABITAT ET DE SES ANNEXES:

iri: "domaine rural", au même sens que le latin *villa*, a suivi la même évolution sémantique jusqu'au moderne "ville". Le sens de "proximité" est incertain quoique logiquement issu de "domaine" supposant une étendue limitée. L'équivalent moderne au Nord est *etxalde*, absent en toponymie ancienne.

etxe: "maison, bâtiment d'habitation", semble avoir pris progressivement la place du mot précédent avant l'époque des premiers documents médiévaux.

-(t)egi: "demeure de...", toujours après anthroponyme, et limité à certaines zones (Cize surtout), sauf dans *Arotztegi* et *Apeztegi*. Le radical ancien semble *egi*, peut-être suffixe (?), le *-t-* étant un phonème de composition, ce qui exclut l'emprunt au celtique ou au latin.

- bila:** emprunt au latin “*villa*”, très rare.
- maz:** emprunt au latin *mansu(m)* ou à ses descendants occitans, très rare.
- gatzelu:** emprunt au latin *castellu(m)* “point fortifié”, assez rare en toponymie d’habitat, très abondant en microtoponymie.
- domek:** “maison noble principale”, emprunt roman, seulement en Soule.
- sala:** “maison noble”, puis “maison dépendant d’une maison noble”, emprunt roman généralisé.
- jauregi:** composé de *-egi* (voir *-(t)egi*): “maison noble”, panbasque.
- ol(h)a:** “cabane” ou “forge”, le second sens dérivant probablement du premier.
- eihera:** “moulin”.
- labe:** “four”; ce mot fait peut-être anciennement allusion à l’écobuage ou défrichement par brûlis.
- borda:** “cabane pour le bétail”, emprunt ancien venu du germanique mais peu abondant encore en toponymie d’habitat médiévale, étendu par la suite.
- lako:** “pressoir, bâtiment du pressoir”.
- berga:** “forge”, emprunt roman, très rare.
- menta:** “magasin”, emprunt roman.
- at(h)e:** “passage”, très rare, se confond avec le souletin *ateü* “aulnaie”.
- bide:** “chemin”.
- zenda:** “sentier”, emprunt très rare (?).
- ibi:** “gué” cf. Hydronymie.
- zubi:** “pont”, semble un composé du mot précédent.
- karrika:** “rue”, emprunt latin, rare en Basse-Navarre, abondant en Soule.
- gorte:** “cour, aire à battre le grain”, emprunt bas-latin.
- angelu:** “sol, aire, basse-cour”, emprunt latin, rare.
- okulu** ou **okelu:** “enclos”, emprunt latin, rare.
- p(h)ezoin:** “pièce de terre, fossé l’entourant”, très rare en toponymie.
- borta:** “ce mot roman a remplacé dans l’usage les anciens *gorta-* par étymologie populaire.
- burgu:** “bourg” (?), emprunt roman.
- eliza:** “église”.
- ap(h)ate:** “lieu de culte” plutôt que “abbaye” très improbable comme nom de maison.
- ospital:** “hôpital pour recevoir les voyageurs et pèlerins”.
- kurutze:** “croix”, très probablement au sens de “croisement de chemins”.

6. POSITIONS:

- gain:** “hauteur, dessus”; voir *-ain* dans les suffixes.
- be** ou **-pe:** “en bas de, bas”.
- garai:** “situé en haut”.
- gar-:** “peut être la réduction ou le radical de *garai*; voir l’oronyme *garr-*.”
- goi:** “en haut, hauteur”.

- goiti**: "situé en haut", dérivé adjectival de *goi*.
-goitz: "en hauteur", forme terminale de *goi* (?).
behe(i)ti: "situé en bas".
behere: "bas, en bas".
aphal: "bas".
goien: "le plus haut".
barren: "le plus bas, le plus à l'intérieur".
ai(n)tzin: "à l'avant, avant".
bel(h)ar: "devant, en face".
aurre: "antérieur, en avant".
aurren: "le plus en avant".
gibel: "arrière".
oste: "arrière", se confond avec *osto* "feuillage", difficile à identifier.
buztan: "extrémité, situé à l'extrémité"; *buztin* "argile" peut avoir cette forme en composition.
buru: "tête, limite".
punta: "pointe, extrémité", emprunt roman très rare.
bazter: "écart, à l'écart".
alde: "côté, au côté".
ondo: "proximité", parfois confondu avec *(h)ondo* qui semble emprunté au latin "*fundu(m)*" au sens de "situé au fond, au plus bas".
urru(n): "loin", mais plus probablement autrefois "de l'autre côté", d'où le toponyme très répandu *Urruti* qui avait précisément le sens de "situé de l'autre côté", comme le montre incontestablement la topographie.
(h)unaindi: "de ce côté-ci", *haraindi* "de l'autre côté", très rares et difficiles à identifier.
ohil: "écarté, désert" (?).
zoko: "coin, écart".
arte: "lieu intermédiaire".
muga: "limite, frontière".
ezponda: "talus, limite", emprunt au latin.
guren: "limite".
hotz: "froid".
izotz: "gelée blanche".
itzal: "ombre".
iphar: "nord, vent du nord".
hego: "sud, vent du sud".
iguzki, ekhi: "soleil, exposé au soleil levant".

7. ANTHROPONYMES:

La toponymie d'habitat comporte dès le Moyen Age, et probablement depuis longtemps (noms de propriétés ou "fundi" à dénomination latine identifiés par J. Caro Baroja dans les zones de présence romaine,

rare cependant quoique bien identifiables au Nord des Pyrénées en territoire basque), des noms formés sur des anthroponymes, désignant normalement le possesseur ou l'habitant soit au moment de la fondation, soit lors d'un changement de dénomination.

jaun: "maître, seigneur".

don: "maître, seigneur", emprunt rare hors des noms de saints.

aphez: "abbé", titre religieux ou laïque (cf. *auzapez* "chef élu du conseil des maîtres de maisons", puis "maire").

bereter: "prêtre" anciennement selon le Pèlerin de Compostelle (1139).

batxaler: "jeune noble, propriétaire foncier", emprunt roman rarissime.

prebost: "prévôt", titre officiel en Navarre et Labourd.

arotz: "forgeron" au Nord, "charpentier" au Sud, équivalent du latin *faber*.

arrotz: "inconnu, étranger, très difficile à distinguer du précédent dans les graphies médiévales.

maieztru: "maître (charpentier ou d'école)" (?).

ehule: "tisserand".

ehaile: "meunier" (?).

unhai: "bouvier" (?) très incertain en toponymie.

pelitzer: "pelletier", emprunt roman.

arrantzale: "pêcheur" (?): il s'agit plus probablement en toponymie d'un dérivé de *arrantz* "pruneillier".

ihiztari: "chasseur", exceptionnel en toponymie.

argintza: "métier de maçon", tout aussi exceptionnel.

Un assez grand nombre de bases anthroponymiques des noms de lieux se réfèrent au lieu d'origine de l'habitant (pays, province, village, ville, maison) utilisé communément comme surnom. Ils renvoient à la toponymie générale et ne sont pas notés ici.

agot: "goth, Wisigoth" selon toute apparence, présent en Basse-Navarre, Soule et dans le domaine occitan.

moros: "Maure" (?), très rare.

Basko: prénom "Pascal" plutôt que "basque", qui n'est pas cependant exclu.

Erroma: "Romain", prénom plutôt que nom de peuple.

Ezker: "gaucher" comme surnom.

Gorria: "rouquin" idem.

Kalbet: "chauve" (?) surnom devenu prénom en zone gasconne (Caubet).

ortus: "nu-pieds" (?).

mantxo: "calme" (manso) ou "manchot" (?).

ema: "femelle", forme de composition de *eme*, employé une seule fois (?).

ximil: "peut-être variante de *zimel* "desséché", une seule fois aussi (?).

bitxi: "bizarre" ou prénom ancien (?).

Les prénoms présents en toponymie médiévale sont les suivants: *Lope, Zantz, Jakes, Karles, Menaut, Basko* (?), *Marko, Azeari* (?), *Aparitzu, Merio* ("Emilion" plutôt que venu de *merino*, mot lui-même très employé durant tout le Moyen Age) *Erroma* (?), *Gomiz* (?), *Eneko, Peruko, Domintx, Bibian* (?).

Les noms de saints sont portés par des maisons nobles, rarement des maisons franches, et se retrouvent en général dans les noms de hameaux, de paroisses, puis des communes qui en sont issues: Etienne (*Estebe*), Martin (*Marte*), Vincent (*Bizentz*), Julien (Saint-Julien donne *Donai*), Marie (*Maria*), Engrâce (*Garazi* ou *Grazi*: ce n'est pas selon toute apparence l'origine de *Garazi*, nom basque de Cize attesté ainsi au XV^e siècle), *Jacques* (*Jakube*), alors que le prénom issu du roman est *Jakes*) parfois *Jaime*, en basque *Donaiki* dans l'usage moderne (maison noble), Pierre (*Petri* au XIV^e siècle, mais apparaît plus souvent sous les formes gasconnes *Pes, Per*), Jean (*Johan* dans tous les documents), Michel (*Mikel*), Palais ou Pélage (*Pelay, Palay*), Félix.

8. QUALIFIANTS:

Bien que l'adjectif qualificatif se distingue très mal du substantif en basque et plus encore en basque ancien, et que pour cette raison des termes à valeur ou morphologie de qualificatif (dérivés en *-ti* du type *beheiti, urruti*) se trouvent déjà dans les rubriques précédentes, je groupe ici quelques mots sous ce titre de "qualifiants" par simple commodité.

goi, goitz, goien, goiti: "haut", etc.

garai: idem.

behere, beheiti: "bas", etc.

barren: "le plus intérieur", peut-être aussi le symétrique de *goien*, +*behen* ou +*beheren* n'étant jamais attestés.

bar ou **barre**: peut-être radical du précédent (?), apparaît rarement.

handi: "grand".

xipi: "petit".

gapare: "principal", et non "noble" comme il a été écrit parfois.

zabal: "vaste, plat".

luze: "long, allongé".

aurre(n): "de ce côté-ci, le plus avant".

urru(n): "de l'autre côté".

berri: "neuf, nouveau" et par extension "nouvelline, terre nouvellement défrichée".

zahar: "ancien, vieux".

gazte: "jeune".

gorri: "rouge, sec", et par extension "terrain ayant ces caractères".

urdin: "gris, sale" plutôt que "bleu", couleur tout à fait inacceptable en toponymie; "terrain ayant ce caractère".

zuri: “clair, blanc”.

bel (dans **arbel** etc.) et son dérivé **beltz**: “sombre, noir”.

n(h)abar: “bigarré, vert”.

bertze: “autre”; le passage à *beste*, antérieur au XVI^e siècle au Sud, ne s’est pas fait avant le XX^e siècle au Nord et n’est pas encore généralisé.

eder: “beau”, rare en toponymie.

apal: “bas”.

nagi: “lent”.

mehe: “étroit”.

gaitz: “mauvais” ou “énorme”.

(h)ori: “jaune”, très incertain (?).

noa: “romanisme basquisé “neuve”, une seule fois mais incontestable.

franka: “franche”, emprunt roman localisé en Soule.

hotz: “froid”, rare.

* * *

B) SUFFIXES et POST-POSITIONS

Remarque. La notion vague de “post-position” est linguistiquement nécessaire, dans la mesure où il est impossible de définir avec précision si certains segments terminaux de toponymes sont bien des suffixes, sans existence hors du système de dérivation, ou bien des mots pouvant être employés indépendamment. Le fait que l’on trouve parfois des mots du lexique moderne issus de telles post-positions anciennes (comme *gunel/unc, tegi, toki*), avec souvent fixation d’une dentale initiale étrangère au système phonétique basque et qui avait seulement une fonction morphologique (ou euphonique?) en composition et dérivation, n’est pas une preuve déterminante pour savoir quel était exactement le statut ancien de ces éléments, qui sont les plus difficiles à reconnaître et analyser dans l’ancienne toponymie.

-aga: “lieu de, terrain attenant à”, le suffixe locatif le plus archaïque et le plus répandu avec **-eta**. Modèle *Elizaga*: “lieu (proche) de l’église”.

-eta, parfois **-keta**, ou **-ta**: “lieu de” au sens le plus général, sans aucune nuance de pluralité, sauf par le contexte.

-ate, et **-te**: “forme assimilée du précédent après des mots à voyelle dominante **-a** (Haltzate, Garate, Arrate, Larrate...), ou suffixe original probablement locatif (?), le contexte sémantique n’étant pas très favorable au mot *athe* “porte, passage”, peut-être d’origine pré-latine (?).

-oki, parfois **-doki** et **-(z)toki**: “lieu de, emplacement”; le mot moderne *toki* a été fait par figement de la dentale de liaison qui apparaissait presque exclusivement après sifflante (on a fait de même récemment

de *alde* et de *arte* les mots *talde* et *tarte* contraires au système phonétique basque qui excluait les dentales initiales, sauf *d-* dans les verbes). Le segment *oki* pourrait avoir été un mot indépendant et non un suffixe. Type *Arroki* "emplacement pierreux".

- ain**, -**an**: "suffixe de sens incertain, locatif ou en relation avec *gain* "hauteur", toutes les fois où le thème n'est pas anthroponymique (?).
- ein**, -**ain** après un anthroponyme, suffixe d'appartenance probablement d'origine latine: "type *Domezain*, *Gentein*, surtout en Soule.
- ana**: "forme déterminée de l'un des deux suffixes précédents.
- un**, -**gun**, -(z)**kun**: "lieu de", suffixe ou post-position de sens purement locatif, probablement le même que les mots modernes *une* et *gune* de même sens.
- ku**, -**gu**, -**u**, -**ume**: probablement variantes phonétiques du précédent.
- ale**, -**au**, -**le**: variantes d'un suffixe à latérale de sens tout à fait incertain, peut-être locatif (?), avec vocalisation gasconne dans -*au*: type *Azkuele*, *Etxele*, *Samau*.
- azu**, -**tsu**: variantes d'un même suffixe fréquentatif: "abondant en". Type *Leizaratzu*, *Jatsu*.
- tz**: "fréquentatif ou locatif, surtout avec le lexique végétal, mais pas exclusivement (type -*goitz*, lexicalisé dans *iratz* de *ira*, *beltz* de *bel*) (?).
- atz**: appartenant à une série de suffixes à finale sifflante et voyelle divergente, peut-être de sens fréquentatif (?), difficile à distinguer de -*atzu* et du mot *aitz* avec réduction de la diphtongue.
- etz**: idem.
- itz**: idem, extrêmement abondant en toponymie basque archaïque, ne peut être confondu en principe avec -*atzu* (?). Type *Zalgiz*, *Soritz*.
- oz**, -**uz**, -**otz**: l'abondance de ce suffixe en toponymie au sud de la Garonne l'a fait dénommer "aquitain", mais il est étendu sur tout le pourtour méditerranéen. Probablement fréquentatif (?). Les noms admettant l'adjectif *hotz* "froid" sont très rares. Type *Urdoz*, *Arroz*.
- toi**, -**doi**: suffixe fréquentatif surtout avec des noms d'arbres: "plantation de" ou "abondance de". Type *Ametztoi*, prononcé généralement *Ameztoi*.
- ti**, -**di**: formes à diphtongue réduite du précédent.
- ti**: de valeur adjectivale dans *behe(i)ti*, *goiti*, *urruti*...
- tu**, -**du**: "autres formes à diphtongue réduite de -*toi* et -*doi*. Type *Arraidu*.
- ko**: suffixe diminutif, pouvant se confondre avec -*ku*. Type *Mendikoaga*.
- to**: suffixe diminutif. Type *Hegito*.
- ango**, -**anko**: suffixe archaïque et rare peut-être diminutif (?).
- usko**: suffixe de type méditerranéen, peut-être diminutif (?). Type *Iturrusko*.
- uski**: idem (?).
- aski**, -**azki**: idem (?). Type *Urdazki*.
- ki**, -**kin**: suffixes de sens tout à fait incertain, peut-être diminutifs ou en rapport avec -*oki* (?).

- nika**: suffixe obscur, peut-être en rapport avec l'ancien *ika* (cf. *hamaika*) "un" ou "un tout seul" (?). Dans *Etxenika*.
- i**: suffixe de valeur incertaine et difficile à identifier, peut-être de valeur adjectivale (cf. *Garai*, *Bizkai*). Type *Lakarri* (?).
- o**: obscur mais incontestable. Type *Garro*, *Zabalo* (?).
- entz**: suffixe obscur, peut-être d'origine prélatine. Type *Leherentz* (?).

Bien que cette liste ne soit pas totalement exhaustive, elle comporte encore beaucoup d'incertitudes de formes et de sens, dont une partie au moins devrait se trouver éclairée par la collation et le classement de l'ensemble de la toponymie ancienne du domaine basque, en tenant toujours le plus grand compte de l'époque où les noms sont documentés, et des changements qui ont pu survenir dans le système linguistique, le vocabulaire ou les procédés de dénomination.

IBAIZABAL ZERITZAN ETA ETORKIZUNEAN ERE LERITZAKEEN IBARRAZ

1987-I-9

Alfonso Irigoien

Informazio lan hau Eusko Jaurlaritzan kokaturik dagoen IVAP-entzat egiten dut, hala eskatu baitzait.

Gaia Bilbo-tik Portugalete-ra bitartean urak daramatzan ibaiaren izen zaharra zein den finkatu nahiean oinarritzen da, gero horren arauera erabaki behar omen baita nola izan behar lukeen erdaraz *Cuenca del...* deitzen dena, eta euskaraz ... *Isurigunea*.

Ibai horri une batetik aurrera *Nervión* deitu izan zaio erdaraz, baina izen zaharra, jadanik XI-garren mendeko dokumentazioan agertzen dena, *Ibaizabal* da, euskaldunen ahotan ia gure egunetararte arrunt erabili izan dena gainera, geroxeago ikusiko dugunez.

1802-garren urteko *Diccionario geográfico-histórico de España*, II, dela-koan hurrengo hau esaten da:

“**Nerva**, río el más considerable del señ. de Vizcaya, llamado también por algunos Nervión, y más generalmente Ibaizábal, voz vascongada, compuesta de Ibai, o Ibaia, que significa río, y Zabal o Zabala, que quiere decir ancho. Parece ser el que Tolomeo sitúa en los autrigones a 13° 10' de long. 44° 40' de lat., dándole el primero de dichos nombres...”

Real Academia de la Historia-ren testu honetarik hurrengo ondorio hauek atera daitezke:

1. Berez dagokion izena, eta espreski esaten denez hedatuena gainera, *Ibaizabal* dela.

2. Erromatarren garairako Ptolomeo-k aipatzen duen *Nerua* ibaiaren izenean oinarri harturik zirkulu batzuetan *Nervión* deitzearen alde bultzatu nahi izan zela balantza. Baina hura autrigoen artean kokatzen zela esaten bada ere ez dago batere argi *Ibaizabal* izenekoarekin nahi nahi ez identifikatu behar denik, zeren testuaren interpretazioa egitera-koan, beste alderdi batetik dakigunez, oztopoak nabarmen gelditzen baitira.

Izan ere *Nerviñ* izena Urduña ingurukoari dagokio: “que algunos llaman también río de Orduña”, y que “tiene su nacimiento a corta distancia de esta ciudad en los altos montes, sierra o peña de Orduña, en la hermandad de Arrastaria, provincia de Alava, de dos fuentes llamadas de Ureta, que manan en la sierra de Guibijo, parte de aquélla, y en el término o sitio denominado por los naturales peña Nerviña o Nervina, las cuales, despeñándose precipidamente como desde un cuarto de legua de altura, y formando algún caudal, atraviesan de s. a n. por medio de los lugares de Délica, Artómaña y Aloria y corren con la misma dirección por cerda de Tertanga, dexándole a la izquierda, así como a la ciudad de Orduña, que baña a distancia de un tiro de piedra o poco más”.

Real Academia de la Historia-ren esanak ez daude urrun Iturriza-k izkribuetan bere eskuz garai hartarako adierazirik zituenekin:

“Origen y curso del río Nerviñ, vulgo Ibaizábal, y nómina de repúblicas que baña sus territorios”. Leku batean “declaración del origen y curso del río Nerba por la sierra eminente de Oiz” ere esaten du. “El cual río es engrosado considerablemente tres cuartos de legua más arriba de la villa de Bilbao al par de la casa de Aquerribai, con el río Cadagua en Luchana, y con otros que se le agregan hasta que se une con las aguas del océano en la proximidad de la villa de Portugalete”, I, 12-13 orr. (1).

Goian esan dugunez **Juajzaua*l edo antzeko zerbait agertzen da San Millan Kukullako kartularioan 1095-garren urtean (2). Luciano Serrano-ren 1930-garreneko edizioan hurrengo hau esaten da: *Ego Petrus episcopus feci conventionem cum potestativus et militibus, rusticis et mulieribus de Ayala, ita ut de illo flumine qui venit de Angulo ad Jurizabal* [sic], ..., dok, 283. Dirudienez traskriziorako Minguella-ren kolezioa erabili zuen, egungo egunean galdurik dagoen izkribu gotikoan iturria duena. Llorente-k, ordea, n.º 80, *Ibaizabal* ematen du 1807-garren urtean, gotikoa ikusirik (3).

Izkribu gotikoan zegoena badirudi **Juajzaua*l itxurakoa zela, eta Serrano-renera *Jurizaval* moduan iragan zela -a- baten lekuan -r- ipinirik. Llorente-k, jakina, ortografia moldatu zuen.

(1) JUAN RAMÓN DE ITURRIZA Y ZABALA, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, prólogo, notas e índices de Angel Rodríguez Herrero, Bilbao 1967, II tomo.

(2) D. LUCIANO SERRANO, O.S.B., *Cartulario de San Millán de la Cogolla*, Madrid 1930.

(3) JUAN ANTONIO LLORENTE, *Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, “Apéndice o colección diplomática”, III, Madrid 1807. Bost tomo dira 1806 eta 1808 bitartean argitarata emanak.

Ibai hori, noski, Angulo-tik Ibaizabal-era dator, bidean Kadagua-rekin baturik. Beraz Zorrotza aldean biltzen zen XI-garren mendean ere, orain bezala.

Gainera ibaiaren izena Bilbo inguruko leku bati ere, Abando-ri zegokiona, itsatsi zitzaion, eta jadanik XV-garren mendean agertzen da *B. e Fortunas* izkribuan *Ybayçaua* forman, fol. 79, 185. (4).

Hau honela izanik uste dut izen zaharrak bere lekua eskura behar duela eta *Ibaizabal* deitu behar zaiola, *Nervión*, euskal fonetikara makurturik *Nerbioi*, Urduña aldekoarentzat utzirik.

Beraz, erdaraz *Cuenca del Ibaizábal* esan beharko litzateke, eta euskaraz *Ibaizabalgo Isurigunea*. Jakina, *Ibaizabal* Galdakao-tik gora ere deitzen zaio, eta hori bereizteko *Cuenca del Alto Ibaizábal* esan daiteke erdaraz, eta *Ibaizabal Garaiko Isurigunea*, euskaraz. Urduña aldekoari *Cuenca del Nervión*, erdaraz, eta *Nerbioiko Isurigunea*, euskaraz.

Bilbao, 1987-garreneko Urtarrilaren 9-an.

Alfonso Irigoien
Euskal Hizkuntzaren Departamentua
Deustuko Unibertsitatea

(4) LOPE GARCIA DE SALAZAR, *Las Bienandanzas e Fortunas*, primera impresión del texto completo, con prólogo, notas e índices, por Angel Rodríguez Herrero, Bilbao 1967, t. IV.

BERRIAK

“ESKUALDUNA” ALDIZKARIAREN MENDEURRENEKO

MEZA SAINDUKO PREDIKUA

San Andreseko elizan

Baiona, 1987-III-21

Pierre Molères, Baionako Apezpikua

“Zoazi garbitzerat, Ziloe-ko mainutegirat”.

Sortzetikitsuak gira denak.

Bainan denak gomitatuak gira,

bataio-uretan sartzerat.

Gutarik bakotxa bataiorat deitu da,

bai eta gizon guziak,

eta beraz kultura guziak.

Herri bakotxak badu bere molde berezia,

mintzatzeko, bizitzeko,

gauzen senditzeko, bere berri emateko;

baditu bere ontasunak, bere ixtorioa, bere xedeak,

badu beste herrien artean bere tokia.

Horiek guziek dute egiten

herri baten kultura.

Ziloe-ko iturrian garbitu zen eta argitu,

sortzetikitsu zen gizona.

Ziloe hitzak erran nahi du: igorria.

Jaunak igorri Kristo da gure argia.

Ziloe-ko uretan garbitzearen eta argitzearen

beharra badute

gizon guziek eta kultura guziek.

* * *

Itsua sendatu zen.

Bainan lekuko guziek

galde bera dute ezpainetan: “Nola?”

“Nola ideki zaizkitzu begiak?”

diote auzoek.

Farisauek aldiz:

“Nola ditake holakorik?”

“Nola” horrekin, nahi lukete jakin,
zer jukutriaren bidez
duen Jesusek itsua argitu;
holako gauza miresgarria
gizon xoil baten ahalen heinekoa
balitz bezala.

Ez dute gorago joan nahi.
Ukatzen dute mirakuluaren egilea;
gertakari hortan ez dute ezagutu nahi
Jainkoaren eskua.

Jesus nor ote den,
hortan da auzia.
Farisauek ez dezakete onets,
Jainkoak igorria dela.
Itsua ihardesten diote:
“Ez balitz Jainkoaren ganikakoa,
ez lezake deus egin”.

Gutarik bakotxa ere
maiz hola ari da:
Jainkorik ez balitz bezala,
Jainkoa ikusi nahi ez balu bezala.

Kultura ainitzek ere
Jainkoa kanporat botatzen dute:
edo osoki baztertuz,
edo aipatu gabe utziz:
bakotxak egin dezala nahi duena,
Jainkoari baia edo eza eman.

Ez dezakete jasan,
Jainkoak lehen tokia har dezan,
gizonen arteko bizian
Jainkoa sar dadin.

Zuzen da, ez ditzagun
eremu guziak nahas:
mundua eta Jainkoaren erresuma.
Zuzen da, Eliza-buruzagiak
beren alorrean egon ditin,
mundu huntako kargudunekin
sobera josi gabe,
eta heien lekua hartu gabe.

Bainan ohart gaiten
zer ekar dezoken Kristok,
zer ekar Elizak,
herri bati, kultura bati.

Beste erakaspén bat badauka
egungo Ebanjelioak:
zer den jende umilen,
apalen, pobreen fedea.

Beha dezogun gizon itsu horri:
nolako zentzuaren jabe den,
eta Jainkozko gauzeri zoin idekia.

Farisauen galde bihurrieri
sanoki ihardesten diote,
arralleria doi batekin.
Heiek erraiten diote:
“Guk bazakiaguk, gizon hori, Jesus,
bekatoros bat dela”.
Harek beretik:
“Bekatorosa denetz, ez dakit;
nik dakitana, itsu nintzela
eta orai ikusten dutala.
—Nola ideki dauzkik begiak?
—Jadanik errana dautzuet,
eta ez duzue entzun.
Zertako nahi duzue berriz ere aditu?
Ala zuek ere haren dizipulu
nahi duzue jarri?”
Solas-aldi hortan, itsuena zoin ote da?

Holaxe dabilta orai ere,
Jainkoaren adixkide direnak.
Biziko neke eta nahigabetan,
Jainkoak igortzen diote argi eta indar,
inguruko tzarkeria eta ezazolkerien artean
leial egon ditén.

Geroago eta barnagodanik ezagutzen dute
Kristo Jauna,
itsuak ere emeki-emeki ezagutu zuen bezala.
Lehenik aipatzen zuen
“Jesus deitzen duten gizona”,
gero “profeta”,
gero berriz “Jainkoaren ganikakoa”,
azkenik “gizonaren Semea”,
izen horrek Liburu Sainduetan
erakusten baitu Jaunaren zerbitzaria
eta azken eguneko Jujea.

Jende umilak Jainkoari hurbil-hurbila daude,
eta guri ere heien bidez
zaiku Jainkoa agertzen.

Euskaldunak, zer makurra litaken,
zuen herritarrentzat, gaztentzat,
herria zaindu nahi dutenentzat,
onartzen balute
Kristoren eta Elizaren ganik
berex egoitea!

Aintzinekoek utzi ondarerik handiena
gal lezakete,
bai eta geroari buruzko
ontasunik baliosena.

Uste gabetarik,
eta behar-bada nahi gabetarik
jar litazke
heietaz ederki baliatuko diren
kanpotikako artzain batzuen meneko.

Girixtino fedeak
iraun dezala gutartean.
Sinesten duenak ikusten du,
gaua garraitzen du.

Itsuak bezala,
erran dezogun Jesusi: "Sinesten dut".

Itsuak bezala,
hauta dezagun argia.

Halabiz

MEZA SAINDUKO KRISTAU ESKAKIZUNAK

Baiona, 1987-III-29

Juan Louis Davantek kantatua

Kristoren entzuleak
elizan bildurik,
Fedean bizitzeko
ez ukan beldurrik!
Indar eman diezagun
maitasunarekin,
Aitaren aitzinean
dugun otoitz egin.

Estatua jainkotuz
asko baita-galtzen,
Jendea bego lehen
eta ez infrentzuz!
Munduko-gobernuak
azkenean zentzuz
Denen zerbitzatzeaz
axola ditezen.

Goiko izpiritua
lurrean onartuz,
Kulturaren indarra
ezagut dezagun.
Euskararen eskua
orori luzatuz,
Gogo berri batekin
gaudela euskaldun.

Euskara, lurra lana
loturik elgarri,
Bere libertatean
errespetatua,
Bakean bizi dadin
euskal populua,
Populuen artean
jaunari kantari.

“R. M. AZKUE eta P. BROUSSAIN-en arteko ELKARRIDAZKETA”

Iker-4

Bilbon, 1987-III-8

P. Xarritton

Bizkaiko Ahaldundiaren laguntzari esker Euskaltzaindiak argitaratzen duela-rik bere IKER saileko 4. liburua, R. M. Azkue eta P. Broussain-en arteko elkarridazketa, nahi dizuet, Jaun Andre agurgarriak, gutundegi horren historia laburra aipatu.

Badu ja 9-10 bat urte, Kanada-tik itzuli berri ginelarik, emaztea eta biok, Hazparneko gazte multzo batek, Hazparnen irakasle den Jean Louis Davant euskaltzainak bultzaturik, gaizki ez banabil, nahi izan zuen hazpandar euskaltzale handi baten, Piarres Broussain zenaren oroimena bere sorterrian berritu. Orduan Euskaltzaindiak gizon horri eskaini zion omenaldiaren kariatara gaur gutartean dugun Jenofa Broussain-Le Roy andereak salatu zigun, Lehuntze Nagile-ko bere etxeko selauruan bazeuzkala bizpalau kutxa, aita zenaren paperez beterik.

Horra nola hasi nintzen 50 urteetako errauspean zeuden paper zaharren eskustatzen, miatzen eta sailkatzen. Jean Haritschelhar-ek eta Janpiarre Larremendy-k Hazparneko omenaldian egin zituzten mintzaldietan aurki daitezke aurkiberri horren lehen emaitzak (**Euskera**, 1978-1 (XXIII-2.aldia), 169-174 & 175-179). Nihonek ere artikuluxka bat argitaratu nuen orduan, lehen hurbilketa bezala; ikus **Euskera** 1979-1 (XXIV-2.aldia), “Piarres Broussain-en paperak”, 167-170.

Lehuntze-ko paper eta izkribuen osatzen saiatu nintzen gero, bai Hazparne-ko Herriko-Etxean, bai Euskaltzaindiko artxibategian, bai Baionako Euskal Erakustegian, eta laster konturatu nintzen banuela eskutan Piarres Broussain bera beraurkitzeko bidea. Horra zergatik Jean Haritschelhar-ekin prestatu nuen Borden-
len “Pierre Broussain, sa contribution aux études basques”, Paris CNRS, 1985, deritzan ikerlana.

Broussain-en bidetik ordea aurkitzen dugu haren inguramen aberatsa, hots XX. mende honen lehen laurdeneko euskal mundu osoa: Arana Goiri eta Cam-
pion, Urquijo eta Elorza, Aranzadi Estanislao eta Koldo Eleizalde hegoalde-
tik; Hiriart-Urruty eta Arbelbide, Lacombe eta Etchepare, Constantin eta Saint-Jayme, iparralde-
tik eta oroz gainetik, bi eskualdeak hartzen dituela, 1897an Donibane Lohitzuneko Euskal Pestetan ezagutuz geroz hil arteraino osoki gogoz eta biho-
tzez kide izanen duen Resurreccion Maria de Azkue, Lekeitio-ko semea.

Diodanaren lekuko, hor ditugu aipatu ditugun presuna horien guzien gutu-
nak. Zenbait argitaratuak dira jadanik, hala nola “Sendoa” argialetxeak argitaratu

duen Sabino Arana Goiri-ren obraren 2. argitalpenean agertu direnak, "Maiatz" aldizkariaren zenbaki batean agertuak (1982-2) edo "Bulletin du Musée Basque" delakoak agertuak (1982-4; 1985-2, 3, 4; 1986-1). Beste zenbait oraino argitaratuko ditugu, Jainkoak nahi badu. Baina gure ustez aberatsenak gaurko hauek dira, erran nahi baita, 1897tik 1920 arte, Azkuek eta Broussain-ek kurutzatu zituzten eskutitzak. Orotara 165 badira eta eratziki dizkiegu beste bospasei, Broussain-en etxen Lacombe eskuratu zituenak, haien jabea hil zen egunetan. Lacomben paperetan aurkitu ditugu eta hemen ezarri Euskaltzaindiaren historiari buruz duten interesagatik. Ezen aita Villasantek erran digun bezala, Euskaltzaindiaren aurrehistoria aurki dezakegu elkarridazketa honetan.

Baina ez hori bakarrik; Azkue-ren lan nagusien, haren hiztegiaren, haren kantutegiaren historia ere asko argitzen digu, gure ustez. Oroz gainetik euskararen batasunaren xede lehena ikertu nahiko duenak Broussain-en eskutitzetara jo beharko du, nahi-ala-ez.

Alta bada, Azkuek eta Broussain-ek elgarri idatzitako guziak ez dira hemen agertzen. Bat edo beste oraino nonbait ager daiteke, baina oroz gainetik erdiak edo gehiago sekulakotz galdu dira.

Azkue-ren lehenak, Broussain oraino Parisen ikasle zelarik harat igorriak, Broussain-ek berak galdu zituen. Broussain-enak aldiz Azkuek Tours-en edo Kolonian zelarik ukan zituenak ez zituzkeen Azkuek berak begiratu. Geroago, 1912tik hara, eta bereziki 1914eko gerlaren ondorioz, bi adiskideen elkarridazketa eteten bezala bada ere, izigarriko suarekin abiatzen da berriz azken hiru urteetan: Hazparnetik etorritako 15 eskutitz badira Euskaltzaindiaren artxiboan, baina hauen erantzunetarik 4 baizik ez ditugu aurkitu Broussain-en kutxetan.

Dena dela, ez dugu uste gure ikerketa osoki alferra eta agorra izan denik: gutienetik bi euskalzale handiren begitartea eta botza bera (1) berraurkitu ditugu. Eta gure euskal kulturaren historiak baititu oraino eremu asko aztergai, agian gure mende honek eremanen ditu aintzina bilketa lanak, ondoko belaunaldiak egin dezan gero bildutako bazkaren ausnarketa.

(1) Broussain-en paperetan ikusirik, 1913an, Vienna-ko Akademiako Rudolf Trebitsch jakintsuna Euskal Herrira etorri zela, euskal soinuak fonografa bidez biltzeko, eta Broussain eta Azkue eta beste euskaldun askoren botzak grabatu zituela, grabaketa horien kopiak Vienna-ko Akademian eskuratu ahal izan dira eta gaurregun Euskaltzaindian daude entzungai.

“RESURRECCION MARIA DE AZKUE ETA PIERRE BROUSSAIN-EN ARTEKO ELKARRIDAZKETA” LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbon, 1987ko Apirilak 8

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

J.M. Makua Bizkaiko Diputadu Nagusia

T. Uribeetxeberria, Kultur Diputadu eta Arduraduna

Jaun-andreak, egunon denoi!

Hasteko, eskerrak eman beharrean naiz, eta gogotik ematen dizkiot, Bizkaiko Foru Diputazio txit Gorenari Euskaltzaindiaren izenean. Hura lagun izan dugulako atera ahal izan baita gaur aurkeztzen dugun liburu berri hau, “Iker” sortaren 4. zenbakia daramana. Zein da beronen edukina? Azkue, Euskaltzaindiaren sortzaile eta lehen Zuzendariak, eta Pierre Broussain Iparraldeko jaun midiku, politikari eta lehen orduko euskaltzainak elkarri egindako eskutitzen bilduma. Eskutitzok joan-mendeko azken urteetan hasi eta mende honetako lehen hogeikadan barna eginak dira. Guztira, Azkuerenak 85, Broussain-enak 80. Badira eranskin batzuk ere.

Baina liburuan ez da ematen eskutitzon testua huts-hutsik. Edizioaren prestatzaile izan den Pierre Charritton jaunak oharpen ugariak jarri ditu eskutitzen azpian, eta horietan xehetasun argigarri asko datoz idazkiotan aipatzen diren pertsona, gertaera eta arazoei buruz. Eskerrak, bada, berari ere. Pierre Charritton jauna aspaldidanik ari da bere herritar prestu honen aldeko lanean. Pixka bat ahantzirik zegoen Broussain-en irudia eta bai gizon honek euskararen alde bulztatu zituen arrangura, asmo eta ideiak ere, eta hemen ditugu, bai harenak eta bai Azkuerenak, argitan jarriak.

Guztiok dakigunez, Azkuek 1905. urtean, eta Bizkaiko Diputazio honen beronen laguntzaz, hain zuzen, argitara zuen bere Hiztegi handia. Hitzaurrean esaten duenez, 15 urte eraldi behar izan zituen Hiztegi hori prestatzen. Askotan Iparraldera txangoak egin behar izaten zituen, hango euskara, hango euskalkiak, euskal liburuak, euskaltzaleak etab. hurbildik ezagutzeko. Eta txango horietako batean egin zuen Broussain jaunaren ezagutza. Broussain jauna, adinez, Azkue baino bospasei urte zaharragoa zen. Eta adiskidetasun hura, erne zen puntutik, ez zen gehiago zimeldu edo hil, ez horixe! Biek zuten amodio berbera, kezka berbera eta asmo berbera, hots: euskara, Euskalerrriaren ondare hau, nola bizirik

atera, nola jausialditik altxa, nola sendotu eta bizkortu. Arazo honetan pentsamoldea berdin xamarra dute biek. Honekin esana dago iturri paregabea direla eskutitz hauek garai hartako euskal estudioen egoera aztertzeko; izan ere, euskalari eta euskaltzale askoren izenak eta lanak eta aburuak aipatzen dira eskutitzotan; baita ere ematen dira urte haietan gertatu ziren gertaera askoren berriak.

Charritton jauna mintzatuko zaigu berehala xehekiago eta hedatukiago. Nik, berriz, punturen bat edo beste ukituko dut xoilki. Azkenaldiko eskutitzetan, Akademiaren amets zaharra egia bihurturik ikusten duenean, Broussain honela mintzatzen zaio bere lagunari: "Oroitzen zara, orain dela hogeiren bat urte, Donibane Lohitzuneko euskal festetan, lehenbiziko aldiz elkar ezagutu genuenean, nola hitz egin genuen Akademia baten premiaz? Horra, azkenik, gure ametsa burutua?" (24-XI-1918, 308 orrialdean).

Baina pixka bat geroago Urquijo jaunak asmo honi buruz duen eszeptizismoaz mintzo da Broussain (10-III-1919, 315 orr.). Urquijok badaki, nunbait, euskaldunok kaska-gogorrek garela eta euskarari buruzko arazoetan bakoitza bere eritziei itsu-itsuan eta zurrunki lotzen dela. Horregatik zaila ikusten omen du Urquijok Akademia horren sortzea eta martxan jartzea, eta martxan jartzen baldin bada ere, beldur da ez ote den hasi eta berehala desegingo, euskaltzainak eritzietan bat ez etorritz. Horregatik hasieran kontu handia ipini behar omen da, dimisioak ez ontzat eman, etab.

Broussain-ek leku askotan aipatzen du zein diren bere ustez euskarak bizirik irteteko egin behar dituen urratsak. Horra, beste askoren artean, 1919ko Martxoaren 10eko eskutitzean dioena (315 orr.). Euskarak, bada, irauteko, urrats hauek egin behar ditu: 1) *Patois* egoeratik zibilizazio-hizkuntza izatera aldatu; beraz, literatura batean oinarriturik den hizkuntza izatera heldu; 2) Horretarako, euskararen batasuna noraezeko baldintzatatzat jotzen du Broussain-ek; 3) Mintzaira batu hori euskara ongi ezagutzen dutenen talde batek beharko du moldatu, talde horren barruan euskalki guztietako ordezkariak direlarik; 4) Euskara batu hori eskoletan beharko da irakatsi, eta belaunaldi bat edo biren buruan burgesia eta apezteriarren mintzaira bakar bilakatuko da. Broussainek uste du, gainera, urrats horiek ematen ez baditu, euskara hil egingo dela, eta euskararen batasun hori egitea dela Akademia berriaren obra handia.

Broussain-ek Azkuerengana sentitzen duen atxikimenduaz lekukotasun asko dago karta hauetan. Hara zer esaten dion 1898ko Azaroaren 15ean (200 orr.): "Urruntasuna gorabehera, nere bihotza beti leial dago hura irabazten asmatu dutenen alderaketatzat". Eta beste toki batean oraino (1904, Uztailak 22, 281 orr.): "Zu zaitut adiskide segurua eta leiala, zeinengan jarri baitut neure fidantzia osoa". Bion arteko barnekidetasun hau hain da handia, non askotan bizkaieraz idazten baitio Broussainek bere lagunari.

Jaun-Andreak: Zinez uste dut gaur kaleratzen den liburu hau iturri benetan aberatsa eta baliotsua dela mende honen hasierako euskal estudioen egoera aztertzeko. Gehiago esango nuke: Euskaltzaindiaren historiaurrea edo preshistoria dugula hemen.

Baina arbola orok du bere itzala eta Broussain-ek bazuen, dirudienez, alderdi argal bat: etimologiak asmatzeko eta hitz berriak sortzeko grina. Horretaz ere

bada adibiderik franko gutun hauetan. Eta Azkuek, Broussain hil ondoren, honen lan bat atera zuen hitz berrien gai honi buruz **Euskera**-n 1930ean. Egia esan, ez dut uste haren hitz berriok arrakasta handirik izan duten.

Señoras, Señores:

Hace cosa de nueve años, o sea, en 1978, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia celebró un acto como recuerdo de Pierre Broussain en la localidad labortana de Hasparren —en vasco Hazparne—, de donde aquél era natural. A la verdad, aquel homenaje fue un tanto atípico, pues la Academia no acostumbra celebrar tales actos fuera de ciertas fechas convencionales, como Centenarios, etc. Pero creyó que esta vez debía hacer una excepción por tratarse de un gran colaborador de D.R. M.^a de Azkue, de un académico de la primera hora, etc. En realidad la iniciativa partió de un grupo de jóvenes del mismo Hasparren, que querían recuperar de este modo la figura de este hijo ilustre, a quien veían injustamente olvidado.

Y fue entonces cuando ocurrió lo que nadie esperaba. La hija de Pierre Broussain, Jenofa, que nos honra hoy con su presencia en este acto, recordó, con motivo del homenaje tributado a su padre, que ella guardaba una maleta suya. No sabía a ciencia cierta qué es lo que había en ella; creo además que la tal maleta se hallaba un tanto arrinconada en un desván, pero de todas formas ella la guardó fielmente por ser cosa de su padre, que había muerto repentinamente en abril de 1920 en la estación de Orthez.

Se procedió, pues, a abrir la maleta. La sorpresa no fue pequeña. Broussain guardaba en ella la correspondencia epistolar que había mantenido durante muchos años con casi todos los que en aquella época —fines del s. XIX y principios del XX— se preocupaban por la suerte del euskara, o sea, por asegurar su futuro, tanto en Iparralde como en Hegoalde. Había allí cartas de Sabino Arana, de Azkue, de Campión y de tantos otros. En dichas cartas se habla de muchas cosas, como sucede siempre en este género de literatura, pero hay una constante que aparece a lo largo de toda la correspondencia, a saber, la preocupación por el euskara, por lo que se debe hacer para asegurar el futuro de esta lengua.

Entre las personas con las que se carteó Broussain por este motivo del salvamento del euskara, sobresale con mucho Azkue, tanto por el número de las cartas cruzadas entre ambos, como por su extensión y por el grado de penetración e identificación que entre los dos interlocutores se advierte. No hay que olvidar que Azkue publicó su gran Diccionario en 1905. En el prólogo del mismo dice que esta obra le ha costado 15 años de trabajo. Durante este tiempo Azkue realizó numerosos viajes a Iparralde para conocer sobre el terreno el euskara de allí, buscar fuentes, colaboradores, etc. Fue entonces cuando trabó conocimiento y amistad con Pierre Broussain.

Como botón de muestra de la intimidad que llegó a crearse entre ambos citaremos un solo texto. En una de sus primeras cartas (15 de noviembre de 1898, p. 200) Broussain dice a Azkue: “A pesar de la distancia, mi corazón

permanece siempre fiel a los que han sabido ganarlo". Así fue, en efecto. Broussain se desvivía por ayudar a Azkue en su empeño, por ponerle en relación con posibles colaboradores, le llevaba a su casa, etc. Testigo de todo esto es también la señora Jenofa, que tenemos hoy aquí.

Esta correspondencia cruzada entre Azkue y Broussain, guardada básicamente en la citada maleta, y completada con cartas que se conservaban en la primitiva sede de la Academia de la calle Ribera —bastantes de las cuales las había dado a conocer anteriormente el académico D. Alfonso Irigoyen en la revista **Euskera**, órgano de la Academia, el año de 1957—, esta correspondencia, decimos, es la que tenemos el gusto de presentar hoy al público, debidamente recogida y ordenada y además enriquecida y avalorada con numerosas notas por el académico señor Pierre Charritton, natural también de Hasparren. Pierre Charritton ha consagrado sus desvelos a iluminar la figura de Pierre Broussain, su biografía, su personalidad, sus ideas y proyectos, sobre todo en lo concerniente a la lengua vasca. Broussain era médico de profesión, intervino también en política, fue alcalde de Hasparren, etc.

Como dato curioso diré que en estas cartas se habla repetidamente de los Hermanos de Ploërmel, religiosos bretones que enseñaban a los niños bretones la doctrina cristiana y la lengua bretona. Tanto Broussain como Azkue piensan que no vendrían mal estos religiosos en el País Vasco para que hicieran aquí lo mismo con el euskara; pero para eso hacía falta buscar vocaciones nativas, y Azkue no echó en saco roto el negocio, pues en una carta comunica que tiene ya cuatro novicios potenciales para dicha Congregación, dispuestos a hacer el Noviciado en San Juan de Pie de Puerto (Donibane Garazi); los cuatro eran vizcaínos (Cf. carta de Broussain, 23-XII-1898, p. 203). No sé en qué paró la cosa. Seguramente que en agua de borrajas, pues el Gobierno francés a primeros de siglo echó de Francia a todas las congregaciones que se dedicaban a la enseñanza. Pero de todas formas, ahí queda esta anécdota conmovedora, que revela la preocupación que sentían ambos —Azkue y Broussain— por salvaguardar de algún modo este legado de la lengua del país.

Llevado de la confianza que siente con su amigo —el cual se llamaba Pierre—, Azkue le dice a veces: "No sea Vd. Pierre Loti —es decir, dormilón—". Pero también el otro, cuando Azkue tarda en contestar, replica: "Ahora le digo yo a Vd.: No sea Resurrección Loti", etc.

Pero anécdotas aparte, ¿cuál es, por decirlo de algún modo, el meollo de esta correspondencia que se publica hoy como volumen IV de la colección "Iker" de la Real Academia de la Lengua Vasca? Sin miedo a equivocarme ni a exagerar, yo diría que en estas cartas se contiene la prehistoria de la Real Academia de la Lengua Vasca, de sus planes y proyectos; ellas son también una fuente de primer orden para una biografía de Azkue, obra que la Academia deberá acometer algún día, si quiere pagar de algún modo la deuda que tiene contraída con su egregio fundador.

Algunas veces se ha dicho y escrito por ahí que Euskaltzaindia se ha desviado de sus auténticos objetivos iniciales, etc. Pues bien, basta leer esta correspondencia para convencerse de que la Academia se ha mantenido conmovedoramente fiel a los proyectos e ideales que aparecen en estos dos grandes

